

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-11-08
EGUBAKOITZA
573. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

"LOMCE legeak
hezkuntzaren
kalitateari
eragiten dio"

Maite Aristegi |

Amaiurko parlamentaria | 7



Herri galdeketa
Bergaran
asteburuan

Bihar eta etzi eman
ahal izango da botoa,
ohiko lekuetan | 4

Harreman GKE-ren hogeigarren
urteurrena ospatuko dute gaur | 6



Eskulanak protagonista
domekan Leintz Gatzagan | 11



Adifen auziaren aurrean, eskutik doaz
Aldundia eta Udala Aramaion | 26

FAGOR ETXETRESNAK

Hartzekodunen konkurtsora doa Fagor
Etxetresnak kooperatiba; itxierara eroango duen
pausoa emango du, bada | 2

BUKAERA HASI DA

SINADURAK

	AINHOA VITORIA 8
	25 ANTONIO DEOGRACIAS
	XABI IGODA 26
	32 IÑIGO ALBERDI
	AINTZANE OIARBIDE 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Gure betaurreko guztiak azken bildumakoak dira

ZURE BIGARREN
VARILUX
LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI*

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA
IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Etxetresnak itxi eta geroko egoera da orain lehentasuna

- Konkurtsora doa Fagor Etxetresnak eta laster likidatu egingo da
- Euskadin sortuko den langabezia kudeatu nahi dute erakunde publikoek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Fagor Etxetresnak kooperatiba hartzekodunen konkurtsoan sartzen da. Itxierara eroango duen hurrengo pausoa da, joan den eguaztenean Eusko Jaurlaritzan, Lakuan batzartu ziren arduradunek adierazi zuten moduan: "Konkursuan sartu eta oso epe laburrean, aste batzuetara, likidatu egingo da", esan zuen Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusiak batzarraren bukaeran. Atsekabez aitortu zuen Fagor Etxetresnetako eta Mondragon Korporazioko arduradunek "oso garbi" utzi zutela "hau ixtera doala", Garitanoren hitzak erabiliz.

Egon zitekeen berri txarrena zen eta berri txarra aitortu zuen Garitanok, baina txar izanagatik ez zen ustekabekoa. Are gehiago: jakinekoa zen, eta eguaztenean egin zen gauza bakarra jakineko horri data ipintzea besterik ez zen izan. Fagor Etxetresnetako

eta Mondragon Korporazioko goi-arduradunek egin zuten hori batzarrean, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun sailburu Arantza Tapiak esan zuten moduan.

Langileei dagokienez, Garitanok aurreratu zuen eta Mondragon Korporazioak bere idatzian berretsi zuen ia segituan: Mondragonek bazkideei -eta bakarrik horiei- konponbidea emateko konpromisoa berretsi zuen, birkokapenen, aurre-erretiroen eta formazio planen bitartez. Aldi bateko langileak eta bazkide kooperatibista ez direnak konpromiso horretatik kanpo gelditzen dira, eta baita Azpeitiko Grumal enpresako langileak ere. Edozein modutan, 1.000 eta 1.200 bazkide inguru birkokatu edo aurre-erretiratuko ditu Korporazioak, "datozen hilabeteotan" behintzat.

Basauriko Edesako plantarendako, berriz, itxaropena piztu da berriro, Bizkaiko Foru Aldundiak eguaztenean jakinarazi eta gero 3

milioiko bermea ematen diola lantegi horri; eguenean bertan ziren lanera bueltatzekoak.

"Ez dago beste aukerarik"

Eguazteneko goi-batzarraren ondoren, bakarrik Martin Garitanok, Arantza Tapiak eta Ricardo Barcala Enplegu sailburuordeak egin zuten berba komunikabideen aurrean (Mondragon Korporazioak idatzi baten bidez jakinarazi zuen bere ikuspuntua), eta bien hitzetan antzematen zen Fagor Etxetresne-



Eguaztenean Lakuan batzartu ziren erakundeak eta kooperatibak. | LEIRE KORTABARRIA

kin egin behar denaren gaineko debatea bukatuta dagoela.

Batez ere sailburuak erakutsi zuen argi eta garbi eszenatoki aldaketa hori. Itxiera ez beste konponbiderik irten daitekeen itxaropenik ez dagoela agertu zuen: "Eszenatoki honetan gaude joan den eguena ezker. Bideragarritasun planaren eszenatokia itxita dago. Orain beste egoera baten gaude eta erakunde guztiok batera jardun behar dugu. Gaur [eguaztenea] jakinarazi zaie Frantziako sindikatuei bihar [atzogatik] ordainketa suspentsiora doazela, eta gertatu dena jakinekoa zen". Etxetresnek hainbeste borrokatu izan duten azken momentuko diru-injekzio hori ez dela etorriko esan zuen: "Orain, konkurtso-administratzaileak lantegiak nola dauden eta azkenaldian ze jarduera izan duten baloratuko du eta likidazio-plana

aurkeztuko du; eta ez dago beste aukerarik, Fagor Etxetresnen diru-kutxa nola dagoen ikusita eta lantegi guztiek itxita daramatelako bizpahiru aste".

Drama humanoari aurre egin

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, biek aurrera begira jarriko direla esan zuten, eta horretarako asmo zehatzak zituztela azaldu zuten.

Tapia sailburuak azaldu zuen Mondragon Korporazioa badabilela bere azterketa egiten, Fagor Etxetresnak itxeak ze eragin izango duen kooperatibetan, baina Ekonomia Garapen Sailak azterketa orokorragoa egingo duela, jakiteko Euskadi osoan zenbateko langabezia sortzen den. "Gure klusterrak aktibatuko ditugu ikusteko non dauden ahalmenak, non bilatu ditzaketen enpresa horiek beste merkatu batzuk eta ze beste lan egin dezaketen. Bestalde, ikusi nahi dugu ze kapazitate duten, ze formazio behar duten eta, enpresa horiek txikiago geratu beharko direnez, berregituratzea egiteko Eusko Jaurlaritzak dituen baliabideak ipiniko ditu", esan zuen sailburuak. Gaineratu zuenez, Eusko Jaurlaritzak "egin ditu egin beharrekoak eta gehiago" Fagor Etxetresnei laguntzen ahalegintzeko. Orain, "pasatakoak pasata, aurrera begira" jartzea tokatzen

DATUA

1.200

BAZKIDE

1.000-1.200 bazkide ingururi irtenbidea eman nahi die Korporazioak.

DATUA

19

ARDURADUN

Hamar erakunde eta enpresako 19 arduradun batzartu ziren Lakuan.

SANMILIXANAK

XXI. ESKULANGINTZA FERIA

LEINTZ GATZAGA 2013

AZAROAK

10

IGANDEA


10:00
14:30



Autobus zerbitzua egongo da:
10:00 - 14:30

ESKORIATZA - LEINTZ GATZAGA
LEINTZ GATZAGA - ESKORIATZA





Martin Garitano, lau alkateekin. | LEIRE KORTABARRIA



Arabako ahalhun nagusia, Aramaion. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

dela esan zuen eta "gaizki geratzen diren pertsona guztiei mezu positiboa bidali". Azpimarratu zuen ez dutela "distintziorik egiten" langabeak "kooperatibistak izan edo ez".

Eta aurrera begira jartze horrek honakoa esan nahi du: Fagor Etxetresnetatik neurri handi baten bizi ziren langile asko eta asko lanik gabe geratuko direla; "drama humana", Ricardo Barcala Enplegu sailburuordeak esan zuen moduan. Honako neurriak iragarri zituen: langabe gehien egongo diren lekuetan lan-orientazio planak; herri eta eskualde kaltetuenetan finantzazioa, kontratazioa eta plan zehatzak garatzea; merkatu-nitxo berriak ager daitezkeen lekuetan, enpresa berriak sortzen laguntzeko neurriak; eta gaitasunak bai baina kualifikazio-agiririk ez duten langabeen aukerak hobetzeko formazio planak.

Martin Garitano ere antzeko asmoak agertu zituen Foru Aldundiaren partetik. Hala, esan zuen kalte handiena duten herrietako udalekin eta garapen agentziarekin "diagnosia" egiten dabilzala, kaltea zenbaterainokoa izango den ahalik eta gehien zehazteko -enpresetan, merkataritzan, ostalaritzan...- eta, hori egin eta gero, Foru Aldundiak, udalek eta gara-

pen agentziek batera jardungo dutela "ahal dela, kalte hori leuntzen" lagunduko duten neurriak martxan jartzeko, enplegua sortzeko neurriak hain zuzen ere.

Egubakoitz goizean Martin Garitanok komunikabideetan esan zuen Foru Aldundiak "ez duela baztertzen" Grumali laguntzea, baina lehenengo bideragarria den jakin behar dela. Erabaki hori konfirmatzen bada, eguaztenean azaldutako eszenatoki orokor horren barruan geratuko litzateke, Grumal ez baita kooperatiba, nahiz eta Fagor Etxetresnak ziren enpresaren jabe.

Giro txarra

Eguazteneko batzarrak komunikabide askoren jakin-mina piztu zuen eta Lakuan batu ziren Euskal Herriko eta kanpoko hedabi-

de nagusiak. Batzar gelan 19 lagun batu ziren: Jaurlaritzako ordezkari gisa, Arantza Tapia sailburua eta Enplegu eta Industria sailburuordeak joan ziren; bertan izan ziren ere hiru aldundietako diputatu nagusiak (Martin Garitano, Gipuzkoatik; Jose Luis Bilbao, Bizkaitik; eta Javier de Andres, Arabatik) eta lurralde bakoitzeko sustapen diputatuak (Gipuzkoatik, Pedro Iturbe, Antzuolako alkate izandakoa); lau alkate (Arrasateko Inazio Azkarragaurizar, Aretxabaletako Ana Bolinaga, Azpeitiko eta Basaurikoa); Mondragon Korporaziotik, Txema Gisasola presidentea, Mikel Zabala eta Zigor Ezpeleta; eta Fagor Etxetresnetatik, Xabier Bengoetxea presidentea eta Sergio Treviño zuzendari orokorra.

Batzarrera sartu aurretik Garitanok itxaropena agertu bazuen ere, gero protagonistek aitortu zuten moduan, dagoeneko ordurako jakinekoa zen zein izango zen emaitza segurua. Partaideek esan zuten, Fagor Etxetresnetako eta Mondragon Korporazioko arduradunen artean giro txarra nabari zen. Arantza Tapiak, bere aldetik, baztertu egin zuen inori ezer leporatzerik ez besteen erabakiak epaitzerik, eta garbi utzi zuen Korporaziorik dagozkia orain kooperatibistei dagozkien kontuak kudeatzea; hala, kazetariaren galdera bati erantzunez, esan zuen batzarrean ez zutela hitz egin kooperatibisten diru-ekarpenekin eta kapitalarekin gerta daitekeenaz.

Zalantzarik bazegoen, eragile guztiek orria pasatu dute.

Egunero batzarrak

Eragile horietako bat atzo, egue-na, Aramaion izan zen, Fagor dela-eta: Arabako ahalhun nagusi Javier de Andres. Aramaio 62 lan-bazkide aktibo dituen herria da, bizilagunekiko proportzioan, bazkide gehien dituen Debagoieneko herria. Hala, Aramaioko errealitatea bertatik bertara eza-gutze aldera izan zen ahalhun nagusia bertan.

Gainontzeko inplikatu gehienei dagokienez -bazkideak mobilizazioak ugaritu egin dituzte asteon. Protesta egiteko baino gehiago, aurrera begira jarri eta norbereraren arazo edo eskaerei indar handiagoarekin aurre egiteko. Egunero egiten dabilzala batzartzen, San Andresen, 10:00etan. Bi talde ere sortu dira: Ordaindu eta Bazkideak Betirako.

Neurri zehatzak eta orokorrak

KOOPERATIBISTAK

Datozen hilabeteotan, 1.000 eta 1.200 bazkide artean birkokatu edo, Lagun Aroren bidez, aurre-erretiratu nahi ditu Mondragon Korporazioak. "Malgutasunez eta aukera guztiak baloratuz, bai behin-behinekoak bai behin betikoak, soberakin geratu den enplegua" bideratzeko "buru-belarri" dabilela esan du.

LANGILEAK

Aldi baterako langileei ez die eragiten Korporazioren konpromisoak. Edesak aurrera jarraituko du Bizkaiko Aldundiaren abal batekin, eta Grumali laguntzeko aukera dagoela aditzera eman zuen Garitanok.

EUSKADI

Euskal ekonomiarendako eragina handia izango dela aurreikusita, enplegu planak eta finantzazioa eta enpresa-berregituratze planak proposatu ditu Eusko Jaurlaritzak.

AUTOENPLEGUA

Lanik gabe geratuko direnei formazio planak eskainiko dizkiete, eta autoenplegu edo ekintzailatza planak ere.

ESANAK

"Kooperatibistak eta bestelakoak berdin tratatzen ditugu"

ARANTZA TAPIA
EKONOMIA GARAPEN SAILBURUA

ESANAK

"Debagoiena industrializatua izan dadin lan egingo dugu"

MARTIN GARITANO
GIPUZKOAKO AHALDUN NAGUSIA



UROLOGIAKO ZERBITZU BERRIA

Tratamenduak:

- Onkologia urologikoa (prostata, giltzurrun, maskuri eta barrabil minbiziak)
- Gernu-obstrukzioa, prostataren hiperplasia onberaren eraginez
- Bagina-prolapsoen eta emakumezkoen zein gizonezkoen gernu-inkontinentziaren diagnostikoa eta tratamendua
- Urologia pediatrikoa
- Gernu-traktuaren patologia infektziosa
- Zutitzearen disfuntzioa

QUIRÓN
OSPITALEA
Gasteiz

ESKA EZAZU ORDUA:

QUIRÓN GASTEIZ OSPITALEA | UDALAITZ ZENTRO MEDIKOAN
Tel.: 945 25 25 00 | Tel.: 943 79 44 22

MEDIKUAK

Alberto Martin-Marquina - Anibal Rincon - Abel Saiz.

RPS: 136/12

www.quiron.es

"Inportanteena da aukera izatea botoa emateko"

Hondakin bilketaren gaineko galdeketa egingo dute bihar eta etzi Bergaran

UBANE MADERA | BERGARA


100 lagun. Hamar hautesleku edo mahai. Bi pertsona hauteskontzi bakoitzeko. Notario bat.

Horiexek dira Bergara Garbia plataformak astebururako antolatutako herri galdeketa bueko zenbakiak. Bihar, 10:00etatik 20:00ak arte izango dira zabalik bozkalekuak eta domekan, berriz, 10:00etatik 18:00etara. "Edozein hauteskundetan izaten diren toki berak izango dira botoa emateko", azaldu du Josu Leturiak, Bergara Garbiako kideak. Hauteslekuak, beraz, honakoak: Udal Pilotalekua, Poligonoa (Martinez Irala eskola), Osintxu, Martokoa eta Labe-garaieta.

Negoiodunak eta ordezkokoak

Botoa eman dezakete 18 urtetik gorako bergararrek, nortasun agiria aurkeztuta. Baina, horiez gain, Bergaran erroldatuta egon gabe ere, etxebizitza ohikoa bertan dutenak eta Bergaran bizi ez arren herrian bertan negozioren bat dutenak ere gonbidatu dituzte herri galdeketa parte hartzera. "Bergaran komertzioaren bat duten pertsonak bozka dezakete zaborraren azkeneko fakturaren (bere izenean) fotokopia aurkeztuz gero", dio Leturiak.

Eta ohiko hauteskundeekiko desberdina izango den beste ezaugarri bat da norbera joan ezin ezean ordezkoa izenda daitekeela botoa emateko. "Elkarteetan eta askotan egiten da hori. Botoekin batera etxez etxe banatu



Josu Leturia, bosgarren edukiontzia aldeko botoarekin. | U.M.

Bi boto mota izango dira

Hondakin bilketa sistemaren gaineko galdera bat baino gehiago, bi boto aukera da Bergara Garbia plataformak planteatu duena herri galdeketa: organikoa bosgarren edukiontzian batzearen aldekoa da boto bat eta organikoa eta errefusa batzeko atez ateko sistemaren aldekoa da beste botoa.



ditugu ordezkokoak izendatzeko boto-txartelak". Hain justu ere, eguaztenean jaso zituzten bergararrek herri galdeketa boto aukera biak:

1: Organikoa jasotzeko 5. edukiontzia ematen diot nire botua;

Bergara Garbia plataformak defendatzen duen sistema.

2: Nire botua, organikoa eta errefusa jasotzeko atez ate; Udal Gobernu talde buruak (Bildu-Aralar) defendatzen duen bilketa sistema.

Emaitza, domekan

Behin herri galdeketa bukatuta, domekan bertan jakinaraziko dute emaitza: 19:00etan, Udal Pilotalekuan. "Gero, aztertu egin beharko dugu emaitza hori. Eta alde baterakoa edo besterakoa izan, ikusi egin beharko da zer egin. Nahi duguna da barometro lana egin, jakiteko zein den herriko egoera erreala. Emaitza izan daiteke positiboa edo negatiboa; hortaz, aztertu egin beharko da, eta gero erabakiko dugu zer egin", adierazi du Bergara Garbiako ordezkariak.

Botoa emateko aukera

Hain zuzen, Josu Leturiak azpimarratu gura izan du galdeketa jasotzen den erantzuna baino gehiago, antolatzaileen helburua dela herritarrei berba ematea: "Inportantea dena da jendeak aukera izatea botoa emateko, alde edo aurka egon. Guri benetan gustatuko litzaigukeena da kontra dagoen jendea ere botoa ematera joan dadila. Eskubide bera dauka. Eta kontrako botoa ematearren ez diogu elkarri agurra ukatuko. Izan ere, galdeketa botoa sekretua izango da, jakina;

ABSTENTZIOAREN ALDEKOAK

Udal Gobernu taldea

"Gaia teknikoa da, eta, tamalez, etekin politikoak lortzeko erabat kutsatu da"

"Beti agertu gara galdeketa alde, baina ulertzen dugu badirela hainbat gai galdeketa ezin direnak eraman. Guretzat giza eskubideekin eta naturaren babesarekin zerikusia daukaten gaien inguruan ezin dira galdeketa planteatu. Adibide erraz bat jarriko dut: enpresei ezin zaie galdetu ea eurek zikindutako urak garbitu nahi dituzten edo ez, ezta tabernari edo jatetxei ea beraienak diren lokaletan erre daitezkeen edo ez. Pertsonak eta ingurumena kaltetzen dituzten gaien inguruko galdeketa ezin da egin. Gaur mahai gainean dugun galdera bilketa sistemaren ingurukoa da. Atez ateko bilketa frogatu du emaitza oso onak ematen dituela, eroso da, garbia da eta herritarrei aldaketa txiki bat baino ez die eskatzen. Gainera, Bergarako sistema mistoa izango da, erosoago suertatzeko egungo kontenedore gehienak mantentzen dituen. Gaia guztiz teknikoa da, eta, tamalez, etekin politikoak ateratzeko erabat kutsatu da. Herritarrei informazio zuzena jasotzeko ez joateko deialdia egin zitzaion. Gezurrekin eta/edo egia erdiekin desinformazioa bultzatu da EAJ-PNVren eta Bergara Garbiaren aldetik, gaia testuingurutik guztiz atera da Udal Gobernu taldea desgastatzeko asmoz. Honaino iritsi badira, argi dago interes politiko eta ekonomiko izugarriak dituztelako dela. Penagarria da Arrasaten akordioa lortzeko erakutsi duten jarrera Bergaran erakutsi ez izana. Penagarria da desinformazioa arma bezala erabiltzea. Eta penagarria da herri galdeketa filosofia alderdikeriak maskaratzeko erabiltzea".

Bergarako EH Bildu

"Halako galdeketa ez dira onartzen"

"Bergarar bat, bozka bat printzipioa" onartzeko eskatu die EH Bilduk antolatzaileei, baina haien erantzuna dela-eta (botoa delega daiteke eta Bergaran erroldatu bakoek ere bozka dezakete komertzioa edo ohiko etxebizitza bertan izanez gero), diote halako galdeketa ez direla onartzen, "ez Europan, ez beste inon. Monarkia bananero baten ere ez da homologarria (...) Auzo-lotsaz begiratzen diogu galdeketa, herri galdeketa sinesten dugulako". Politizatu, konfrontazioa sustatu duena eta natura eta osasunaren aurkakoa dela ere azpimarratu dute.

Bergara Zero Zabor

"Sasi galdeketa, abstentzioa!"

"Birziklatzea derrigorra izatea ezin dugu aukeratu, eta hori da galdeketa honetan planteatzen dugutena. Herritarren erantzukizuna da hondakinak selektiboki berezitea; beraz, gure ustez galdeketa honen terminoak ez dira zilegi. Ezin dugu hurrengo belaunaldiak hipotekatu kutsatzea edo ez kutsatzea erabaki". Bergara Zero Zaborrek botoa delegatzeko eta botoa emateko Bergaran ez erroldatuta egoteko aukeren zilegitasuna zalantzan jartzeaz gainera, azpimarratu du "galdeketa egin aurretik zentsoa zein den jakin" egin behar dela.

PARTE HARTZEAREN ALDEKOAK

Aintzane Oiarbide | EAJ-PNVren udal taldea

"Galdeketa berezi bat egiteko modukoa da, halako protestarik ez da sekula egon"

"Behin eta berriz eskatu diogu Bergarako Udal Gobernuari galdeketa egin dezala, hark antola dezala. Baina behin eta berriz ezezkota eman digute; erantzun zehatza izan da galdeketa egin zutela udal hauteskundeetan eta horrekin nahikoa dutela. Guk uste dugu halako protesta mailarik ez dela sekula izan horrelako zerbitzu baten planteamenduaren aurrean, eta uste dugu galdeketa berezi bat egiteko modukoa dela. Udalak horri ezezkota eman dioenez, eta Bergara Garbia plataformak bere gain hartu duenez galdeketa hori herri galdeketa moduan planteatzea, guk horri babesa eman diogu alderdi moduan. Gu ados gaude. Hori bai, eskatu dugu berme guztiekin egin dezatela, baina babestu egiten dugu galdeketa".

Mari Carmen Barrenetxea | PSE-EEren udal taldea

"Erabat babesten dugu galdeketa"

"Erabat babesten dugu herri galdeketa. Hasieratik egin dugu bosgarren edukiontzia alde. Ezin izan da hori gauzatu arrazo politikoengatik, ze gehiengorik ez baitute. Eta erabat ados gaude eta babestu egiten ditugu Bergara Garbiak egiten dituen ekimen guztiak".

baina egia da, baita ere, Bergaran guztiok elkar ezagutzen dugula. Dena den, kontra pentsatzea ez dadila izan arrazoia elkarrekin haserretzeko. Hori larregikoa litzateke. Nork bere ideiak defendatu behar ditu eta batzuetan ondokoa konbentzitu ahal izango du eta beste batzuetan ez".

Horren harira, eta nahiz eta Bergarako Udalak galdeketa ez antolatu, haren jarrera txalotu egin du Leturiak: "Eskertzen dugu Udalaren jarrera, erraztasun guztiak eman dizkigulako herri galdeketa antolatzeke".

Botoa eman bai edo ez

Asteotan ikusi den moduan, baina, herri galdeketa denetariko iritziak eragin ditu: parte-hartzearen aldekoak eta abstentzioaren aldekoak.

Herri galdeketa antolatzaile Bergara Garbia plataformak galdeketa antolatzeke emandako arrazoia honakoak dira: "Ber-

garar gehiengoak argi eta garbi erakutsi du gobernu-buru taldeak zaborra biltzeko atez ateko sistema ezartzeko hartutako erabakiaren aurka dagoela. Jasotako 4.691 sinadurak, manifestaldi jendetsuak eta zabor poltsaz atonduriko Bergarako balkoi eta leihoak protesta moduan ikusi ondoren, ematen duenez ez dira nahikoa izan gobernu taldeak bere erabakia birplanteatzeko. Horregatik guztiagatik, herri kontsulta hau aurrera eramatea erabaki dugu. Bergarar guztiak gonbidatuta daude".

Gainontzean, herri galdeketa babesa eman diote EAJ-PNVren eta PSE-EEren udal taldeek. Aldiz, herri galdeketa horren zilegitasuna zalantzan jarri eta abstentzioaren aldeko deia egin dute Udal Gobernu Taldeak, Bergarako EH Bildu adierazita eta baita Bergara Zero Zaborrek ere. Arrazoia goiko taulan daude adierazita.

Euskarari bultzada emateko otarreak jarri dituzte salgai

Eperra ikastolari eta Erriberako euskalgintzari laguntzeko Gabonetako otarreak daude eskuragarri

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Zuberoako Eperra Ikastolari eta Nafarroako Erriberako euskalgintzari laguntzeko Gabonetako otarreak jarri dituzte salgai. Zuberoako otarreak erosi gura dituzten debagoiendarrek azaroaren 30a baino lehen eman behar dute izena zuberoako.ikastola1@orange.fr posta elektronikoa, telefono zenbakiarekin eta zenbat otarre nahi dituzten adierazita. Bestalde, Errigora ekimenaren bidez, Erriberako euskalgintzari laguntzeko jakien otarreak norberaren euskaltegian, ikastetxean, ikastolan edo lantokian eska daitezke hilaren 14a baino lehen.

Dagoeneko badira hamar urte Zuberoako Eperra Ikastolak Ahuski izeneko otarreak eskaintzen dituela. Xiberuko Ikastolen ordezkari Beñat Etxebest-ek azaldu du lehenengo urtean Iparraldeko kostaldean hasi zirela saltzen,

baina bigarrenean Euskal Herri osora zabaldu zutela. Helburua bikoitza dela dio: "Batetik, ikastolaren egoera ekonomikoari bultzada ematea; eta bestetik, tokiko jakiak ezagutaraztea". Azken horren harira, Etxebestek aipatu du ikastolako hainbat kidek egindako jakiekin daudela osatuta otarreak: ezti, ardi gazta, ahate gibelarekin egindako patea eta bizkotxo poltsa.

Bakoitzak 39 euro balio du, eta ordainketa honako zenbakian egin behar da: 3035 0059 87 0590098962. Otarreak abenduaren 13an jaso ahal izango dira; kopurua handia bada, eroslearen etxera eroango dute, eta, bestela, Bedoñako Iturralde etxean jaso ahal izango dira.

Eguena baino lehen

Bestalde, esan bezala, Errigora ekimenaren bidez, Erriberako



Oskar Elizburu eta Beñat Etxebest, eskaintzen dituzten Gabonetako otarreak ondoan dituztela. | TXOMIN MADINA

ESANAK

"Helburua bikoitza da: ikastolari bultzada ematea eta tokiko jakiak ezagutaraztea"

BEÑAT ETXEBEST | XIBERUKO KIDE

euskalgintzari laguntzeko jakien otarreak ere eskura daitezke aurtengo bigarrenaz; 50 euroren truke Nafarroako hegoaldeko produktuz osatutako saski bikaina da eskaintzen dena.

Arrasateko AEK-ko zuzendari eta AEK-ko zuzendaritzako kide Oskar Elizburuk Errigoraz egin du berba. Azaldu du auzolanean Nafarroako hegoaldeko nekazaritza indartzeko asmoa duela, horretarako eremu horretakoak diren produktuak eskainita. Bertako lehengaiak bultzatzearekin batera, euskalgintzari ekarpen ekonomiko ematea ere badu helburu; hala, %25 euskarari bideratzen zaio, hiru proiektu diruz lagunduta: egoera larrian dagoen Lodosako ikastola, *Euskaraz bizi eta ikasi* herri ekimena eta Erriberako helduen euskalduntzea zabaltzea.

Horren harira, honako nabarmendu du: "Helburua lankidetzat da. Euskalgintzak otarreak saltzeko sarea jartzen du eta nekazariak, produktuak. Alde biek irabazten dute modu horretan".

Mendekotasun eta eraikinen energia saioak Arizmendin

I.E. | ARRASATE

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak hainbat formazio ikastaro eskainiko dituzte datozen asteetan, Lanbide erakundeak egiten duen eskaintzaren barruan. Guztiek gaitasun ziurtagiriak eskuratzeko balioko dute.

Bi arlo ezberdinetako Mendeko pertsonen arreta sozio-sanitarioa ematea erakunde sozialetan eta Eraikinen energia efizientzia- sei ikastaro eskainiko dituzte, lau mendekotasun arlokoak eta bi eraikinen energiari lotutakoak. Ikastaroen 30 eta 90 ordu arteko iraupena dute.

Gainera, ikastaro guztien nondik norakoak azaltzeko hitzaldiak emango dituzte datorren astean. Mendekotasunari buruzko ikastaroen inguruko hitzaldia astelehenan izango da eta eraikinen energia efizientziarena, berriz, martitzenean. Biak 16:00etan hasiko dira Ferixalekuan.

Informazio gehiago eskuratu nahi dutenek lanbide@arizmendi.ikastola.net era idatz dezakete.



Hainbat guraso aurreko ikasturteko mintegiko hitzaldietako batean. | ARIZMENDI IKASTOLA

Azaroaren amaieran ekingo zaio 'Guraso izatea gaur' mintegiari

Bosgarren urteurrena bete du Arizmendi Ikastolaren Guraso Mintegiak

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Jakina da gurasoen lana ez dela etxean hasi eta amaitzen, eta seme-alaben heziketa ere ez dela hezkuntza eredura eta ikastetxetara mugatzen. Era berean, gero eta gehiagotan aldarrikatzen da haurren heziketa eta nortasuna ezin dela irakaskuntza zentroen

esku bakarrik utzi. Erdiko puntu horretan egin zuten bat Arizmendi ikastolak eta bere zentroetako haurren gurasoek, 2009-2010 ikasturtean *Guraso izatea gaur* mintegiaren lehen saioak antolatu zituztenean.

Hasiara hartan Haur Hezkuntzako gurasoak eta haurraren

esperoan zeuden gurasoak izan zituen ardatz mintegiak. Helburua, berriz, egungo bera zen due la bost urte ere: gurasoei ulertaraztea pertsonaren nortasun emozional eta kognitiboaren oinarri eta funtsak bizitzako lehen bi urteetan eraikitzen direla. Asmo horrekin ekingo diote aza-

roaren 23an ere mintegiaren ikasturte berriari.

Aurtengo ere bi talde

Lehenengo urtean talde bakarrekin hasi ziren lanean Arizmendi ikastolakoak baina denborak aurrera egin ahala, interesa handitzen joan zen eta bigarren taldea eratu zuten. Bigarren ikasturte hartatik aurrera hastapeneko eta jarraipeneko taldeak daude. Guraso berriak izaten da lehenengoa eta aurreko ikasturtean mintegian ibili direnendako bigarrena.

Aurtengo modu berean egingo dute: hastapeneko taldea eta sakontzeko izango dira. Bigarren horretan haurraren lehen urteak eta epe horretan nortasuna nola garatzen den izango dute hizpide baina beste adin batzuetako gurasoei ere irekitako hitzaldiak izango dira. Adituek emango dituzte hitzaldiak: Rafael Cristobal haur psikiatrian aditua eta Arantxa Lejarraga Arizmendi Ikastolako Haur Hezkuntzako orientatzailea.

Ikasturtean zehar zortzi saio eskainiko dira Arizmendi Ikastolak Arrasaten duen Uribarri gunean. Hilabete amaierako lehen saioan gurasoak lasai ibili ahal izateko haurtzaindegi zerbitzua egingo da.

Mintegiari buruzko informazio gehiago eskuratu nahi dutenek ikastolaren webgunean begiratu edo 943 772025 telefono zenbakira deitu dezakete.

Izenari ohore eginez, hogeit urte harremanak ereiten

Harreman-ek urteurreneko ospakizuna egingo du gaur Amaian, 20:00etan

IRATI GOITIA | ARRASATE

Harreman gobernuz kanpoko erakundeak 20 urte bete ditu: hogeit urte hartu eta emanaz, hogeit urte harremanak ereiten, hogeit urte garapen bideko herrialdeei laguntzen. Cristina Etxenausia eta Andoni Uribeetxeberria Harremaneko kideekin izan gara eta erakundearen ibilbidearen gaineko xehetasunak eman dizkigute.

Kuadrilla baten hazia

Arrasateko kuadrilla batek erein zuen Harremanen hazia. "Arrasateko kuadrilla baten nahitik sortu zen Harreman. Herrian ez zegoen horrelako elkarterik eta zerbait egin nahi zuten. Aretxabaletan bazen Hiruatx eta haiekin jarri ziren harremanetan. Horrela sortu zen Harreman", adierazi digu Uribeetxeberriak. Hiru helburu nagusirekin sortu zen: arrasatearrak sentsibilizatzeko, garapen bidean dauden herrialdeetan proiektuak betetzeko laguntza lortzeko eta instituzioen inplikazioa lortzeko.

"Lehen proiektua Indian egin zuten, Gujaraten. Izan ere, Inazio Galdos aretxabaletarra bertan zegoen eta haren bitartez egin genuen. Hasieran, Hiruatxekin batera aritu ginen lanean. Zehazki, lehen proiektu hartan lurrak landu ziren bertan erein ahal izateko, eta gero, ureztatzeko proiektua ere egin zen", azaldu digu Etxenausia.

Gertutasuna ardatz

Harremaneko kideendako oso garrantzitsua izan da beti proiektuetan gertuko norbait izatea. "Sortzaileentzako garrantzi handia zuen, eta orain, baita guretzako ere, hemengo jendea proiektuak gauzatzen diren tokian bertan egotea, konfiantzazko norbait izatea bertan. Lehenengoan hala izan zen, Inazio Galdos zegoen bertan, eta ondorengoetan ere beti izan dugu gertuko norbait", azaldu digute. Lehenaren ostean beste batzuk etorri ziren.

Ankur: bizi iraupena erronka

Etxenausia esan digu proiektu guztiak direla garrantzitsuak, baina badela bereziki maite duen bat: Ankur. Indiako Maharastra eskualdean dagoen umezurtegia da. "Bi bider izan naiz bertan eta nahiko ondo ezagutzen dut proiektua. 200 neskatila inguru bizi dira umezurtegian. Arropa, jatekoa eta bizi izateko tokia ematen zaie neskatila horiei, baina baita niretzako garrantzitsuagoa den beste gauza bat ere: hezkuntza. Helburua da neskatila guztiak eskolara joatea; ondoren, ofizio bat izan eta bizi-

Harreman, hitz gutxitan

SENSIBILIZAZIO KANPAINAK Urtean zehar hainbat ekintza egiten dituzte arrasatearrak sentsibilizatzeko: Elkartasun Eguna, Goikobaluren kontzertua eta Arrasate Bizirik-ek antolatzen duen pintxo-poteoa, besteak beste.

KONTXITA AZKARATE Ferrerías kalean duten egoitza eskaini zien, eta baita dirua ere, beratu atontzeko.

JOSE MARI SARASUA Hasierako bultzatzaile eta laguntzaile nagusia izan zen eurentzako.

HAMAR KIDE Astean behin batzen dira euren zereginetarako Harremaneko kideak.

'HARREMAN.NET' Webgune berria estreinatuta dute. Bertan duzue erakundearen inguruko informazio guztia.

modu hobea bermatzeko". Ingu-ruan bizi diren familiei ere laguntzen diete.

Indian ez ezik, beste herrialde batzuetan ere egin dituzte proiektuak. Bolivian, Antiplano eskualdean, ogia egiteko makina bat jarri zuten Eusko Jaur-laritzaren laguntzarekin. Cochabamban, Bolivian baita ere, hainbat auzotara ura eramateko kanalizazioa egiteko eta herrian iturria jartzeko dirua batu zuten. Angolan eskola bat martxan jartzeko eta osasun etxe bateko ekipamendua erosteko laguntza eskaini zuten. Kolonbian, 1997tik 2007ra bitartean, euren proiektu nagusienetako bat garatu zuten: San Klemente.

San Klemente proiektua

Kolonbian Guatika eskualdean garatu dute San Klemente proiektua Harremanekoek. "Bertan, Sebastian Uribeetxeberria eskola baten zuzendari zegoen. Nekazari-gunea zen eta ikusi zuten eskola horrek ez ziela hango beharrei erantzuten. Beraz, eskola eraldatu zuen hango beharretara egokitzeko. Baserriko produktuak ekoiztu eta saldu ahal izateko hainbat plan egin genituen, hala, eurekin batera. Besteak beste, esnekien tailerra bertakoek esnekiak egiten ikas-teko (esnea, gazta, jogurta...). Haragi tailerra ere egin zuten. Ostean, bi kooperatiba txiki sor-



Ankur umezurtegian nestatila batzuk bazkaltzen. | HARREMAN

tu zituzten, eskolan ikasi ostean bertan lan egiteko. Ura ekartzeko proiektua eta harategi bat ere egin ziren. Eta Copac izeneko kooperatiba ere bai; hori, baina, Mundukiderek egin zen", azaldu digu Uribeetxeberriak.

Mundukidaren sorrera

1999an sortu zen Mundukide. Gobernuz kanpoko zortzi erakunde indarrak batu eta Mundukide sortzea erabaki zuten euren jarduna profesionalizatzeko asmoz; tartean, Harremanek. Orduetik hona elkarlan zuzenean dabilta Mundukide eta Harreman. Azken dirua batzera eta Arrasateko herritarrek sentsibilizatzera bideratzen da, besteak beste, eta Mundukidek proiektuak kudeatzen ditu. "Bihotzez eskerrak eman nahi dizkiegu Harremaneko kideei emandako laguntzagatik", esan digu Mundukideko Josu Urrutiak. Harremanek batutako diruaren

%75 bideratzen du Mundukidera eta gainerakoa, Ankurrera.

Ereindako haziaren fruitua

"Proiektu bat aurrera doala ikusten duzunean, poza sentitzen duzu eta ongi sentitzen zara. Arrasaten zenbat pertsonak laguntzen duten ikustea ere zoragarria da", adierazi digu Etxenausia. "Askotan pentsatzen dugu eman egiten dugula eta hartu ez, baina alderantziz izaten da. Eman baino gehiago hartzen dugu", dio Uribeetxeberriak. Eta hauxe gaineratzen du: "Jendea-ri esango nioke egiten duen apurra izugarritzako laguntza dela jasotzen duenarentzako, ez dezatela inoiz pentsa euren esfortzuak ez duela ezertarako balio".

XX. urteurreneko ekitaldia

Urteurrena ospatzeko ekitaldi irekia egingo dute gaur Amaian, 20:00etan, proiektuetan parte hartu duten guztiei eskerrak emateko.



Eroskin dagoen bidezko merkataritzako denda. | I.G.

Bidezko merkataritzako denda Eroskin

Bailarako bost GKEk (Harreman, AMS, Anelkar, Banoia eta Hiruatx) kudeatzen dute Eroskin dagoen bidezko merkataritza denda. Boluntarioek egiten dute bertan lan. Helburuak honakoak dira: batetik, bidezko merkataritzako filosofia eta printzipioak promozionatzea; eta bestetik, kontsumo arduratsua bultzatzea.

"Jendea animatuko nuke bere erosketa poltsan bidezko merkataritzako produktuak sartzera. Kalitate onekoak dira, duintasunez eginikoak, eta asko ikas daiteke gure dendan erosita: nola egiten dituzten produktuak, ekoizleei nola ordaintzen dieten, eta abar. Jendea sentsibilizatzeko modua da guretako", esan digu Andoni Uribeetxeberriak, Harremaneko kideak.

BEÑAT ARZADUN | MUNDUKIDEN KOOPERANTEA

"Kooperazioa zer den Harremanen ikasi nuen, lan baliagarria egiten dute"

Duela 11 urte joan zen Beñat Arzadun Mozambikera. Egun, Mundukidek hantxe duen programaren koordinatzailea da.

Zer proiektu daukazue Mozambiken?

Programa bakarra da, baina hainbat lan ildo ditugu. Hasieran, errepide asko egin genituen. Egun, nekazaritza da egiten dugunaren %95. Batetik, mikrokredituak eskaintzen ditugu; eta bestetik, nekazaritzako teknika berriak erakusten dira. Guk nahi duguna da familiek jatekoa izateaz gain saltzeko ere izan dezatela, hobeto bizi daitezten.

Zenbat familiarengana iristen zarete?

2.000-3.000 familiarengana iristen gara. Baditugu adierazle batzuk eskualdean egoera hobetu egin dela adierazten dutenak. Badago mojen desnutrizio zentro bat, eta 2006tik 2010era %30 jaitsi da desnutrizioa Marrupan. Bestetik, Gobernuak nekazaritza



MUNDUKIDE

errola egiten du hamar urtean behin, eta, 1999ko datuak 2009-koek alderatuta, Marrupako eskualdean nekazaritzan aurrerapen handiagoak egon dira beste eskualde batzuetan baino.

Harremanen hasi zenuen zure ibilbidea.

Bai, Harremanen ikasi nuen zer den kooperazioa. GKE txikiak oso garrantzitsuak dira herritarrengana iristeko. Baliabide gehiago dituzten GKE handiek baino.

Maite Aristegi | Amaiur alderdiko parlamentaria

"LOMCE legeak izen ona du, baina ematen dituen pauso guztiak kontrako bidean doaz"

- ▶ UNED-Bergaran jasotako balioak gogoan ditu eta bizitzan aurrera egiten lagundu diote
- ▶ Egungo egoera ekonomikoarekin, landa eremuak eskain ditzakeen aukeretan sinesten du

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Madril eta Bergara artean ibiltzen da Maite Aristegi (Bergara, 1964), duela bi urte Amaiur alderdia Espainiako Parlamentuan sartu zenetik. Gaur jaioterrian izango da berriro ere, berak Zuzenbide ikasketak egin zituen UNED-Bergarak 19:00etan hasita egingo duen 2013-2014 ikasturte hasierako ekitaldian.

UNED-Bergara: bizitzako ezinbesteko lagunkide hitzaldia egingo duzu gaur arratsaldeko irekiera ekitaldian. Zertaz ariko zara?

Lehenengo partean neure esperientziatik hitz egingo dut: zer izan den UNED niretzako, zertan lagundu didan, zein balio eman dizkidan, bizitzarako zein ekarpen egin dizkidan eta horren garrantzia azalduko dut. Bigarren partean, berriz, hezkuntzaren garrantziaz eta gaur egunean dauden arriskuez ariko naiz: LOMCE legeaz, egoera ekonomikoaz eta krisiaz, hezkuntza jasaten ari den erasoez, kutxen lege berriaz, pribatizazioaz, eta abarrez.

Zein esanahi du UNED-Bergarak zuretzat?

Hitzaldiaren helburua bada esatea UNED ez balego sortu egin beharko genukeela. Nire bizitzan lagun on bat izan da, baina baita beste bizitza askotan ere. Hor lantzen diren balioak, nire ustez, oso garrantzitsuak izan dira: lana, diziplina, ezintasunetik positibotasuna ateratzea, erantzukizuna, lana egin beharra, elkarlaguntza... Horrek, gero, bizitzarako lagundu izan dit, horiek garatuta beste hainbat gauza atera ditut eta aurrera.

Balio horiek ekarri nahiko nituzke egungo gizartera, balioak airean dauden eta krisiaren enbatak denok noraezera eraman gaituen garai honetara.

LOMCE legea aipatu duzu lehen. Hezkuntzaren hainbat mailatan eragingo du.

Hezkuntza edozein gizarteren bizkarrezurra da eta lege honek izen on batekin, ze berez hezkuntza hobetzeko legea baita, ematen dituen pauso guztiak kontrako bidean doaz. Batetik, PPren ia lege guztien moduan, konpetentziak Madrilerantz eramaten ditu, zentralizatu egiten ditu. Bestetik, kalitateari erasotzen dio barren-barrenetik, eta oso ideologizatua eta bereiztailea da: azkarra eta ez hain azkarra, dirua daukatenak eta ez daukatenak, mutilak eta neskak... bereizten ditu. Aterapausoa da.

Euskal Herrian geure hezkuntza eredia jarri eta zer eta



Maite Aristegi, Goiena telebistako saio batean parte hartu aurretik. | GOIENA

nola erakutsi nahi dugun zehazteko orduan eskuak lotzen dizkigu zeharo. Eta noski, unibertsitatera helduko denaren sarbidea ere mugatzen du, neurri bereziak jartzen dituelako.

Hain berezia izateagatik, hain besteko eragina duelako eta hemen hezkuntza komunitate guztia horren aurka dagoelako, ohartarazi behar dugu bat egin behar dugula gurean aplikatu ez dadin eta hemen intsumisioa edo antzekoren bat egiteko.

Eskumenak kontuan izanda, zer egin daiteke hemendik?

Hori da denon galdera. Jarritako ebaluaketarekin, errealiza horrekin, oso lotuta ditugu eskuak eta hau jada erabaki politiko bat da, erabaki politiko sendo bat: "Hau hemen ez da aplikatuko" esan behar da. Horrek denok bat egitea eta tinko eustea eskatzen du. Argi utzi behar dugu hau ez dela batzuen kontua bakarrik, baizik eta inork ez dugula beteko eta guk geurearekin aurrera egingo dugula. Benetako hordagoa jo beharra dago. Honek guztiak alde on bat du: hezkuntza komunitate guztia dagoela ados, administrazioa barne, beraz, orain da aurrera egiteko momentua.

Azken asteetako gertakariak kontuan izanda, ezinbestekoa da Fagor Etxetresnak enpresaz galdetzea.

Hartzekodunen konkurtsoan sartu da azkenean. Zer iritzi duzu?

Bailarako edonoren moduan, oso ukituta eta kezkatuta nago. Ez da bakarrik datorren kontu bat, egoera ekonomikoa oso gaizki dago lehendik ere, ekaitz asko izan dira eta enpresa asko joan dira jausten. Horri, gainera, honelako katastrofe bat gehituta, benetan izugarria da.

Honek eskatzen diguna da hasieran esandako balio horiei heltzea eta denok soluziorako bidean jartzea. Pentsatzen dut administrazioak, Mondragon Korporazioa eta Fagor bera horretan ibiliko zirela, honen mina ahalik eta arinena izan dadin, baita bideragarriak diren gauzak

aurrera ateratzen eta horretarako ahalegin guztiak egiten ere. Horretarako, laguntzak behar dira, baina baita plangintza sakinak ere. Horrek ideia berritzaileak, gizarteak dituen premiei begiratzea eta denok makineria martxan jartzea eskatzen du.

Horri lotuta, uste dut badaudela esparru batzuk nahiko utzita egon direnak. Ni baserri mundutik nator, eta, bertan aritu izanik, uste dut berrikuntza horien artean nekazaritza bezalako beste mundu batzuei atek ireki behar dizkiegula. Pentsatu behar dugu, esaterako, landaguneen %80 baserriarren esku daudela, baina gure bailaran %1era ez direla heltzen baserri bizi

"Hitzaldiaren xedea bada esatea UNED ez balego sortu egin beharko genukeela"

"LOMCE legeak kalitateari eragiten dio, ideologizatu eta bereiztu egiten du"

"Nekazaritza moduko beste sektoreei atek ireki behar zaizkie"

"Berreskuratutako egin behar dira kooperatibismoaren oinarriko balioak"

direnak, eta baserrian aktibitatea dutenen %95ek beste lanen bat ere egiten dute.

Nekazaritzan, orduan, sor daitezke aukera berriak?

Aukerak daude ingurumenaren arloan. Gure landa eta nekazari lurrek izugarriko presioa, erasoa eta utzikeria jasan dute eta oinarri-oinarrizkoak ditugu. Hori lanpostuak sortzeko aukera bat bezala ere ikusi behar dugu.

Beti ere, oso kontuan izanda balio kooperatiboak eta elkarri laguntzea ezinbestekoak direla. Horiek beti salbu geratu behar dute, denaren gainetik.

Fagorrenaren harira, kooperatibismoarekiko zalantza hitz batzuk entzun dira; zuk horren aldeko apustua egiten duzu, orduan?

Kasuaz ezagutzen dudan apurra-rengatik esan dezaket zerbaitek huts egin badu, izan dela kooperatibismoa urrunduta delako, zenbait operazio hortik aldendu direlako. Nik uste dut berreskuratutako egin behar direla kooperatibismoaren oinarriko balioak: pertsona oinarri bezala, hurbiltasuna, elkarri laguntzea.

Horregatik diot badaudela beste esparru batzuk; ingurumen premiak, adibidez. Orain kezkatuta gaude birziklatzearekin, ingurumenari kalte txikiagoa egitearekin... Izan dira urte batzuk kontrako bidea egin dena, eta honek birplanteatze bat eragin behar digu. Ziur oraingo egoera katastrofiko honek gauza onak ere ekarriko dituela: birplanteatze eta birkokatze bat.

Nola bizi da hau Madrilan?

Aste honetan ez da plenorik egon, eta tartean beste kontu batzuk izan dira; beraz, ez da askorik hitz egin. Hala ere, badu lekua, ikur bat izan direlako Mondragon mugimendu guztia eta Fagor bera; izena dute eta eredu bat dira.

Zuzenbide ikuspegitik zein irtenbide dute Fagorreko langileek?

Itxuraz, nahiko kaskarra, eta, saihestu nahi zen hartzekodunen lehiaketara jota, nahiko atzean geratzen dira oportunitateak eta egin dituztenak. Ez naiz espezialista honetan, baina, irakurri dudaren arabera, zoritxarrez, hartzekodunetako boteretsuak beti jartzen du berea salbu.

Espero dezagun hemen beste zerbaitek gertatzea, eragindakoak pila bat dira eta beste izaera bat izan dezala kooperatibismoak, beste errespetu bat eta pertsonen beste tratamendu bat jaso dezatela. Horretan saiatuko diren esperantza dut; bestela, oso gogorra izango litzateke eta.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

NAGUSIENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

SAROAN

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 19 – 8. bulegoa

Tel.: 943 10 90 80 - www.saroan.com

NUTRIZIOA

LOREA ARANBURU (MEDIKU NUTRIZIONISTA)

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 72 16

Bergara / Ramon M. Lili 2, behe / 943 76 59 39

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behe / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

Eskulanen erakusleioa

Domekan San Milixanetako azoka izango da Leintz Gatzagan, 10:00etatik 14:30era

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Eskuz eta bertan egindakoak. Horiexek dira domekan Leintz Gatzagan egingo duten San Milixanetako azokan izango diren produktuen ezaugarriak. 15 saltokik osatuko dute eskaintza, 10:00etan jarri eta 14:30ak arte ikusgai eta erosgai jarriko dituzten produktuekin, pilotalekuan.

Produktuok denetarikoak eta Euskal Herriko leku ugariatik ekarritakoak izango dira: bitxiak, buruko apaingarriak, zeramika, egurrez egindako lanak, abarkak... Eta aparteko moduan, Leintz Gatzagako artisautza tailer bakarrak (Eskuz du izena) saltokia ipiniko ez duen arren, tailerreko atek zabaldu egingo ditu azoka

ordutegian, interesa duten bisitariak edo erosleak hartzeko.

Indurain, Lejarreta, Zulle... Fagor Horiek artisauei dagokienez; baina izango da bestelakorik etziko azokaren bueltan, kasu horretan pilotaleku kanpoan.

Adibidez, erakusketa jarriko du Dorletako Txirrindulari Lagun Elkartek, erakusketa bitxi eta historiko askoa. "Dorletako Ama Birjinak dituen erregaluen artean asko dira maillotak, eta garai bateko maillotak eta jende inportanteak emandako erregalua erakutsiko ditugu. Marino Lejarretarena, Indurainena, Olanorena, Zullerena... eta gainera, maillotak ikusteaz gainera, maillotekin argazkia ateratzeko auke-

ra emango diegu bisitariei. Horrez gain, argazki zaharrak ere erakutsiko ditugu, lehenagoko ekipo zaharretakoak, 40ko hamarkadatik hasita, 60-80 bat argazki dira. Zaharrena 1943koa da. Fagor, Superser... ekipoak azaltzen dira, adibidez. Iaz bizikleta zahar batzuk jarri genituen eta horiek ere aterako ditugu aurten. Eta horrekin batera Gabonetako errifa ere aterako dugu, krisia dela-eta taldearendako dirua ateratzeko", esan du Joserra Agirreurretak, txirrindulari elkarteko kideak.

Makramea, taloak, musika...

Bestalde, azokaren osagarri, eskulan tailerra antolatu du Leintz Gatzagako Udalak: makrame tailerra, 11:00etan hasita, kultura etxean. Makramearen gainekoak ikasi edo ikusi gura izanez gero, bertara joatea besterik ez dago; ez da materialik eraman behar, ezta izenik eman behar ere.

Eta azokaren osagarri baita ere, nahiz eta artisautza kontuekin zerikusirik ez izan, jana, edatekoa eta musika antolatu dituzte. Jana eta edatekoa Gatzagako *sorginen* kontura. Elkarrekin osatzen duten emakumeetako batzuek taloak egingo dituzte, eta taberna ere jarriko dute. Eta



Ama-alabak iazko San Milixan azokan bitxiak ikusten. | GOIENA

musika, berriz, Eskoriatzako trikitilarien kontura izango da. Bukatzeko, Leintz Gatzagako Gatz Museoa bisitatzeko aukera ere bada domekan: 12:00etan euskaraz, 13:00etan gazteleraz.

Autobusa doan, Eskoriatzatik Hori bada, Leintz Gatzagako eskaintza. Eta horretaz gozatzeko,

bertako udalak erraztasun guztiak eman gura dizkie bisitariei; hala, doako autobusa izango da Eskoriatzatik Leintz Gatzagara, 10:00etatik 14:30era (geralekuak, Aranburuzabala eta Akeita). "Aparkelekuak mugatuta daude, beraz, autobusa erabiltzeko dei egiten dugu", dio Iñaki Agirreurretak, Kultura zinegotziak.



David Fernandez tailerlean lanean. | EUSKONEWS

Larrugintza tailerra, Gatzagan

Artisautza ogibide duen denda-tailer bakarra dago Leintz Gatzagan: Eskuz Larrugintza (1993). David Fernandez (Madril, 1953) eta Elisa Otero (Aretxabaleta, 1957) dira bertako behargin eta ugazabak. Produktu-sorta handia lantzen dute. Eta gainera, pieza bakoitza banan-banan egiten dute eta horrek berorrek ukitu pertsonal eta bereizgarria ematen dio euren lanari.

AZOKAKO ESKAINTZA

PRODUKTUA	ARTISAUA	HERRIA
Abarkak	Martin Sukia	Deba
Kandelak	Velartea	Zarautz
Forja	Iñaki Unanue	Basauri
Otarreak	Cesteria Berrio	Gasteiz
Buruko apaingarriak	Alicia Malicia	Zarautz

PRODUKTUA	ARTISAUA	HERRIA
Pilotak	Caballo Rojo	Azkoitia
Bitxiak	Julio Villarreal	Atxondo
Egurrezko jostailuak	Lanbera	Pasaia
Ehunkiak	Vanessa Gonzalez	Arrasate
Egurra	Itziar eta Gorka	Ornoz Mugaie

PRODUKTUA	ARTISAUA	HERRIA
Bitxiak	Milimetrotan	Usurbil
Larrua	Trok tailerra	Areso
Lanparak	Jventurgon	Donostia
Txalaparta eta kaxoiak	Jotzen	Gasteiz
Zeramika	Imanol Aranburu	Arrasate

3., 4. EDO 14. PIVEa. BERDIN DA, ONENA FORDen PIVEa

FORD FIESTA
SYNC konektibitatearekin
8.290 €-gatik



FORD FOCUS
EcoBoost motorrarekin
12.790 €-gatik



Ford Fiesta eta Focus gama. Batez besteko kontsumo konbinatua 3,6 l-tik 7,2 l-ra / 100 km. CO2 emisioa 95 g-tik 160 g-ra / km

MUGARRI AUTOAK Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE



ford.es

Merkatariak eta musikariak bat, alde zaharra girotzeko

Ibai-Artek musika emanaldiak antolatu ditu hileko datozen zapatuetarako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
"Merkataritza dinamizatzeko egiten dugu, herria bera ere dinamiko izan dadin". Hitz horiekin azaldu digu Ibai-Arte elkarte Angel Alonsok bihar bertan martxan jarriko duten Azaro Musikala. Musika aukeratu dute azaroko zapatuak girotzeko: "Zapatu iluntzean hutsunea dagoela

uste dugu, zerbait falta dela jendea gustura egon dadin. Merkataritza erakargarria dugunez, herria bera ere erakargarria egitea gura dugu".

Arrasate Musikaleko Big Bandek eta hari-instrumentuen taldeak eta Txorbela otxoteak musikatu dituzte azaroko zapatuak, 18:00etatik 20:00etara.

Bertako kontsumoa bultzatu
Aitziber Lasarguren Mankomunitateko merkataritza-dinamizazio arduradunaren arabera, "giroa sortzea" da asmoa: "Bertako musikarien bidez kaleak alaitzea da helburua, aldi berean bertako kontsumoa bultzatzeko".

Arrasate Musikal izango da protagonista nagusia, lau emanalditatik hiru eurenak izango dira-eta. Hasierako asmoa zen Arrasate Musikalek bakarrik parte hartzea, baina, hileko azken bi aste bukaeretan zarzuela dagoenez, azken saiorako Txorbela otxotea gonbidatu dute. Ez dira guztiak egongo, otxoteko kide batzuk zarzuelan ere badaudelako. Arrasate Musikaleko Edorta Aiastuik aurreratu digu Big Bandek lehenengoz joko duela kalejiran: "Berez, geldi jotzen dugu,



Ibai-Arteko Angel Alonso, Arrasate Musikalekoekin, Arbolapetan. | JOKIN BEREZIARTUA

baina oraingoan mugitu egingo gara jotzen dugun bitartean. Musikariendako erronka izango da". Era berean, Aiastuiren arabera, alde zaharreko hainbat txokotan geldialdia egingo dute hiru edo lau piezako saioak eskaintzeko. Hilaren 16an, berriz, hari-instrumentuak jotzen dituzten ikasleak irtengo dira kalera: "Bospasei musikariz osatutako hiru talde egingo ditugu eta alde zaharreko hiru lekutan egongo gara.

Ordu erdi inguruko emanaldia eskaini ostean lekuak txandakatzeko joango gara". Oraindik ez dute alde zaharreko zein txokotan joko duten zehaztu; eguraldiaren arabera aukeratu dituzte leku horiek.

Arrasate Musikalekoendako ere "interesgarria" da ekimena: "Musika kalera ateratzea ederra da guretako. Eguraldiak laguntzen badu polita izan daiteke guztiondako", gaineratu du Aiastuik.

EGITARAUA, 18:00ETATIK 20:00ETARA

Azaroak 9, zapatua

Arrasate Musikaleko Big Banden kalejira alde zaharrean (18:00-20:00).

Azaroak 16, zapatua

Arrasate Musikaleko hari-instrumentu taldeen emanaldiak (18:00-20:00).

Azaroak 23, zapatua

Arrasate Musikaleko Big Banden kalejira alde zaharrean (18:00-20:00).

Azaroak 30, zapatua

Txorbela otxotearen saioak alde zaharreko hainbat txokotan (18:00-20:00).

IBAI-ARTEK AURKEZTEN DU...

AZARO MUSIKALA



Noiz: Azaroak 9, 16, 23, 30

Ordua: 18:00 - 20:00

Tokia: Arrasateko kaleetan zehar

Santamasetako artisau azokan parte hartzeko azaroaren 22a baino lehen eman behar da izena

Santamasetako artisau azokan parte hartu gura dutenek www.santamasak.com webgunean dagoen formularioa bete beharko dute azaroaren 22a baino lehen. Webgune berean, parte hartu ahal izateko baldintzak ere ageri dira. Santamas Komisiñoko Artisautza lantaldeak azaroaren 30an jakinaraziko du zeintzuk izango diren aurtengo ferian parte hartzeko artisau eta postu aukeratuak.

Mus txapelketa bihar eta 75 urte bete dituzten bazkideei omenaldia hilaren 15ean Udalpe elkarte

Udalpe elkarte gastronomikoan mus txapelketa egingo dute bihar, eta bazkideek gaur arte eman dezakete izena. Bestalde, azaroaren 15erako bazkari berezia antolatu dute, 75 urte bete dituzten bazkideak omentzeko. Urte batzuk bete dira bazkari-omenaldi hori egiten ez dela. Bazkarirako izena eman behar da ahalik eta lasterren; azken eguna hilaren 13a izango da.

Kaonbi elkarteak bigarren eskuko azoka egingo du bihar Biterin, katuen kolonien ongizatea bermatzeko

Katuak babesteko sortutako Kaonbi elkarteak azoka antolatu du biharko, Biterin (10:00-15:00). Bigarren eskuko produktuak salduko dituzte: poltsak, gerrikoak, belarrirakoak, liburuak eta DVDak, besteak beste. "Jasotako dirua katuendako janaria erosteko bideratuko da, batez ere. Era berean, postu baten, adoptatzeko moduan dauden katuen argazkiak ere jarriko ditugu; ea jendeak laguntzen duen", diote. Zortzi bazkide dira egun, emakumezkoak guztiak.

OHARRAK

1954AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 16an egingo dute bazkaria. Azaroaren 11 baino lehen eman behar da izena, 55 euro sartuta 3035 0001 57 0011136855 kontu korrante zenbakian.

35 euro sartuta. Izen-abizenak jarri behar dira kontzeptu moduan. 11:00etan mokadutxo egingo dute Herriko Plazan eta 14:30 aldera hartuko dute autobusa.

1959AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 23an egingo dute bazkaria Aldape jatetxean. Azaroaren 8rako eman behar da izena; 60 euro sartu behar dira 3035 0047 11 0471084297 kontu korrante zenbakian.

1985EAN JAIOTAKOAK

Azaroaren 23an egingo dute bazkaria Aramaioko Iturrieta sagardotegian. Izena eman behar da azaroaren 10a baino lehen, 3035 0023 97 0230084289 kontu zenbakian.

Onintza Lopez de Munain | Txus Goikoetxearen bikotekidea

"Bizitza duina eskatzeko, osasuna jarri dute arriskuan"

Txus Goikoetxea eta beste 12 preso gose greban daude, "euren aurkako erasoak" amai daitezten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Txus Goikoetxea (Uzpegi, Nafarroa, 1969) presoaren bikotekidea da Onintza Lopez de Munain (Arrasate, 1972). Hiru urte darmatza Goikoetxeak Sevillako Moron de la Fronterako espetxean eta urriaren 28a ezker gose greban dago, beste 12 euskal presorekin batera. Lopez de Munain bihar joango da Sevillara; joan aurretik egin du gu berba gose grebaren gainean.

Hasteko, nola dago Txus?

Gaur [martitzena] egin dut berba harekin. Ahul dago, zorbioekin, baina nahiko ondo. Hasi aurretik argal zegoen eta dagoeneko sei kilo galdu ditu.

Noiz hasi zuen gose greba?

Urriaren 28an. 13 euskal preso daude, guztiak isolamenduko moduluan hasieratik. Guztiek salatu izan dute azkenaldian euren egoerak okerrera egin duela, eta, hori salatzeko, hainbat bilera egin izan dituzte zuzendaritzarekin. Idazkaritza orokorraren bidez ere egin dituzte salaketak, baina bide horietatik ez dute ezer lortu.

Zein da euren egunerokoa?

Lau urduko patioa dute eta ez diete uzten inongo aktibitate egiten. Patiora hirunaka edo launaka ateratzen dituzte, goizez edo arratsalde. Egun batean 09:00etatik 13:00etara irteten badira, hurrengo egunean 15:00etatik 19:00etara dute baimena. Beraz, bi egunetik behin 26 orduz egoten dira jarraian ziega barruan. Eurenganako tratua bereziki txarra dela frogatzen duten beste hainbat adibide ere badaude. Esaterako, miaketa sakonak jasaten dituzte egunero. Funtzionarioaren arabera izaten da, baina, askotan, zakil eta barrabiletan aritzen dira, tentsioa areagotuz. Miaketari uko eginez gero 72. artikulua aplikatzen diete eta zigorrak itzelak dira: 48 ordu bakartuta pasatu beharra eta eskuak ohera lotuta egotea, adibidez. Bisean biseko bisiten ostean ere muturreraino estutzen dituzte. Sendagilea ere, astero pasatu beharrean, bi edo hiru astean ez bada pasatzen, inork ez ditu azalpenak ematen. Orain, euren eskaerak erantzunik ez dutenez, borrokari ekitea beste aukerarik ez dute ikusi. Bizitza duina eskatzeko, euren osasuna jarri dute arriskuan.

Zeintzuk dira aldarrikapenak? Dispertsioa amaitzen ez den bitartean -dispertsioa diseinatu eta mantentzen dituztenak ere badirelako erantzule-, isolamen-



Onintza Lopez de Munain. | U.M.

du mugagabea amaitzea, kide guztiak batera egotea, gutxieneko eskubideak bermatzea eta euren aurkako erasoak amaitzea. Ez dutenez batera egotetik, halako tamainako erabaki bat hartzeko prozesua oso luzea izaten da eta, era berean, hamahirurak ados jartzeak sekulako indarra eman die.

Hala ere, oraingoz ez diete kasurik egin, baina, adierazi dutenez, zuzendaritzaren konpromisorik jaso ezean ez dute gose greba utziko.

Antolatuzue protesta ekintzarik datozen egunotarokoa?

Modu koordinatuan egin gura ditugu mobilizazioak. Hasteko, giza katea egingo dugu gaur Herriko Plazan, 19:00etan. Era berean, Txusek berak esan didana egin behar da, espetxea gogaitu behar dugu mugi dadin. Herriarrak antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzea animatzen ditut.

"Zuzendaritzaren konpromisorik jaso ezean, ez dute gose greba utziko"

67.371 euro banatu ditu Garai saltzaileak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Albiste eder batekin hasi zuen astea Jose Mari Garai loteria saltzaileak, Araba etorbideko 2. administrazioan saldutako Bonoloto txartel batek bigarren saria eskuratu zuen-eta astelehenean. Sei zenbakietatik bost eta osagarria asmatu ditu Bonolotoa han zigilatu zuen herritar batek, eta horri esker 67.371 euroko saria jasoko du. Sei zenbakiak ez zituen inork asmatu eta bigarren saria hiru lekutan banatu zen: Arrasaten, Kantabrian eta Sevillan. "Pozik" zegoen Jose Mari Garai loteria saltzailea: "Bizi ditugun garai latz hauetan asko eskertzen da halako albiste bat. Ilusio izpi bat da. Gure itzaropena da ahalik eta sari gehien ematea, hori da guretako



Jose Mari Garai banatu duen sariaren zenbatekoa erakusten. | JOKIN BEREZIARTUA

propaganda onena". 35 urte darmatza Garaik loteria saltzen, eta hainbat sari eman ditu: 2009eko abenduaren 28an, adibidez, Bonoloto sari bera banatu zuen, 63.791 eurokoa. Baina badira

beste hainbat: Loteria Nazionalarekin 600.000 euro (2012), Loteria Primitiboarekin 803.539 euro (1995) eta 732.526 euro (2009) eta kinielarekin 214.000 euro (2007), besteak beste.

Extremadurako produktuak Arrasaten eros eta dasta daitezke denda berrian

El Rincon del Iberico izenarekin, denda-taberna zabaldu dute Arrasateko Araba etorbidean (3. zenbakian). Extremaduratik propio ekarritakoak saltzen dituzte bertan.



Miguel Angel Bobadilla urdaiazpikoa mozten.

Urdaiazpiko ibe-rikoak dira El Rincon del Iberico espezialitateak, "hiru mota ditugu, hiru preziotakoak; izan ere, urdaiazpiko ibe-riko guztiak ez dira berdinak. Alde handia izaten da, animalien purutasunaren arabera. Horrez gainera, zerrien beselako hestebeteak ere baditugu, gaztak, ardoak, olioak, eztiak... halako produktuak; guzti-guztiak Extremaduratik ekarritakoak. Han hiltze bateko bazkide gara eta okela freskoa eta bestelakoak banatzen ditugu, eta gura duguna da Arra-

saten ordezkaritza moduko bat izatea", kontatu du Juan Herruzo ugazabak.

ETXEAN EDO HAN

San Andres auzoko saltokian, esandako produktuak erostez gainera, bertan dastatzeko aukera ere ematen dute: "Asmoa ez da urdaiazpiko pieza osoak saltzea. Bizi dugun egoeran oso zaila da inork 300 euro edo gehiago gastatzea urdaiazpiko batega. Beraz, hemen

urdaiazpikoa moztu eta etxera eramateko saltzen dugu, edo hemen bertan jan dezake bezeroak. Nahiago duena".

HARRERA ONA

Eta bezeroek gustura hartu dute eskaintza. "Entzuten eta esaten digutenagatik, ondo hartu dute zerbitzu berria. Dena den, hobetzen joateko asmoa dugu. Izan ere, hasiera honetan ez dugu nahi izan produktuez bete saltokia, ikusi arte zein

den hemengo eskara. Baina apurka-apurka eskaintza osatzen joango gara", dio Herruzok.

ORDUTEGIA

Oraingoz, 09:00etatik 14:00ak arte eta 17:00etatik 21:30ak arte dute zabalik El Rincon del Iberico, "baina handitu egin gura dugu ordutegi hori, denda eta taberna, biak direnez, zerbitzu handiagoa eman gura dugu", adierazi du Herruzok.

El rincón del ibérico
Kalitate-ziurtagiria daukan produktua

- Urdaiazpikoak
- Olioak
- Hestebeteak
- Gaztak
- Ardoak
- Goxoak

Handizkako eta xehekako salmenta

Araba etorbidea, 13 behea - ARRASATE - elrincondelibericoarrasate@gmail.com

Iñigo Arregiren lanak Donostiako Ekain galerian ikusgai

I.G. | ARRASATE

Joan den eguna ezkerro Iñigo Arregi herriko eskultorearen erakusketa dago Donostiako Ekain galerian. Artistak 26 artelan eroan ditu Donostiara; horietako 14 eskulturak dira eta gainontzekoak, erliebedun koadroak, artistak aipatu bezala: "Paretara salto egindako eskulturak dira".

Arregiren eskulturak puzzleak dira; izan ere, piezak bana-bana sortzen ditu, eta ondoren, bata bestearekin lotzen ditu. "Nire sortzeko moduak mugatua dela dirudi, baina urteak daramatzat horrela, eta geroz eta gehiago konplikatzeko da", aipatu du egileak.

Askotan, eraikinetan inspiratzen da Arregi, eta haren lanek duten bertikaltasunean erraz ikus daiteke erreferentzia

hori: "Bertikaltasunaz gain, nire lanak eratzeko modua ere oso arkitektonikoa da eta nire lanek dituzten bao eta espazioek leiho edo ate itxura ere izan dezakete". Arregik beti formatu handiko obra sortzeko asmoa duen arren, Donostiako gehienak txikiak dira.

Erakusketa abenduaren 7a arte egongo da ikusgai. Martitzenetik zapatara bisita daiteke, 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 21:00etara.

Lan bidaiariak

Arrasateko artistak ospe handia lortu du, eta haren lanak munduko azoka garrantzitsuenetan egon dira. "Lanak Koloniatik Donostiara ekarri dituzte eta aste bukaera honetan Istanbulen erakutsiko dituzte", aipatu du Arregik.



Ekain galerian ikus daitekeen mostraren zati bat. | NAGORE INDA

Egurrak gordetzen dituen sekretuak ateratzen ezagutzeko hastapen ikastaroa

I.G. | ARRASATE

Naturak sekretu asko gordetzen ditu; askoren ustez, gainera, artelan ederrenak naturak berak egin ditu. Horregatik, Arrasateko Tailaginen Elkartek egur zati batek ezkutuan gordetzen duen arte hori azalertzeko hastapen ikastaroa antolatu du. Azaroaren 18an hasita, ikasta-

roak 30 ordu iraungo du eta elkarteak Nafarroa etorbideko 33. zenbakian duen lokalean eskainiko dira eskolak.

Izena nola eman?

Argibideak eman eta izenak jasotzeko, antolatzaileek 620 17 42 55 telefono zenbakia jarri dute (Jose Mari).



Astelehena arte munduko espektakulu handiena Eroski parean

Akrobatak, pailazoak, animaliak... Circo Italiano bere ikuskizuna goitik behera berritu eta gero etorri da ostera Arrasatera. Gaurtik astelehena arte sei saio eskainiko ditu, eta sarrera ohiko leihatilan beharrean www.ilcircoitaliano.com gunean erosten dutenek beherapen handiak izango dituzte.



Bikote baten harremana da antzezlanaren funtsa. | HIKA TEATROA

Amodioa bera mingarri bihurtzen denean...

Bederatzi euroren truke 'Hitzak' antzezlanaren ikusteko aukera aparta

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Indarkeria fisikoaz gain, hitzen bidezko indarkeria ere existitzen dela argi azalertzeko du Hika Teatroak. *Hitzak* antzezlanak horixe izango du oinarri, hitzen bidezko indarkeria, eta horrek sortutako mina eta ondorioak.

Domekan, 19:30ean, Amaia antzokian, "hitz mingarri eta iraingarriak" entzungo ditugu antzezlanean, zehaztu zuen Agurtzane Intxaurraga obraren egile, zuzendari eta aktoreak.

Intxaurragak berak duela urte gutxi bizi izandako gertaera baten harira sortu du antzezlanaren: "Gertuko bikote batean ikusi nuen gizonak hitz txarrak esan zizkiola emakumeari, eta emakumea isilik geratu zela. Isiltasun horrek pentsarazi egin zidan. Min batek sortutako antzezlanaren da".

Emakume horiek jasaten duten "epaia" baino haratago doa antzezlanaren, bertan ikuslea emakumearen azalean jarriko da-eta.

Istoria gordina

Familia baten istorioa da *Hitzak*, senar-emazteak eta haien haurra. Emakumea, Mari, hirutan banatuta egongo da, eta hiru aktorek interpretatuko dute, horietako bi donostiarrek. Iraganeko Mari Ane Pikaza izango da; orainaldikoa, Itziar Ituño; eta etorkizuneko, Klara Badiola. Gizona beti aktore berak interpretatuko du, Jabi Barandiaranek.

Gizonak hitzen bidezko tratu txarrak jasotzeko dizkio emazteari; eta denboran barrena, hitz horiek emakumearengan eragin handia izango dute. Emakumeak barne bidaia ausarta egingo du,

menpe egotetik aske izatera pasako da, iluntasunetik argira egingo du. Hala ere, antzezlanean gizona ez da borrero soila izango, Intxaurragaren ustez: "Gizona bera ere gizarte matxistaren biktima da. Baina bikotekidearen ilusioak entzutea ahazten zaio".

Bikotearen haurra panpina batekin irudikatuko dute. Haur horrek ere sufritu egiten du, eta izar iheskorrei bere ametsak betetzeko eskatzen die. Menpekotasuna, iluntasuna, tratu txarrak... horren guztiorren gainetik, gaitzite eta askatasunari buruzko istorioa da.

Obrak oso eszenografia zaindua dauka eta ia hutsik dagoen oholtzan argiteria zaindu eta melodia samur baten laguntzarekin ikusleak detaile guztiak ulertuko ditu.

Gurutze Muxikaren lanak Kajoin

Beasainen jaio arren Aretxabaletan bizi da Muxika eta bailaran erakusketa asko egin ditu. 2003an Kurtzebarriren 75. urtemugako ospakizuneko kartela egin zuen. Kajoiara 20 margo eroan ditu, eta, herriko zenbait txokoz gain, udazkeneko paisaia asko ere badaude. Artelanak ikusteaz gain, haiek erosteko aukera ere badago.



IMANOL GALLEGO

Igor Isasi | AUKEAko kirol teknikari berria

"Kirola osasuna da, eta guk era osasungarrian egiten erakutsiko dugu"

Igor Isasi irakasle eta entrenatzailea izango da AUKEAko kirol jardueren arduradun berria

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Bi urtez Musakolako kiroldegian AUKEAko kirol teknikari lanak egin eta gero, Amaia Zabaletak kargua utzi eta Igor Isasi eibartarra izango da kirol teknikari berria. Errugbi taldeko entrenatzailearen lehen egun hauetan bere bulego berritik atera, eta gurekin hitz egiteko tartetxo bat izan du.

Duela gutxi hartu duzu kargu berria; gustura zaude?

Goiz da galdera horri erantzuteko, hasierako egunak ditut hauek eta oraindik guztiak nola funtzionatzen duen ikasten ari naiz. Zorionez, kirol-instalazio hauek eta herriko kirol jarduera asko ere bertatik bertara ezagutzen ditudanez, kargu berriari martxa bizkor hartzea espero dut.

Nolakoa izan da Amaia Zabaletaren lana?

Oso ona; Bergaran ere elkarrekin egin genuen lan, eta orain maila bera mantentzeko lan egitea tokatzen zait. Kirol kontuetan jarrai-



Igor Isasi kirol teknikari berria. | GOIENA

penak garrantzi handia dauka, eta, horregatik, aurrez markatutako proiektuarekin jarraitzeko asmoa daukat.

Nolakoa da herriko kirol eskaintza?

Ona dela esango nuke. Arrasateki kirolgune garrantzitsu asko ditu eta bidegorria bezalako lanek ere bultzada eman diote zenbait kirol ekintzari.

Kirola beti da osasungarria?

Kirola osasungarria dela ukaezina da, baina kirol jarduera

gaizki eginez gero, lesio ugari eragin ditzake. Musakolako kiroldegian arlo horretan hutsunea genuela ikusi eta gero, ikasturte honen hasieran arrisku hori txikitzeko lanean hasi gara.

Nola egingo duzue?

Kiroldegiko fitness gelan ez da inoiz monitorerik egon, eta, jendeak makina bakoitza zertarako balio duen jakin arren, zenbait kasutan modu desegokian erabiltzen ditu. Horregatik, makina bakoitza nola erabil daitekeen erakutsiko duen ikastaroa gertatu dugu. Lehena aurki hasiko da eta jendeak interesa izaten duen heinean gehiago egiteko asmoa dugu.

Maila eta adin tarte guztientzako ikastaroa izango da?

Oso ikastaro txikiak izango direnez, adin tarte guztientzako tokia egongo da. Ordubeteko zortzi saio izango dira, eta guztietan ikasleek galderak egiteko aukera izango dute. Mailaren kontua oso ezberdina da. Kirolari federatuek euren entrenatzaileak izaten dituztenez, ez dute zerbitzu berri honen beharrik izango; ikastaro hauetan hastapen maila besterik ez da landuko.

Fitness gelakoa izango da ikastaro bakarra?

Egun, igeriketa maila hobetzeko ikastaroak ere ematen ditugu. Argi dago kirola osasuna dela, baina gaizki egiten bada kaltegarria ere izan daiteke. Guk kirola nola egin behar den erakutsi nahi diegu kiroldegiko erabiltzaileei.

I.G. | ARRASATE

Azaroaren 16an hasiko da Zaldibarko futbito txapelketa, eta astelehena izango da txapelketan parte hartzeko izena emateko eguna. Inskripzioa Kulturaten izango da, 18:00etatik 20:00etara.

Herriko txapelketa baterano horretan parte hartu nahi duen talde bakoitzak 200 euroko izen ematea eta 75 euroko fidantza ordaindu beharko ditu. Mikel Viguera antolatzaileak hauxe aipatu du: "Txapelketa historiko honetako parte izateko aukeraparegabea da hau".

Txapelketaren nondiko norakoak jakin edo taldeen galderak erantzuteko, antolatzaileek areto futbol txapelketaren Facebook orria izateaz gain, zaldibarkofutbitotxapelketa@gmail.com helbidea ere badute.

Zaldibarko izen ematea astelehenean izango da

Aurtengoa txapelketaren 52. edizioa izango da



Aurreko txapelketaren une bat. | GOIENA

Urkiola-Kanpanzar mendi irteera Besaide Mendizale Elkartearekin azaroaren 17an

I.G. | ARRASATE

Besaide Mendizale Elkarteak azaro erdirako mendiaz gozatzeko proposamen batekin dator. Bizkaiko biraren 18. etapa, Urkiola-Kanpanzar ibilbidea hain zuzen ere, azaroaren 17an egingo da, eta, etaparen amaiera Arrasateetik gertu igaroko denez, herriko mendi elkarteak jendea bertan parte hartzera gonbidatu du.

Mendi irteera bikain horretan izena eman nahi duten guztiek astelehenetik eguaztena bitartean izango dute horretarako aukera. Lan

horretarako, Besaide Mendizale Elkarteak Garibai kalean duen egoitzan hartuko dituzte parte hartzaileen izenak, 19:30etik 20:30era. Mendizale elkartetik adierazi dutenez, "ibilbidea ezin hobea da", eta, adituen ustez, zeharkatuko diren parajeak "oso ederrak" dira.

Irteera baino gehiago

Eta, horrez gainera, gura duten parte hartzaile guztiek, Urkiola eta Kanpanzar bitarteko ibilbidea egin eta gero, indarrak berreskuratzeko bazkaria izango dute.

Podiumera igotzeko beharrezko puntuak eskuratzeko partidua

I.G. | ARRASATE

Gasteizko Construcciones Arana Araberri taldea hartuko du Mondragon Unibertsitateak zapatuan Iturripen (18:00). Aurreko jardunaldian podiumetik jaitsi eta gero, berriro lehen hiru postuetan kokatzeko lan egingo dute.

Aukera ezin hobea

Construcciones Arana Araberri 11. postuan dago eta sailkapenari begiratuta erraz ikus daiteke gure taldeak puntuak etxean uzteko aukera handiak dituela. Hala ere, entrenatzaile eta jokalariek argi dute arabarrak azken

tokietatik urruntzeko asmoarekin etorriko direla, eta talde arriskutsua izan daiteke.

Josu Larreategi entrenatzaileak argi dauka: "Gaizki hasi zuten denboraldia, baina oso talde arriskutsua da. Horregatik, Eskoriatzakoak gogotik prestatu du gasteiztarren kontrako norgehiagoka: "Euren joko motela apurto eta kantxa osoan presioa egitea lortzen badugu, bada, partidua irabaz dezakegu".

Jokalariek eta entrenatzaileak gogo guztia jartzeaz gain, Iturripen jende asko batzea ere nahiko lukete.

Ford Mugarri taldeak ezin die puntuak ihes egiten utzi

Herriko taldeak gogotsu eusten dio ligako bigarren postuari, eta AD Stadium Casablanca Zaragozako taldearen aurkako norgehiagokak puntuak batzeko hitzordua izan beharko luke. Edozelan ere, laugarrenaren kontrako partidua ez da erlaxatzeko lehia izango.

Errugbiko seniorren atsedengatik, gazteen txanda izango da


Kadeteek, etxetik kanpo, Ordiziako taldearekin batera, Bera bera izango dute parean zapatu eguerdian. Haur kategoriako lehen taldea Iruñeko La Unica taldearen kontra leihatuko da Nafarroan eta bigarrenak Atletico SS hartuko du zapatu eguerdian etxean.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

PUB
HAIZEA



Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Herriko merkataritza indartzeko beste ekimen bat jarri dute martxan

- ▶ 'Bergara bizi' jarri diote izena eta 18 merkatarik dihardute, oraingoz
- ▶ Egun osoko jaia eta ikastaroak iragarri dituzte datozen asteetarako

I.G./I.E. | BERGARA

Azken egunotan Bergaran bolobolo ibili den globoaren eta aulkiaren kanpaina argitu da. Herriko merkatariek *Bergara bizi* ekimena sortu dute herrian presentzia handiagoa izateko helburuarekin. Oraingoz, 18 kide batu dira, baina edozein merkataria eta ostalariri dago irekita egitasmoa. Orain arte programatutako ekintzen artean festa bat eta hainbat ikastaro daude.

2012. urtean Udalak eskatutako PERCO ikerketaren emaitzak azaldu zizkien merkataria eta ostalariei. Emaitza argia izan zen: herriko merkataritzak presentzia handiagoa behar zuen. Horretarako lanean hasi ziren berehala eta Udalak lantalde bat osatzea proposatu zuen. Dendariek, ostalariek eta Udalak osatu zuten lantaldea eta herriko merkataritza txikiari oihartzun handiagoa emateko ekimenak egiteko mahaia sortu zuten. Handik irten zen merkatarien eskaintza ezagutarazteko horrenbesteko zeresana eman duen kanpaina.

"Gure eskaintza hor dago eta saiatu behar dugu jendea hori azaltzen, erakutsi behar diegu zer duten hemen eta zer utzi duten nolabait alde batera", azaldu zuen Bibi Andueza merkataria.

Ekimeneko parte hartzaileek argi dute, merkataria txikiak izan arren, guztiek batera, enpresa gune handi bat osatzen dutela. Horregatik, guztiek batera zenbait jarduera antolatuko dituzte datozen asteetan.

Festa hilaren 16an

Egitekoak dituzten ekintzen artean, *Bergara bizi* eguna antolatu dute azaroaren 16rako. Sorpresaz beteriko eguna izango da, baina, oraingoz, ez dute askorik aurreratu nahi izan.

"Orain arte egin ditugun lanak aterako ditugu kalera. Erakutsiko dugu merkataria zer eman dakioken herriari eta jendeak



Bergara bizi ekimenean parte hartu duten merkataria eta ostalariek aurkezpenean. | IMANOL GALLEGU

zer ekar dakigukeen guri; beraz, dena batu eta herriarendako zer den ona ikusteko aukera izango da", gaineratu zuen Anduezak.

Aitortu zuen izugarriko ekintzarik gabe, sorpresa txikiz betetako eguna izango dela: "Hemen

gaudela eta lanerako presta gaudela erakutsiko dugu horretan", azaldu zuen.

Horrez gain, dagoeneko hasita dauden hainbat ikastarorekin jarraituko dute hilabete honetan. Grupo Bentas enpresak eskaintzen

dizkie ikastaro horiek merkatariei euri.

Merkatariek herriari eskaintzen dioten arreta eta kalitatea azpimarratzeaz gain, herriko bizitzaren iraupena guztion esku dagoela erakutsi nahi dute.

Aulki bat eta globo handi bat herrian

Herriko kaleetan askotan ikusi ahal izan dira azken asteetan aulki zuri bat eta globo urdin bat. "Zerenak dira?", izan da behin eta berrero errepikatutako galdera, eta, azkenean, argitu da zalantza: merkatarien kanpaina berriko ikurrak dira. Herriarekiko lotura islatu nahi izan dute merkatariek bi ikur horien bitartez, eta horregatik jarri dituzte San Martin plazan, biribilguneetan eta jendeak erraz ikusteko moduko beste hainbat lekutan.

Merkatariek argi dute bi sinbolo horiekin helarazi nahi izan duten mezua: "Aulki eseri eta gustura egoteko sinbolo gisa ulertzen dugu eta globoaren bitartez herrian dugunari, bertako merkataritza alegia, ihes egiten ez uzteko mezua zabaltzen ahalegindu gara". Inork gutxik egingo zuen bi elementuon irakurketa hori.



Kanpainaren ikurrak. | I.G.

Astelehenean hasiko da truke azokako liburu-bilketa

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Durangoko Liburu eta Disko Azoka da gaur egun euskarazko literaturaren erakusleho handiena, baina dena ez da abendu hasierako azokara mugatzen. Eta euskal irakurketa suspertzeko ekintzak espazio herrikoia goak berreskuratzen dabilta. Horren adibide da Jardun euskara elkartearen prestatzen ari den euskarazko liburuaren truke azoka.

Azaroaren 30ean egingo dute azoka Munibe plazan. Goizez bakarrik ikusi eta trukatu ahal izango dituzte liburuak bergararrek, 11:00etan hasi eta 14:00ak bitartean, hain zuzen ere.

Dena behar bezala prestatzeko, ordea, garaiz hasi behar da lanean eta aurten ere azoka baino aste batzuk lehenago hasiko dira azokarako material bilketa egiten: astelehenean ekingo diote horri eta azaroaren 29an amaituko dute. Goizez (09:00etatik 13:00etara) nahiz arratsaldean (15:00etatik 19:00etara) utz daitezke liburuak Jardunen bulegoan, kultur etxean.

Liburu bat uzten duen bakoitzak, egoera onean dagoela egiaztatzen bada, truke azokan aldatzeko txartel bat jasoko du.

Jasotako liburuak adinaren arabera (haur, gazte eta heldu) sailkatuko dira eta liburuak uzteagatik txartela eskuratu dutenek sailkapen bereko beste edozein liburu hartu ahal izango dute azaroaren 30eko azokan.

Liburu baldintzak

Jardun euskara elkarteak liburuak jasotzeko hainbat baldintza jarri ditu: egoera onean eta osorik egotea; bildumak, liburu kopurua edozein izanda ere, txartel bakarraren truke aldatzea; liburuak euskarazkoak izatea; sexu bereizketarik edo indarkeriaren aldeko jarrearik ez erakustea eta ikas liburuak ez izatea.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA



San Antonion inbutua sortzen da. | IMANOL GALLEGO

San Antonioko irisgarritasuna eta segurtasuna hobetuko du Udalak

San Antonion dagoen Fernandez dendako biltegia bota eta espaloia eta errepidea konponduko ditu Udalak, bertan sortzen den inbutua arintzeko

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Udalak 60ko hamarkadan hasi zen auzia konpontzeko lehen pausoak emango ditu; izan ere, San Antonio auzoko oinezkoek espaloia estua dute pasatzeko eta autoek ere ez dute oso bide zabala. Hori dela eta, han sortzen den inbutua arintzeko, lanak egingo ditu Udalak.

Bada, ez dakite noiz hasiko diren lanak, baina emaitza oso eroso eta seguruagoa izango da guztientzat. Lanok egiteko, Fernandez dendako biltegia bota egingo dute. Datorren astean, biltegia eta atzeko etxebizitza eta lokalak erosi egingo ditu Udalak, 100.000 euro pasatxotan.

Esan bezala, Fernandezeko eraikina bota egingo dute, hau da, biltegia zuten lekua, eta, horrela, espaloia zabaltzeko espazio handiagoa egongo da. Era berean, biltegiara isatsita dagoen eraikineko etxe, lokal eta garajeak saldu egingo ditu Udalak, proiektu honetan egindako inbertsioa berreskuratzeko asmoz. Hirigintza zinegotzi Joseba Moñuxek hauxe adierazi du: "Enkantean edo aterako ditugu etxebizitzak,

eta, horrela, suposatzen da dirua errekueratuko dugula". Hauxe gaineratu zuen: "Salmenta hori, baina, ez da espekulatzeko egingo, proiektu honen funtsa erosotasuna eta segurtasuna da-eta".

Jaione Isazelaia alkateak adierazitakoaren arabera, lan horrekin "erosotasuna eta segurtasuna bermatu nahi da, bertan inbutua sortzen da eta leku arriskutsua da". Bada, lan honekin, arazo hori konpondu egingo da. Udalak adierazi duenez, errepidearen beste aldeko etxeak ere ordenantzatik kanpo egon arren, ez dira birmoldaketa honetan sartuko.

Herrian, baina, badago inbutua sortzen den beste kale bat: Mugertza kalea, hain zuzen. Ia urtebete da Mugertza kaleko etxe bat bota zutela, eta udal ordezkariak adierazi dute bigarren inbutu hori ere konpontzeko hitz egiteko prest daudela.

Etxe tutelatua Eskusarten

San Antonio auzoko Eskusarten kalean ere erosketa egin du Udalak; izan ere, kale horretako bigarren atariko 1-C etxebizitza erosi eta 1-B aurrerago erosteko auke-

rarekin, alokatu egin ditu.

Bi etxebizitzak bateratu eta etxe tutelatua gisa martxan jarriko du. Etxe horrek 150 m² baino gehiago izango ditu eta bertan, 60 urtetik gorako sei pertsona autonomo bizi izango dira. Etxean garbiketari, jana eta nagusiek beharrezkoak izan ditzaketen zerbitzuak eskaini arren, bertan bizi izateko aukera izango duten erabiltzaileek autonomia psikikoa izan beharko dute eta nor bere burua zaintzeko gai izan beharko du.

Hain zuzen, hauxe da Udalaren helburua: "Herriko nagusientzako ditugun zerbitzuak zabaldu nahi ditugu. Badugu erresidentzia, baita etxez etxeko zerbitzua ere, eta etxe tutelatua honekin nahi duguna da autonomoak diren nagusiei aukera ematea etxe batean, etxe normal batean, bizi ahal izateko". Horixe adierazi zuen Jaione Isazelaia alkateak proiektuaren nondik norakoan azaldu zituenean.

Zerbitzu hori eskaintzeko trimitiak 2012. urtean hasi ziren, eta egokitzapen obrak bukatu bezain laster etxe tutelatua martxan egongo da.

Bilduren "kudeaketa kaotikoa" salatu du EAJk

Hondakinen bilketaren inguruko kudeaketaren gainean prentsarrekoa eman zuen EAJk

A.E | BERGARA

Bergarako EAJko udal taldeak astelehenean emandako prentsarrekoan hauxe salatu zuen: "Bilduk Arrasaten edukiontzien alde egin du eta Bergaran atez atekoa inposatzen du". Jeltzaleek galdetzen dute "ea zergatik jasan behar duen bergarar herriak atez atearen aurkako hainbeste eta hainbeste adierazpen egin ondoren, hondakin bilketa sistema zikinagoa, askoz garestiagoa eta intimitatearen aurka doan sistema eta, batez ere, herriak sinisten ez duen sistemaren inposaketa". Jeltzaleek aditzera eman zuten, "Bildu kudeaketa erabat kaotikoa egiten ari da Gipuzkoa osoan eta, batez ere, Debagoienan".

Aintzane Oiarbide bozemaileak datu batzuk azpimarratu nahi izan zituen Batzokian egindako prentsarrekoan: "Mankomunitateak 18 milioi euroko inbertsioak adjudikatu

ditu atez atekoa ezartzeko asmatan; nork ordainduko du inbertsio hori?". Halaber, jeltzaleen ustetan, "zaborraren turismoa deitzen den fenomeno oso garbia da: atez atekoa ezarri den herrietan %30 eta %40 hondakin kilo inguru desagertzen dira. Honek adierazten duena da atez ateko sistemak ez dela Bilduk esaten duen bezala funtzionatzen". Eta gaineratu zuten Bilduk ez dituela emaitzak kilotan ematen, portzentajeetan baizik: "Honela, emaitzen manipulazioa nabaria da".

Arrasaten bosgarren edukiontzia martxan jartzeak "argumentu gabe utzi du Udal Gobernu", dio EAJk, eta hauxe gaineratu du: "Bildu-Aralar gobernuari exijitzen diogu uko egin diezaiola atez ateko inposatzeari, entzun dezala herriaren hitza eta ez dezala Udala zulo finantzario handiagoan sartu".



EAJko udal taldeak egindako prentsarrekoa. | IRATI GOITIA

Astelehenetik aurrera IKT astea Enpresa Digitalaren eskutik

Astelehenetik egubakoitzera bitartean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek lotutako hainbat ikastaro izango dira. Enpresa Digitalaren eskutik, enpresetako eta komertzioetako kideek webguneen eta sare sozialen gainean gehiago ikasteko aukera izango dute.

Erabilitako zentralita eman egingo du Udalak zozketa bidez

Bergarako Udalak eman egingo du erabilitako telefono-zentralita. Hura nahi edo behar duten pertsona fisiko zein juridikoek eskaera-orria bete beharko dute. Eskatzaileen artean lehentasuna izango dute Bergarakoak diren irabazi asmorik gabeko elkarteek eta pertsona fisikoek.



Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Mendi Astea antolatu du Pol-Polek azaroaren 11tik 17ra

Horrekin batera, bigarren eskuko materialaren azoka ere antolatu dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA
Pol-Pol Mendi Taldeak Mendi Astea egingo du. Hala, azaroaren 11n hasi eta 17ra arte, intereseko ikus-entzunezkoak eta hitzaldiak antolatu dituzte, debalde, parte hartu nahi duten herritar guztiendako.

Ekintza gehienak osoko bilkuren aretoan izango dira, 19:00e-

tan, nahiz eta salbuespenen bat badagoen –ikus beheko taula–. Horrekin batera, Mendi Asteak irauten duen bitartean, Pol-Polek Udal Pilotalekuan duen egoitza 18:00etatik 19:00etara egongo dela zabalik jakinarazi dute mendi taldetik. Bestalde, jakinarazi dute beteranok hilaren 17an egingo duten urteko azken irteerarako

txartelak salgai daudela bulegoan, 35 eurotan.

Azoka txikia ere egingo dute

Mendi Astearen ondoren, urteroko bigarren eskuko mendiko materialaren azoka egingo dute Pol-Pol Mendi Taldekoek, azaroaren 25etik 28ra, Udal Pilotalekuan duen egoitza, 19:00etatik 20:00etara. Hori horrela, etxean erabiltzen ez den materiala izanez gero, Pol-Poleko bulegora eraman daiteke. Hilaren 18tik 21era batuko dute materiala, 19:00etatik 20:00etara.

MENDI ASTEAREN EGITARAUUA

AZAROAK 11

19:00 Alex Txikonen *Bajo Cero* eta *The Nomad Sibergeier obe and Ashiwa y Autana* ikus-entzunezkoa, osoko bilkuren aretoan.

AZAROAK 12

19:00 Kilian Jorneten *Summits of my Life* ikus-entzunezkoa, osoko bilkuren aretoan.

AZAROAK 13

19:00 *Janariak mendian* hitzaldia. Hitzlariak: Kepa Larrea, Alberto Garai, Silvia Trigueros eta Zigor Iturrieta, osoko bilkuren aretoan.

AZAROAK 14

19:00 Alfonso Ena bergararren *Groenlandia, Cabo Taney eta Siorapaluk* ikus-entzunezkoa, osoko bilkuren aretoan.

AZAROAK 15

19:00 Hitzaldia Mendia Bizirik taldearen eskutik: Euskal Herriko basoak. Ondoren, Jorge Gonzalez biologoak ikus-entzunezkoa eskainiko du Pol-Polen egoitza.

AZAROAK 17

08:00 Beteranoen urteko azken irteera: Irun-Erlaitz-Irun. Gero, bazkaria sagardotegian.



Alex Txikon. | GOIENA

Benito Canteroren argazki erakusketa gaurtik Aroztegin

M.B. | BERGARA

Benito Cantero argazkilaria bergararrak erakusketa zabalduko du gaur Aroztegi aretoan.

Pasarteak izenburuarekin, mendia dute oinarri bergararraren argazkiek. Montphoto naturarekin lotutako argazkien nazioarteko lehiaketaren antolatzaileek honakoa diote Canteroren erakusketa: "Natura atera ahal ditugun argazkiak baino zerbait gehiago da. Benitorenak emozioz, itxuraz eta sentsazioz beteta dauden irudiak dira, eta natura ezagutzeko modurik ederrena da".

Abenduaren 1era bitartean egongo da ikusgai, ohiko ordutegian.



Argazkietako bat. | BENITO CANTERO

Bihar grabatuko dira Kantari ikuskizunaren saioak Zabalotegi aretoan Amaia Txintxurretarekin

Dagoeneko iritsi da Kantari ikuskizuna Bergarara. Aurreko asteko entseguen ostean, bihar, zapatua, sei saio grabatuko dituzte, 15:30etik 20:15era, herriko 120 bat gaztetxok Amaia Txintxurretaren gidaritzapean. Senideek, lagunak eta interesa duten herritarrek ikuskizuna jarraitzeko aukera ere izango dute, debaldeko sarrerak eskuratuta. Bihar grabatutako sei saioak hilaren 26an hasiko dira emititzen Goiena telebistan. Martitzetan eta eguenetan emango dituzte, 19:35ean.

San Martin jaiak ospatuko dituzte bihar, zapatua, Angiozarko Azkuneta auzoan

Asteburuan jaietan murgilduko da Angiozarko auzoetako bat. Hain zuzen ere, urtero bezala, bihar, zapatua, Martin jaiak ospatuko dituzte Angiozarko Azkuneta auzoan. 12:30ean meza egongo da eta horren ondoren luntxa eta soinu-joleak egongo dira eliza aurrean, Azkunetara inguratzen diren guztiendako, bertatik jakinarazi dutenez.

OHARRAK

1970EKOEN BAZKARIA

Etxagi jatetxean egingo dute, azaroaren 23an. Ariznoa tabernan batuko dira 13:00etan. Izen-ematea Sugo dendan (943 76 59 54).

1939KOEN BAZKARIA

Azaroaren 16an izango da. 13:00etan elkartuko dira Fraiskozuri plazan eta bazkaldu aurretik txikiteoa egingo dute. Bazkaria

14:30ean izango da Pertxa elkartean. Izena aurrez eman behar da, azaroaren 11 baino lehen.

1933KOEN BAZKARIA

Azaroaren 17an egingo dute bazkaria, Azpeitxi jatetxean. 12:00etan meza izango dute Santa Marinaran eta bazkaria 14:00etan izango da. Izena emateko 6 euro aurreratutako behar dira Intxortan.

Txapa irratiak programazio berria du

M.B. | BERGARA

Txapa irratiak denboraldi berriko programazioa aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 19:30ean, gaztetxean. 29 urte, eta gogo betez daude Txapa irrati kideak eta denboraldi berriari sekulako eskaintza izango dute: 22 irratsaio propio entzuteko aukera egongo da, besteak beste, denboraldi berriari FMko 97,2an.

Gaztetxean egingo duten aurkezpenaren ondoren, Garte bakarlariaren kontzertua egongo dela aurreratu dute Txapako kideek.

Musika, ikus-entzunezkoak eta pailazoak Osintxun azaroan

M.B. | BERGARA

Azaroak Gaztañatan egitasmoa prest dute osintxuarrek. Gaur, egubakoitza, abiatuko da, Kepa Acerok *5 olatu 5 kontinente* gaiaren gainean 19:30ean ludotekan egingo duen berbaldiarekin. Hilaren 15ean, Azkaiter Peloxek emanaldia egingo du, 22:15ean, Txuririon; hilaren 18an, Arimen Eguna ospatuko dute eta gaztainak eta sagardoa dastatzeko aukera egongo da, 19:00etan, Osintxuko plazan.

Azaroaren 22an, berriz, *Bergara 1936, gerra eta errepresioa* delako ikus-entzunezkoa ikusteko aukera egongo da, 22:15ean,

ludotekan. Eta azaroaren 23an mus txapelketa ere jokatu da, urtero bezala, 17:30ean, Euskaldunan.

Umeendako pailazoak

Umeak ere oso aintzat hartu dituzte aurtengo Azaroak Gaztañatan egitaraua prestatzeko orduan, eta azaroaren 24an, esaterako, pailazoen emanaldia egongo da, 17:30ean, pilotalekuan. Poxpolo eta Konpainia pailazoek egingo dute emanaldia.

Egitarauari amaiera emateko, Osintxuko artisten saioa egongo da hilaren 29an, 22:15ean, Txuririon.

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

AMAIA ZABALETA IRAZABALBEITIA
Abokatua



HELBIDE BERRIAN:
Artekale 16, behea - BERGARA - Tel.: 943 76 21 71



Aitor Zabaleta Agirre
Amillaga 5 behea
BERGARA

Leiho isolatzaileak
PVC, aluminioa, beira, egurra

E-posta.: txipi@txipi.com
www.txipi.com

606 53 18 10 - www.txipi.com



Udaletxe areto nagusian egin zuten osoko bilkura urrian. | OIHANA ELORTZA

Zaborra eta ezohiko etxebizitzak, ika-mika iturri

Bi gai horietan desadostasunak dituelako, EAJren kontrako botoekin onartu dira 2014ko ordenantzak

T.M./O.E. | OÑATI

Udal zerga eta tasa gehienek Kontsumo Prezio Indizearen arabera igoera izango dute datorren urtean. Hainbat ataletan, baina, izoztu egingo dira; zabor eta hondakin solidoen tasan, esate baterako.

Tasa horren izoztea eta ezohiko etxeendako %100eko errekar-gua mantentzea dira, hain zuzen ere, EAJk kontra egoteko eman-

dako arrazoiak. Hain zuzen ere, Bilduko zinegotzien aldeko eta jeltzaleen kontrako botoekin onartu dituzte datorren urteko ordenantzak.

Salbuespenak

Urriko osoko bilkuran, joan den egunean, onartu zituen udalbatzak 2014ko zerga ordenantzak. Erabakitakoaren arabera, udal zerga eta tasek, orokorrean, %1,74-

ko igoera, hau da, Hego Euskal Herriko KPIaren parekoa den igoera izango dute. Salbuespenak ere badaude; adibidez, Udal Euskaltegiko zerbitzuen tasa, eguneko zentroarena eta zabor eta hiri hondakin solidoen tasa bere horretan mantenduko dira, ez dute igoerarik izango. "Kontuan hartu behar da beti udaletxe sarre-arrunten eta gastuen arteko oreka. Zorionez, oreka hori man-

tendu egiten da. Horrek ahalbidetzen digu neurritzko igoera izatea zerga ordenantzetan; are gehiago, zerga jakin batzuetan tasen izoztea aplikatzea", azaldu du Mikel Biain alkarteak.

Desadostasunak

Zabor eta hondakin solidoen tasari dagokionez, Biainen esanetan, izoztea erabaki dute 2007 eta 2011. urte artean %60ko igoera izan zutelako eta baita herritarrak kontu honetan egiten ari diren esfortzua saritu gura dutelako. "Pentsatzen dugu igoera handia izan dutenez eta ikusita aurten herritarrak zein esfortzu ari diren egiten gauzak ondo egiteko, alde batetik gaikako atez ateko sistemarekin eta bestetik konpostarekin, hori saritu egin behar dela. Gure ustez, hori arduraz jokatzeko da, eta saritu beharrekoa", zehaztu du alkarteak.

Bere horretan mantenduko da, era berean, ezohiko etxebizitzetxei joan den urtean ezarri zitzaie %100eko errekar-gua. Puntu horretan, baina, aldatuta bat sartu dute: errekar-gua hori aplikatzeko garaian ezarritako salbuespenetan etxebizitzaren titularra hil denetik epea urte bat izatetik bi urte izatera pasatzea, hain zuzen ere. KPIa baino gehiago igoko direnak kirol tasak izango dira: kiroldegia autofinantzaketaren bidez, jasotako zerbitzuen arabera erabiltzaileek %3 eta %5 arteko igoerak izango dituzte. Ludotekako tasa, bestalde, jaitsi egingo da.

EAJko zinegotziek zerga ordenantzen kontra bozkatu zuten urriaren 31ko osoko bilkuran. Lourdes Idoiaga jeltzaleen bozeramailearen esanetan, ados daude tasak KPIaren arabera izoztearekin, baina bi puntutan ez daude ados. Ezohiko etxebizitzetxe %100eko errekar-gua da horietan

ko bat. Idoiagaren esanetan, "alokairua sustatzeko neurri zigortzaileak beharrezkoak dira, politika aktiboak bultzatu behar dira".

Zabor eta hiri hondakin solidoen tasa izoztearekin ere ez daude ados. "Atez ateko sistema ez zela garestiagoa izango esan zuten alkarteak, eta horregatik ez dute igoko tasa hori. Baina gauza bat da hori esatea eta beste bat da Mankomunitateak 2013ko aurrekontuetan, zaborretan, esan zuela %6,4ko gastu igoera egongo zela eta 2014ko aurrekontuetan dio %10-13 artean egongo dela. Tasak 2013an eta 2014an berdin mantentzeak zuloa egingo du udal kutxan, eta hori kudeaketa txarra da", dio Idoiagak.

Bereziki puntu horrekin lotuta, Udal Gobernuaren "transparentzia falta" salatu du, gainera, Idoiagak, "sarri eskatu arren hondakin kudeaketari buruzko datu ekonomikorik jaso ez" dutela adierazita.

ESANAK

"Herritarren esfortzua saritu gura izan dugu zabor tasa izoztuta"

MIKEL BIAIN | BILDU

"Zabor tasa bi urtez izozteak zuloa dakar, eta kudeaketa txarra da hori"

LOURDES IDOIAGA | EAJ

Gabonetako ekitaldiak antolatze deialdia

O.E. | OÑATI

Udaleko Kultura Sailak deialdia egin du Gabonetako ekitaldi bereziak antolatzeko.

Azken urteetan Martiñola taldeak antolatu ditu Olenzeroren etorrera eta Errege Kabalgata. 25 urteren ostean, baina, Martiñolak utzi egin du zeregin hori eta erreleboa eskatu du. Horrela, Udalak herritarren ideiak, ekarpenak eta proposamenak jaso gura ditu ekitaldi berezi horiek antolatzeko. Hain zuzen ere, Udalak baliabide materialak eta ekonomikoak jarriko ditu antolatzaileen esku.

Azaroaren 19a aurretik aurkeztu behar dira proposamenak Kultura Sailean. Bat baino gehiago jasoz gero, Kultura batzordeak aztertuko du zein den egokiena.

Aurrekontuak definitzeko, galdetegi banatu dute

O.E. | OÑATI

Datorren urteko aurrekontua lantzen hasita dago dagoeneko Udal Gobernuak. Lan horretarako, baina, herritarren iritzia jaso gura du. Horrela, galdetegi bat banatu du etxe etxe herritarrek ekarpenak, proposamenak eta hor idatz ditzaten.

Lau ataletan banatuta, 22 gairi buruzko galderak dakartzan galdetegi horrek.

Udal eraikinetan entregatu behar dira erantzundako galdetegiak, azaroaren 20a aurretik. Hilaren 23an ekitaldi irekia egingo du Udalak Foruen plazan. Ekitaldi horretan, "hauteskunde tailerren" irten diren ideien lehenespenean egin, eta 2014ko aurrekontuen lehen zirriborroa definituko dute.



Arrikruz kobako galerian bi lagun, lehoiari begira. | SERGIO LABURU

Arrikruzeko sarrerak, erdi prezioan udazkenean

Ostatua eta aisialdia eskaintzen duten herriko 15 negoziotako zerbitzuen truke lor daiteke deskontua

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Arrikruz kobetako sarrerak erdi prezioan eskuratzeko ekimena jarri du martxan Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziak. Horrela, abenduaren 30a bitartean, Oñatiko 15 establezimendutako

zerbitzuak erabiliz gero, kobetako sarreran %50eko deskontua eskuratzeko txartelak banatuko dituzte. Arrikruz Udazkenean du izena ekimen horrek, eta kobak bisitatu gura dituen edozeini dago zuzenduta.

Ostatu arloari eta aisialdiari lotutako Oñatiko 15 establezimendu hauek hartu dute parte ekimen horretan, ostatu kategorian kalitatezko zigilua dutenak gehienak: Santuario Arantzazu hotela, Sindika, Etxe-Aundi, Ongi, Soraluze, Torre Zumeltzegi, Goiko Benta, Arregi landetxea, Arantzazu borda, Arantzazu parketxea, Gandiaga topagunea, Gomiztegi baserria, Irelore Debalur golf elkarte, Pottokaleku eta Oñatiko Turismo Bulegoa.

Egonaldia ahalik eta erosoenaz izateko eta zerbitzuak bezeroaren neurrikoak izaten lanean diharduten negozioak dira aipatutakoak. Horrela, establezimendu horietako zerbitzuak erabiltzen dituztenei Arrikruzeko kobak ikusteko deskontu txartelak eman-goz ditziete.

Aldaola erreka

Ekimen horrek abenduaren 30era arte iraungo du. Sasoi horretan, eta euria tamainan egiten badu, posible izango da, gainera, koba barrutik pasatzen den Aldaola erreka ere ikustea. Bada, kobetara joateko beste arrazoi bat izan daiteke hori.

Lipduba egingo dute bihar, tratu onen alde

Herriko gaztetxo batzuen ideia izan da eta Antixenatik udaletxeko balkoira egingo dute

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Lipduba grabatuko dute bihar, zapatua, goizean, tratu ona aldarrikatzeko. Antixena parkean hasi eta Kale Barriaren beheara, udaletxean sartu eta balkoirainoko ibilbidea egingo dute. Grabaketarako aukeratu duten kantua, berriz, Urtz taldearen *Inork ez gaitu geldituko* da.

Puntu morea

Herriko gazte talde batek izan du ideia eta Denok Bat zerbitzuko hezitzaileekin batera presatatu dute. Azaroaren 25ean ospatuko den Emakumearen

Aurkako Biolentziaren Nazioarteko Egunari lotuta dago ekimena eta tratu ona erabiltzea aldarrikatu gura du. Horrela, hau da biharko lipdub grabazioan zabalduko duten mezua: *Tratu onak kaleratzen dituen lerroa gehitu zaitez.*

Herriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetak ikasleekin ere landu dute gaia, eta ikasleek kartelak egin dituzte, biharko grabazioan erabiliko dituztenak. Udaleko Berdintasun Sailak eta gaztelekuak ere parte hartuko dute biharko antolakuntzan eta grabazioan, "gazte



Ainhoa Moiu, Berdintasun teknikaria, puntu morearekin. | DENOK BAT

taldeak prosatutako ideiarekin bat" egingo dutelako.

13:00etan plazan

Lipdubaren grabazioan herritar guztiek parte hartu ahal izango dute, "zenbat eta gehiagok, hobeto", Berdintasun teknikari Ainhoa Moiuak azaldu duenez. 13:00etan

elkartuko dira denak Foruen plazan. Udaletxeko balkoitik eskailetan beheara kokatuko dira parte hartzaile batzuk eta handik Antixena parkerako bidea hartuko dute gainerakoek. Grabazioa bukatzeko, asmoa da parte hartu duten guztiak Foruen plazan elkartzea eta ikur batzuk irudikatzea.

Bezeroaren hamabostaldia hitzorduz beteta dator

Txandak antolatu du, eta hitzaldiak, dastaketak, tailerrak eta zozketa antolatu ditu, besteak beste

O.E. | OÑATI

Herritarrei zuzendutako hamabostaldia antolatu du Txandak, eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuak herritarrek bertatik bertara ezagut ditzaten. Horrela, hitzaldiak, haurrendako tailerrak, kale animazioa eta zozketa egingo dituzte atzo, eguena, hasi zen Txandaren hamabostaldian.

Erosketa-txartelen zozketa

Aste honetatik aurrera, bezeroei zozketan parte hartzeko txartelak banatzen ari zaizkie dendetan. Egindako erosketengatik sei zigilu desberdin lortu beharko dituzte, eta, behin txartela beteta, saltokietan dauden kutxetan sartu beharko dituzte. Betetako txartelen artean 50 euroko 20 txartel eta 100 euroko beste 10 zozketatuko dituzte. Sari banaketa azaroaren 20an egingo dute, 18:00etan, Maibi saltokian.

Horrekin batera, datozen bi zapatuetan, bihar eta hilaren 16an, kale animazioa egingo da, goizez, herriko kaleetan. Hilaren 16an, gainera, haurrendako tailerrak egingo dituzte Errementari plazan eta Portu kalean.

Bestalde, hilabete honetan erosketak Txanda txartelarekin egingo dituzten bezeroei, %5eko deskontua egingo diete, zuzenean. Datafonotik ateratzen den txartelean ikusiko du bezeroak saritua izan den edo ez. Bada, guztira, 4.000 euro banatuko dira deskontuetan.

ZER, NON, NOIZ

AZAROAK 8

Hornidura, gozogintza, tea, pastak, eta abar
Juanitosa / 11:00-13:00 eta 17:00-20:00

AZAROAK 9

Dastaketa: Produktu begetalak
Amalur belardenda / 11:30

Ikastaroa: Automakillajea
D'Or estetika / 10:30 edo 13:30

AZAROAK 12

Mikropigmentazioa. Makillaje iraunkorra
D'Or estetika / 10:30

AZAROAK 14

Hitzaldia: Barruko landareak osasun iturri
Bellotza / 14:30

Hitzaldia: Osasuntsu mantendu
Kultura etxea / 19:00

Zure bularretako taila egokia aurki ezazu
Kuttun / Denda orduan

AZAROAK 15

Umeendako askaria
Amalur / 17:30

AZAROAK 16

Dastaketa: Salda begetalak
Amalur belar-denda / 11:30



ARANTZAZU EZKIBEL

Aretoa bete du Denis Urubkok

Eguaztenean izan zen Denis Urubko mendizale ezaguna Oñatin. Kultura etxeko areto nagusia lepo bete zen. Alex Txikon itzultzaile lanetan alboan zuela, bere ibilbidearen erreposoa egin zuen mendizale kazakhstanarrak, eta gero, *Cold* film laburra eskaini zuten. Horrela, arrakastatsu hasi da Aloña Mendiren mendi hamabostaldia.

Torturaren parodia egingo dute bihar, Libre plataformaren eskutik

O.E. | OÑATI

Torturaren parodia antzeztuko dute bihar, zapatua, iluntzean, Oñatiko Libre plataformak antolatuta.

Herriko guneko batzuetan hainbat bikote egongo dira tortura eta horrek dakarrena antzeztuko. Bihar, zapatua, egingo dute, 19:30etik 20:00etara bitartean. Ondoren, torturaren gaineko bideoa proiektatu dute kalean.

Salaketa

Torturaren inguruko parodia hori eginda, Segiko kide izateagatik auzipetuta dauden gazteek izandako torturak sala-



Jarritako panpinetako bat. | O.E.

tu gura ditu Oñati Libre plataformak. Parodia bihar egingo badute ere, atzo, eguena, hainbat panpina jarri zituzten plataformako kideek herriko hainbat tokitan.

Mendiko lizentziak berritzeko epea zabalik

O.E. | OÑATI

Datorren urteko mendiko lizentzien eta aseguruaren tramitazioak egingo hasi dagoeneko Aloña Mendiko mendi saila.

Orain arte mendi saileko bazkide direnek aseguruaren estalduran aldaketaren bat egin gura duten edo ez azaldu beharko dute, eta, baja ematea gura izanez gero, hilaren 13a aurretik pasa beharko dute abisua. Lizentzia lehenbiziko aldiz egin gura dutenek ere eguaztena aurretik eman beharko dituzte datuak. Federatuta dauden gurasoen seme-alabek, bestalde, %50eko deskontua izango dute. Aloña Mendiko bulegoetan egingo dituzte tramitazioak, 19:30etik 21:00etara. Posta elektronikoz egiteko, alonamendi.mendi@gmail.com da helbidea.

Ume berriendako deialdia egin du Oñatz dantza taldeak

Oñatzek dantza ikastaro bat hasiko du gaur, egubakoitza. 2006 eta 2007. urteetan jaiotako umeei zuzenduta dago ikastaro hori. Zehazki, urte haietan jaio eta oraingorik dantzaz ez dabiltzan umeei zuzenduta. Lehen bilera gaur egingo dute Errekalde eskolako beheko lokalean, 17:00etan. Hantxe zehaztuko dute entsegu eguna.

Gaur, egubakoitza, egingo dute azaroko odol ateratzea

Gaur, azaroak 8, egingo dute hilabete honetako odol ateratzea. Urte hasieran banatutako egutegian, azaroaren 15erako zegoen iragarritan, baina Oñatiko Odol Emaleen Elkarrekin jakinarazi du aldaketak izan dituztela eta gaur izango dela odol ateratzea. Beraz, 17:30etik 19:30era egingo da odola emateko aukera gaur Txantxiku ikastolan.

Dentibus autobusa egun osoz egingo da plazako jolaslekuan

Dentibus izeneko autobusa egun osoz egingo da gaur, egubakoitza, Foruen plazaren aldamenean dagoen jolaslekuan. Hortzak eta ahoa aztertuko dituzten sendagileak egingo dira barruan eta nahi duenak aukera izango du bertara sartu eta ahoa berrikusateko. 09:00etatik 20:00etara egingo da, hain zuzen ere.



Erakusketan ipini duten argazkietako bat, institutua Sancti Spiritus unibertsitatearen eraikinean zegoeneko. | URGAIN

Institutuaren 50 urteen gaineko erakusketa zabalik dago

Argazkiak, agiriak, ikasteko tresnak eta beste bitxikeria batzuk bildu dituzte

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Orain dela justu 50 urte, 1963. urteko azaroaren 10an inauguratu zen Oñatiko Institutua. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu Urgain eskolak. 50 urteotan 2.000 eta 2.500 ikasle inguru pasa dira handik, ez bakarrik Oñatikoak, baita Gipuzkoako herri askotakoak ere.

Astelehena ezker zabalik dago *Zuazola 50 urte*. *Guztiona, guztion artean* delako erakusketa, eta honako gauzak daude: mende hasierako agiriak; institutuaren inaugurazioaz berri ematen duten egunkarietako artikuluak; lehen urtetako hainbat material –pupitrea, liburuak, laborategiko materiala, idazteko makinak, proiektatzeko makinak, hizkuntzak ikasteko binilozko materiala, bulegoko materiala, aktak, 10 urterekin egiten zen sarrera azterketa, Hezkun-

tza sistemaren eboluzioaren azalpena eta argazki ugari, bereziki 60 eta 70eko hamarkadetakoak.

Hasieran, Sancti Spiritusen

Orain dela 50 urte zabaldu zenean, Instituto Nacional de Enseñanza Media de Oñate zuen izena eta Sancti Spiritus unibertsitatean zegoen. 1970ean, eraikin berria egin zuten lehengo ospitale zaharra zegoen lekuan, eta ordutik aurrera bertan dago Oñatiko Institutua. Garai horietan ikasleak 10 urterekin sartzen ziren Institutuan Batxilergoa egitera sarbide proba bat egin ondoren.

1975-1976 ikasturtean, BBB eta UBI (BUP eta COU) ikasketak ematera pasatu zen gradualki. Orduan 14 urterekin sartzen hasi ziren ikasleak. 1975ean, BBBko ikasketak hasi zirenean, euskara irakasgai bat zen.

1980-1981 ikasturtean, Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza eskumena hartu zuen, eta baita Institutua ere, beraz. Ikasturte honetatik aurrera, Batxilergoa euskaraz irakasten hasi zen.

Gaur egun, Zuazola eraikuntzan DBH eta Batxilergoko ikasketak irakasten dira eta Larraña eraikuntzan Heziketa zikloak eta Irakaskuntza ez-arautua.

Herritar guztiondako ekitaldia

Beste ospakizun batzuetan parte hartu ahal izango dute herritar guztiek. 11:00etan, instalazioen bisita izango da; 12:00etan, ekitaldi ofiziala Institutuko aretoan, Mikel Biain alkatearekin, Zuazola-Larrañako zuzendari Leire Iturriotzekin eta Hezkuntza Sailleko ordezkari batekin; gero, Jerardo Elortzak hitzaldia egingo du; segidan, luntxa izango da.

Gehienez, 10 laguneko taldeak

Izen-ematea oso martxa onean doa: 20 talderendako lekua dago bakarrik, eta, joan den martitzenerako, dagoeneko 12 talde zeuden izena emanda. Beraz, oraindik badago parte hartzeko aukera, baina lehiaketaren egunean izena ematen dutenek ezin izango dute publikoaren saria jaso.

Talde bakoitzak, gehienez, 10 kide izan ditzake, eta gutxienez 15 urte izan behar dituzte.

Lanak euskara hutsean izan behar dira, ahozkoa nahiz idatzizkoa.

Lau sari emango dituzte, denetara 600 euro: lehenengo saridunendako, 300 euro; bigarrenarendako, 150 euro; eta hirugarrenarendako eta publikoaren saridunarendako, 100 euro bakoitzarendako.

hilaren 16an, 08:00etan jasotako informazioaren inguruan egin beharko dituzte filmak, eta 19:00ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte Gaztelekuan. 19:30ean, parte-hartzaile guztiendako luntxa izango da Santa Ana antzoki kanpoan; 21:30ean, film guztiak ipiniko dituzte; eta 23:00etan, sariak banatuko dituzte, ikuslearen saria ere.

L.K. | OÑATI

Azaroaren 16an, zapatua, Oñatiko film laburren rallya egingo dute. Laugarren urtea dute hau. Euskara eta filma uztartzen dituen ekitaldia da. Parte hartu gura dutenek 1 eta 3 minutu arteko filmak aurkeztu beharko dituzte, Oñatin grabatutakoak.

Egunean bertan filmatutako lanak izan beharko direnez,

Gaur ikusiko dute erretiratuek Ikusi Makusiren antzezlan berria

L.K. | OÑATI

Kultura Astea egiten dabilta Pake Leku erretiratuen elkar-tekoak, joan den astelehena ezker. Ekitaldien artean, Ikusi Makusi antzerki taldearen lan berriaren estreinaldia dago.

Ohiturari jarraituz, lehenengo erretiratuendako bakarrik antzeztuko dute, eta gero, herritar guztiondako. Gaur, egubakoitza, izango dute erretiratuek emanaldia ikusteko aukera, Santa Ana antzokian, 17:30ean.

Vivir en Villa Titiritaina du izena antzezlan berriak. Elkarrekin bizi diren nagusi batzuen gorabeherak kontatzen ditu.

Ana Mari Artzuaga da Ikusi Makusiko zuzendaria, eta berak idatzi du oraingo antzezlan ere. Nola okurritu zitzaion kon-

tatu digu: "Egunkarian irakurri nuen Ipar Ameriketako nagusi batzuek etxebizitza konpartitzea erabaki zutela. Pentsatu nuen gure bizimodua oso diferentea izan daitekeela, baina gustatu egin zitzaidan ideia eta gure modura moldatu dut".

Gabonak baino lehen, herrian

Ikusi Makusi taldeak urte dezentetara, eta hasierako lagunek, batek izan ezik, jarraitzen dute. Zortzik antzezle lanak egiten dituzte, beste batek dekoratuak eta eszenatokia gertatzen ditu, eta Ana Mari Artzuagak egiten ditu zuzendari lanak, eta batzuetan aktore lanak ere bai.

Gabonak baino lehenago herrian antzeztuko dute; gero, bira egingo dute eta egunak zehaztuta dituztela esan digu Ana Mari Artzuagak.



Vivir en villa Titiritaina antzezlan entseatzeko. | MIREIA BIKUÑA

Norman eta Inoren Ero Ni taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Antixena gaztetxean

Norman eta Inoren Ero Ni taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan. Eibarko Norman taldeak Perkins disko berrieneko abestiak joko ditu Oñatin.

Inoren Ero Ni Andoainen sortutako taldea da eta post-hardcore estilora jorratzen dute. *Fregoli* diskoko abestiak joko dituzte zuzenekoan.

'El niño con el pijama a rayas' filma emango dute etzi, domeka, Gaztelekuko Topalekuan

Gaztelekuko Topalekua espazioan film emanaldia izango da etzi, domeka. Hain zuzen, *El niño con el pijama a rayas* delako filma emango dute, 17:30ean. John Boyneren eleberrian oinarritutako film horretan, II. Mundu Gerran, kontzentrazio-esparru baten lan egitera doan komandante nazi baten semearen eta esparru horretan bizi den adin bereko mutiko baten arteko adiskidetasuna kontatzen da.

The Potes taldeak Pogues, Mahones, RIP eta beste talde batzuen bertsiak joko ditu etzi Pakon

The Potes taldeak kontzertua emango du etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean. The Pogues, The Mahones, Flogging Molly, RIP eta antzeko beste talde batzuen bertsiak egiten dituen taldea da. Berezitasun gisa, instrumentu akustikoekin (gitarra akustikoa, akordeoia, banjoa, baxua...) jotzen dute, Irlandako zein Ameriketako Estatu Batuetako musika ukituekin, erritmo bizi eta dantzagarriekin.



Bizilagunak ekimenaren une bat. | SOS ARRAZAKERIA

Aretxabaletan ere Bizilagunak ezagutu guran

Europa mailako ekimena azaroaren 17an izango da eta Hiruatx herrian antolatu guran dabil

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL
Bizilagunak ekimenak bigarren urtea beteko du aurten; iaz Gipuzkoako toki batzuetan eraman zuten aurrera eta aurten, ostera, Euskal Herri osora zabaldu da elkar ezagutzeko proposamena.

Aretxabaletan ere ekimena aurrera ateratzeko ahaleginetan ari da Hiruatx elkarteak; horretarako,

Loramendi, Basotxo eta GuHaziakGara elkarteekin jarri dira harremanetan mezua zabalitzen lagun diezaieten.

Bi familia mahaiaren bueltan
Europa mailako ekimena da, eta Euskal Herrian SOS Arrazakeriak taldeak kudeatzen du Bizilagunak. Egitasmoaren ideia oso

ESANAK

"Aurreiritziak hausteko elkar ezagutzea funtsezkoa da"

HIRUATX ELKARTEA

sinplea da: bertako eta jatorri kanpotarreko familia banak jatordu bat konpartitzen dute elkar ezagutzen duten bitartean. "Oso garrantzitsua da, pertsona eta errealitate ezberdinak ezagutzeak aurreiritziak apurtzeko balio duelako", diote antolatzaileek. Gainera, kultura, ohitura eta bestelakoak partekatzeak aukera eskaintzen du.

Iazko kasuan, esaterako, Gipuzkoako 120 familiak hartu zuten parte Bizilagunak egitasmoan. Eta aurten Hiruatxeko kideek aretxabaletar guztiei egin gura diete dei ekimenarekin bat egin dezaten. Loramenditik, Bizilagunak oso ideia ona dela uste dute: "Gure bazkideen artean zabaldu dugu azaroaren 17an Euskal Herriko toki ezberdinetan garatuko den ekimenaren berri eta bat egin dezaten gonbidatu ditugu; baita Auzoko egitasmoan parte hartzen dutenen artean ere".

Aurretik eman behar da izena

Jende berria ezagutzeko eta ordu batzuk elkarrekin igaroz une aberasgarriak igaroko dituzte parte hartzaileek: "Asko baitago deskubritzeko".

Izena emateko hainbat modu daude: www.mugak.eu helbidean *Bizilagunak* atalean sakatu eta orria betez; 943 32 18 11 telefonora deituta; edo info@mugak.org helbidera idatzita.

Hitano ikastaroan izena emateko epea luzatu egin du Loramendik

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Loramendik aditzera eman duenez, azarorako antolatutako hitano ikastarorako izen-ematea luzatu egin dute. Hori horrela, gaur, egubakoitza, izango da horretarako azken eguna. Baina, gainera, ikastaroaren beraren hasiera data ere aldatu dutela eman du aditzera euskara elkarte Josu Retolatxak. "Dagoeneko eman dute izena zenbait herritarrek, baina taldea handiagoa izatea gurako genuke, horregatik aldatu dugu hasiera data datorren astelehenera, azaroak 11". Bost astean, astelehen eta eguaztenetan elkartuko dira hikan berba egiten ikasi gura dutenek. "Izena emateko Lora-

mendira etorri edo Aretxabaletako euskaltegira jo daiteke".

Orientazio ikastaroa, aurrera
Bestalde, Loramendik Murruxiko eta Zeraia elkarteekin batera antolatutako orientazio ikastaroan izena eman daiteke oraindik ere. Hiru eguneko iraupena izango du. Hilaren 15ean alde teorikoa jorratuko dute udaletxe zaharrean eta hilaren 16an eta 17an, ostera, Urbasan ikastaroaren alderdi praktikoa landuko dute.

Prezioa pertsona kopuruaren arabera da: 75 euro 6 pertsonako taldea bada; 55 euro 10 pertsonakoa izanda; eta 40 euro 16 pertsona animatuz gero.



KURTZEBARRI BHI

Kurtzebarrikoak Sastarrainen

"Euskal giroan, natura ezagutzeko eta errespetatuz elkar hobeto ezagutzeko" asmoz txangoa egin dute Kurtzebarriko DBHko lehen mailako neska-mutilek eta irakasleek asteen, Sastarrainen. Hiru egun eman dituzte hantxe eta ederto ibili direla esan dute.

Abenduan egingo den bigarren eskuko azokarako materiala biltzen hasi dira

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Herriko presoen alde neguko bigarren eskuko azoka antolatu dute abenduaren 14rako, eta hasi dira dagoeneko materiala biltzen *Ganbarak hustu elkartasuna adieraziz* lelopean.

Herritarrei dei egin diete etxean dauzkaten eta erabiltzen ez dituzten materialak eraman

dituzten. Horien artean daude, besteak beste, arropak, liburuak, diskoak, bizikletak...

Azaroan zehar material biltzea
Materiala azaroan zehar batuko dute eta herritarrek Belar Meta, Kioskora, Urbaltzera eta Azkena tabernara eraman ahal izango dituzte gauzak.

Gaur amaitzen da irakur punturako lanak aurkezteko epea

Udal Liburutegiak antolatutako irakur-punturako irudia hautatzeko lehiaketa gaur, egubakoitza, amaituko da. Marrazkien gaia eta hori egiteko teknika libreak direla ekarri dute gogora, eta, sariari dagokionez, irabazleak 200 euro eskuratuko dituela gaineratu dute.

Kostaldera joango dira azaroaren 16an 1973an jaiotakoak, egun-pasa

Azaroaren 16an egingo dute 1973an jaiotako aretxabaletarrek urteko bazkaria. "Azkenean, kostara joango gara", argitu dute. Hala, AZBE parean elkartuko dira 11:00etan autobusa hartzeko. Bazkaria eginda, itzulerako ordua ere zehaztu dute: "21:00 inguruan itzuliko gara Aretxabaletara".

Podologia zerbitzua egongo da Basotxon hilaren 20an

Basotxoko bazkideentzako podologia zerbitzua egongo da azaroaren 20an, eguaztena, 09:00etan hasita. Aurretik txanda hartu beharko dutela eman dute aditzera; horretarako, hilaren 18an eta 19an Basotxon bertan egin beharko dute eskaera, 11:00etatik 12:00etara bitartean.

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Ifnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

EGUZKIGRAF
inprimategia
30 urte baino gehiago
zuzen zerbitzua

Hilaren 21era atzeratu dute Ostegun Akustikoen hasiera

Azaroko azken bi eguenetan eta abenduaren 12an eta 19an dira kontzertuak

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Udalak antolatutako Ostegun Akustikoak lehiaketa eguenean, azaroak 14, hastekoa zen; baina, azken orduko arazoak tarteko, astebete atzeratu dute hasiera; hortaz, hilaren 21ean izango da lehen kontzertua. Hain justu, azaroaren 21ean eta 28an eta abenduaren 12an eta 19an izango dira musika emanaldiak.

Lehiaketan Debagoienean jaio edo bizi diren lau musika taldek edo bakarleri gaztek parte hartuko dute. Aipatutako eguen iluntzean, 21:30ean, ordubete inguruko emanaldia eskainiko dute herriko hainbat tabernetan. Bestalde, euskarak bere tokia izango du, emanaldi erdia, gutxienez, euskaraz izango delako.

Publikoak emango du botoa
Kontzertuetara joaten direnek aukeratuko dituzte lehiaketaren



Musikaz jantziko dira herriko tabernak. | GOIENA

irabazleak. Emanaldien ostean, ikusleek botua emateko aukera izango dute, tabernan bertan jarriko den postontzian utziz. Sariei dagokionez, bi banatuko dira: irabazleak 200 euro jasoko ditu eta bigarrenak, 100 euro.

Udaberrian, Ostegun Bidaia-riak lehiaketa egin zen Aretxabaletan. Horrek izandako harre-
ra onak bultzatuta, udazkeneko eguenak musikaz janztea erabaki du Udalak, Ostegun Akustikoak lehiaketa martxan jarrita.

Euskadiko karate txapelketatik pozik

Emaitza onak lortu zituzten karateka aretxabaletarrek hilaren 2an Gasteizen izandako Euskadiko txapelketan. Kadete eta juniorretan bigarren izan ziren Andoni Martin eta Oxel Vazquez, hurrenez hurren. 21 urtetik beherakoetan, 78 kilo azpikoetan, Ekaitz Irusta hirugarren geratu zen; eta 68 kilo azpikoetan, Odei Vazquez bigarren.



ODILO VAZQUEZ

'Ahora me ves' eta 'Aviones' ikusi ahal izango dira asteon Arkupen

M.B. | ARETXABALETA

Azaroan ekin diote ostera Arkupen filmak eskaintzeari. Zine komertzialari dagokionez, gaurtik astelehenera bitartean *Ahora me ves* filma ikusi ahal izango da. Betiko moduan, gaurko eta biharko emanaldiak 22:00etan dira; domekakoa, 19:30ean; eta astelehenekoa, 16:00etan. Azken egun horretarako sarre-
rak bi eurotan salduko dira eta gainerakoak, lau eurotan.

Horrez gain, haurrendako zinea ere badago bihar eta etzi, 17:00etan. Oraingo astean *Aviones* ikusiko dute neska-mutikoek.

Biharko sarrerak bi euro balio du eta domekakoa, hiru. Bestalde, zineklubaren barruan, *Paraíso amor* dago eguenean, hilak 14, 19:30ean.

Kultura Salletik zinearen garrantzia nabarmendu gura izan dute: "Jendearen erantzuna ona izan da beti. Izan ere, Aretxabaletako zineak ikusle fidelak ditu, eta jendea gozoz zegoen berriro ere herrian aukera izateko". Horrekin batera, euskarari ere garrantzia eman gura diotela esan dute; joan den astean, esaterako, *Amaren eskuak* eskaini zuten.

Azken 50 urteotan atletismoak herrian izandako ibilbidea ikusgai

M.B. | ARETXABALETA

Abendu hasieran, Aretxabaletan atletismoak azken 50 urteotan izandako lekuaren adierazle izango den erakusketa zabalduko dute Arkupe kultura etxean. Eta horretarako, herri-
tarren laguntza eskatu dute, herrian egin diren probetako edo bertako korrikalarien argazkiak jasotzeko.

Fernando Unanue dabil antolaketa lanetan. Pozik dago, aretxabaletarrek oso ondo erantzun dutelako eta irudi asko batu dituztelako. Honakoa esan

digu: "Esaterako, bakarrik Fernando Agilarren senitartekoek utzitako argazkiekin liburua egin daiteke".

Agilarren bideoak

Gogorarazi du Agilar Espainiako txapelkun izan zela krosean, eta baita pistan ere, eta 1964ko Tokioko Joko Olinpiarretan ere hartu zuela parte. RTVEren *Nodo* artxiboan haren bideoak aurkitu dituzte, eta horiek muntatzen dabil orain Unanue, argazkiekin batera erakusketan ikusgai jartzeko.

Euskal Herriaren bilakaera historikoa mapa bidez dago ikusgai Arkupen zabaldu duten erakusketan

Erakusketa ibiltaria dago oraingo hilabetean Arkupeko erakusketa aretoan: *Euskal Herriko mapak. Euskal Herria kartografian eta testigantza historikoetan*. Jose Mari Espartza idazle eta historialariaren *Mapas para una nación* liburuan oinarritako erakusketa honako ordutegian bisitatu ahal izango da: astelehene-
tik egubakoitzera 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta zapatueta, goizez.

Azken blokearen salmenta **Uribarrin**, bista paregabearekin!



UTE URIBARRI AUZOA ARRASATE
SUKIA GEDI

- Orientazio paregabea.
- Kokapen pribilegiatua.
- Kalitatezko etxebizitzak.
- 2 logelako etxebizitza 195.000 €-tik aurrera.
- 3 logelako etxebizitza 240.000 €-tik aurrera.

Tel.: 650 51 98 95 - www.sukia.com

Bisita ezazu gure etxebizitza pilotua!

Torrebasoko jolas parkea handitzeko asmoa dute

- ▶ Parkearen bigarren fasea diseinatzeko ariketa egingo dute bihar umekin
- ▶ 'Ametsen fabrika' antzezlanaz izango da ekintza hori amaitutakoan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzan dagoeneko badabil-tza datorren urteko aurrekontuak prestatzen, eta, horren bueltan, Gazteria Saitetik umeei zuzendutako ekintza gertatu dute biharko, Luis Ezeizako eta Arizmendiko gurasoek lagunduta.

Hain justu, Torrebaso jolas parkearen bigarren fasea diseinatzeko egitasmoa jarriko dute martxan, umeen laguntzarekin. Iritzia eskatuko zaie haurrei, parke berriari falta zaiona.

Esan bezala, biharko, zapatua, egin dute hitzordua, 17:00etan.



Irailen inauguratu zuten Torrebasoko parkea. | M.B.

Eguraldi ona egiten badu, plazan elkartuko dira, eta bestela, herriko Udal Pilotalekuan. 5 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoek parkeari buruzko marrazkiak eta collageak egingo dituzte horretan, guraso batzuek lagunduta. Jarraian, egindako lanak hartu eta horietan agertzen diren ideiak kontuan izango dituzte fase berriaren proiektua egiterakoan.

Ipuin antzeturia

Eguna, baina, ez da hor bukatuko. Ariketa amaitzean, 18:00 inguruan eta toki berean, *Ametsen fabrika* haurrendako ipuin antzeturia eskainiko dute Aizarnazabalgo Adiskide bertso eskolako kideek. Emanaldi horrek ondo pasatzeko pizgarri guztiak ditu: bertsoa, umorea, suspentsea... Askotan esaten den moduan, denok daukagu ume-izaera barruan, eta ume hori kanporatzen saiatuko dira bertso eskolakoak. Ume guztiei dago zabalik antzezlanaz, aurreko ariketan parte hartu edo ez.



Eguaztenean papera eta kartoia atera zuten eskoriatzarrek. | M.B.

Astelehena ezker martxan da hondakinak gaika batzeko proba

M.B. | ESKORIATZA

Herriko iparraldean astelehenean jarri zuten martxan hondakinak batzeko sistema berria. Domekatik martitzenera bitartean, edukiontzi berdeak, horiak eta urdinak kaleetatik kendu zituzten, eta horien ordeztu jarritako edukiontzi marroiak eta zintzilikarioak erabiltzen hasi dira eskoriatzarrek.

Udaletik azaldu dute bada-goela proba martxan egotea oztopatzen saiatzen ari dena; esaterako, bizilagunaren pegatinak kenduz edo zabor poltsak zintzilikarioetan jarrita. Baina nabarmendu dute, orokorrean, aparteko arazorik ez dela egon

lehen egun hauetan, eta herri-tarrak normal ari direla azpiegitura berriak erabiltzen. Bestalde, zaborra gaika banatzekoan sor daitezkeen zalantzak argitu aldera formazio saioak antolatu dituzte Hondakin Bulegokoek. Gaur, 11:00etan, egingo dute bigarrena, museoan; eta azaroaren 12an, 18:00etan, hirugarrena.

Txistualdi bateratua

Esan bezala, herritar guztiak ez daude ados probarekin; tartean, Eskoriatza Garbia. Hori dela eta, txistualdi bateratua egitekoak ziren atzo arratsaldean herriko kaleetan.

Eingeinkeren film laburren rallyan izena eman daiteke

Azaroaren 30ean da lehiaketa; izen-ematea eta oinarriak 'www.eingeinke.org' webgunean daude

M.B. | ESKORIATZA

Laugarrenez gertatu du Eingeinke ekimenak *Ti Tau!* film laburren rallya. Aurten, azaroaren 30ean izango da, eta, joan den urtean bezala, umorezko film laburrak aurkeztu beharko dira: "Tristura eta hondamendiak modan dauden garai hauetan umoreari eta alaitasunari merezi duen lekua eman nahi diogu".

Lehiaketa hilaren 30ean izango bada ere, dagoeneko zabalik dago izen-ematea, www.eingeinke.org webgunean. Oinarriak ere

hor jarri dituzte eskura: 09:30etik 10:00etara, lehiakideei gaia banatuko zaie Ibarraundin; gaia eta objektu bat, filmean agertu beharko duena. Horrez gain, herriko sei leku edo ezaugarri banatuko dira eta horietatik, gutxienez, hiru azalduko dira.

Ekipoa norberaren ardura

Egun osoa grabaketak egiten eta filmak editatzen emango dute taldeek. Horren harira, antolatzailerik azaldu dute talde bakoitzak bere ekipoa eroan beharko



Joan den urtean Salmorejo Film taldeak irabazi zuen lehiaketa. | GOIENA

duela, eta antolakuntzak argindarra, ediziorako mahaiak eta Interneteko konexioa jarriko dituela. Gehienez lau minutukoak izango diren lanak 19:00etan aurkeztu beharko dira. Epaimahaiak

filmak ikusi eta baloratzen dituen bitartean, parte hartzaileendako luntxa izango da. 21:30ean lanak proiektatuko dira eta jarraian sari banaketa egingo da. Sari bakarra dago: 300 euro.

Pirritx eta Porrotxen sarrerak hilaren 15etik salgai

M.B. | ESKORIATZA

Azaroan Pirritx, Porrotx eta Mari-motots pailazo ezagunek Eskoriatza bisitatu ohi dute; bada, aurten ere ez dute hutsik egingo, eta gurean izango dira. Hilaren 23an etorriko dira *Bizipoza* ikuskizuna aurkezttera, eta azaroaren 15ean, egubakoitza, jarriko dituzte sarrerak salgai. Sei eurotan salduko dituzte, kiroldegian.

Dena dela, azken urteotan ohikoa den moduan, Eskoriatzako ikastetxeetan aurretik banatzen dabilta sarrerak; hain justu ere, gaur arte erosi ahal izango dira (egubakoitza).

Kiroldegian 500 bat sarrera

Horren harira, Udaletik jakinarazi digute ikastetxeen bidez, denera, 1.000 bat sarrera salduko

direla; eta gainerakoak, 500 inguru, esan bezala, herriko kiroldegian lortu ahal izango dira hilaren 15etik aurrera.

Udaletik gogorarazi dute kiroldegian 1.456 lagun sartzen direla, eta, hortaz, sarrera beharrezkoa izango dela adin guztietarako, ume zein heldu. Bestalde, urtero moduan, 17:30ean hasiko da emanaldia.

ZUZENKETA

Joan den asteko Eskoriatzako orrialdean esan genuen Udarak kirol teknikari baten beharra zuela. Udaletik honakoa zehaztu nahi izan dute: "Ez dago beste teknikari baten beharra, kontratatu behar da enpresa edo pertsona bat hainbat zerbitzu kudeatzeko".

OHARRAK

KARAOKEA LUDOTEKAN

Gaur, egubakoitza, karaokea dute umek Tortolis ludotekan, 17:30ean.

TAILERRA ETA ZINEA

Gaztelekuan serigrafia tailerra egingo dute bihar arratsaldean; eta etzi zinea dute gazteek.

KIROL HITZORDUAK

Asteburuan kirol hitzordu bi daude Manuel Muñoz kiroldegian. Bihar, zapatua, dira biak: 16:00etan, kadete mailako saskibaloia dago Eskoriatza eta Soraluece Bergara artean; eta 18:00etan, seniorrek jokatu dute. Etxekoek Amurrioko Babiloniako neskek izango dituzte aurrean.

IKASTAROKAK

Datozen asteotan, ibilgailuak mantentzeko oinarriko ikastaroa eta erabilitako arroparekin jantzi berriak sortzeko tailerrak daude. Hilaren 12ra arte eman daiteke izena.

ORRI-PUNTUA

Udal Bibliotekak datorren urteko orri-puntua izango dena hautatzeko lehiaketa deitu du. Abenduaren 9a baino lehen aurkeztu beharko dituzte lanak interesatuek bibliotekan bertan. Irabazleak 250 euroko saria jasoko du.

Bihar grabatuko dute Kantari telebista saioa Bergaran, Zabalotegin

Domekan ezagutu zuten herriko 22 haurrek Kantari saioko agertokia, entsegu ofiziala egin zuten eta Bergarako Zabalotegi aretoa. Saioaren grabaketa bihar izango da, 15:30ean. Antzuolako sei taldek hartuko dute parte eta guztiekin saio bat grabatuko dute, 19:45ean. Aste honetan hasi dira Goierna telebistan Kantari emititzen; beraz, Bergarako saioak ere laster izango dira ikusgai.

Merienda eginda emango dio hasiera Gazte Txokoak urteari

Bihar arratsaldean irekiko dute berriro Gazte Txokoa, eta, ikasurtea behar bezala hasteko, merienda egingo dute. Asteburuetan bakarrik zabalduko dute Gazte Txokoa: zapatuetan 17:00etatik 21:00etara eta domeketan 17:00etatik 20:00etara. 11 eta 14 urte artekoendako zerbitzua da, eta, besteak beste, droga-menpekotasun prebentzioarako tailerra egingo dute azaroaren 24an eta abenduaren 1ean.

Italian bizikletaz egindako zeharkaldia argazkietan erakutsia

Antzuolarrak munduan zehar hitzaldia antolatu dute egunerako Olanan etxean. Hainbat herritarrek egindako bidaia ezberdin baten berri jasotzeko aukera ematen du egitasmoak eta datorren astean Milan eta Napoles artean bizikletaz egindako bidaia izango dute hizpide Estebe Olartuak, Aitor Gabilondok, Xabier Agirrek eta Fernando Garitanok. Eurek egindako argazkien bitartez erakutsiko dituzte bidaiaren nondik norakoak, 18:30ean hasita.

OHARRAK

PILOTA PARTIDUA GAUR

Bigarren urteko alebinek Zumaiaren aurkako partidua dute gaur, 19:00etan.

FUTBOL PARTIDUA BIHAR

Ohorezko Erregionalekoek bihar jokatuko dute, Eztalan, Real Unionen aurka (16:00).

TXISTULARIEN KALEJIRA

Domekan kalejira egingo dute txistulariek herriko kaleetan. 10:00etan hasiko dira.

AUTODEFENSA TAILERRA

Datorren egubakoitzean amaituko da autodefensa feminista tailerrean izena emateko epea. Udaletxean edo Gizarte Zerbitzuetan egin behar da izen-ematea.

Zerga eta tasa gehienak %1 igotzea onartu du udalbatzak

Bilduren aldeko eta EAJren aurkako botoekin onartu dira ordenantza fiskalak

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Martitzenean egin zuten azaroko ohiko osoko bilkura, eta, urte amaieran egonda, 2014ko ordenantza fiskalak izan ziren eztabaidarako gai nagusia. Bilduko sei zinegotziek ordenantza fiskal berrien alde bozkatu zuten eta EAJko biek, berriz, aurka.

Inma Beristain alkateak adierazi zuenez, aztertu zuten zergak eta tasak ez igotzea: "Baina gure ardura udal zerbitzuak ematea da eta horrek kostu bat du". Ondorioz, zerga eta tasa batzuk bere horretan mantenduko dituzte, baina gehienek %1eko igoera izango dute.

"Ongizate zerbitzuak gastu garrantzitsua eragiten du herrian, baina uste dugu hori mantendu egin behar dela. Dagoen egoerarekin, gainera, gehiago bideratu beharko dugu horretara", azaldu zuten Beristainek.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen, hiri lurren balioen gehikuntzaren eta ondasun higiezin gainera zergak %1 igoko dira eta hutsik dauden etxebizitzetako gainera %100ean mantenduko da. Etxeak alokairuan jartzea da horren asmoa eta Beristainek azpimarratu zuen iaz alo-



Arrizabalaga, ezkerrean, eta Beristain, eskuinean. martitzeneko bilkuran. | I.E.

kairurako izapide gehiago egin zirela. EAJko Maria Eugenia Arrizabalagak, aldiz, uste du errekareruak "dirua biltzea beste helbururik" ez duela.

Zabor biketaren tasa Deba-goieneko Mankomunitateak zehaztutakoa adina igoko da, eta Arrizabalagak kritika egin zion horri: "Udala eta Mankomunitatea iluntasunez jokatzen ari dira, ez dugu informazio zehatzik. Alkateak esan digu ez dakiela zein den Mankomunitateak Udalari ezartzen dion igoera".

Hiru mozio

Ordenantza fiskalez gain, hiru mozio aztertu zituzten bilkuran: batetik, Fagor Etxetresnak enpresako langile eta kooperatibistek elkartasuna adierazi zieten; bestetik, azken asteotan Madrilgo Auzitegi Nazionalean hasitako epaiketa politikoen aurka agertu zen udalbatza aho batez; eta azkenik, azaroaren 25aren harira, emakumeen aurkako indarkeria salatu eta indarkeria matxistaren kontrako konpromisoa erakutsi zuten Udalak.

Libre Eguna antolatzen ari dira azaroaren 23rako

Sotero Etxeandia eta Jon Agirre preso ohiek euren esperientzia kontatuko dute bihar Gaztetxean

I.E. | ANTZUOLA

Aste batzuk igaro dira Madrilgo Auzitegi Nazionalean 35/02 eta 26/11 sumarioen aurkako epaiketak hasi zirenetik -Herriko tabernen eta gazte mugimenduarien auziak, hurrenez hurren.

Euskal Herriko herri askotan elkartasun ekintzak egin dira ordutik hona, eta Antzuolako Libre mugimenduari ere badu horretarako asmoa: "Kaleak laranja margotzen hasiak gara, elkartasunetik konpromisora salto

egiten hasiak gara, pausoz pauso eta harresiz harresi gure etorkizuna libre eta bakean erabaki nahi dugulako". Horregatik, Libre Eguna antolatzen ari dira azaroaren 23rako.

Egitaraua ez dago guztiz itxita, baina dagoeneko hainbat ekintza aurreikusitako dituzte: kale animazioa, bertso bazkaria eta herriko taldeen kontzertuak, besteak beste. Gainera, bertso bazkarirako txartelak eskuragarri daude Gaztetxean.

Guztira, 70 pertsonatik gora ari dira epaitzen Madril eta makroepaiketen zama ekonomiko arintzen laguntzea eta auzipetuei herritarren babesa eskaintzea da Libre Egunaren helburua. Eta horretarako, arropa laranja jantzi eta kalera irteteko dei egin diete antzuolarrei.

Preso ohien hitzaldia

Zapatu honetan, berriz, presoan egoera hurbilagoatik ezagutzeko aukera izango da Gaztetxean. Izan ere, Sotero Etxeandia eta Jon Agirre preso ohiek euren esperientzien berri emango dute. Espetxean bizi izandakoa eta kalera irten ostean izandako egoitzapena ezagutu ondoren, mahai-ingurua eta luncha izango dira. Bi preso ohien jarduna 19:00etan hasiko da.

NIRE USTEZ



ANTONIO DEOGRACIAS

Inori min eragitea uste baino errazagoa da

Senide bat galdu berri zuen lagun batekin bidegabeki jardun nuen orain dela ez asko. Elkarrizketa batekin gogoratu nintzen, eta harira ez etorri arren, hari heldu nion. Ohartzera, oraindik oso bizirik zirenen oroitzapenak gogorarazi nizkion nire lagunari, eta bere tristura gehiago areagotu.

Jakina, nik ez nuen nahita egin. Baina, sarritan, eta atsegina izan nahi izatearren, ez ditugu berba egokiak aukeratzen dagokion momentuan eta, inkontzienteki bada ere, zaurian nahi baino min handiagoa eragiten dugu.

Buelta asko eman dizkiot gaiari, egindako akatsa zuzentzeko asmoz. Nire baldarkeriatatik barkamena eskatzea ere otu zait; baina zer lotuko nuke horrekin? Berritua ere gaia gogora ekartzeak bere zaurian min eragingo lioke. Horregatik, arrisku horretatik ihesi, erabaki dut denbora joaten uztea.

Halako egunen batean, nire kontu faltak eragindako gaizki-ulertzea argitzerik izango dugu. Oker ez egotea espero dut eta orain hartutako erabakia zuzena izan dadila. Halaber, ikasi dut zein garrantzitsua den esateko daukazuna neurtzen jakitea eta aurrean duzun horren egoera ere aintzat hartzea; hori guztia, ahoa zabaldu aurretik.

"Atsegina izan nahi izatearren ez ditugu berba egokiak hartzen"

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinziuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Adifen auziaren aurrean, eskutik helduta doaz Aldundia eta Udala

Arabako Diputazioak babes juridikoa eta teknikoa emango die herritar kaltetuei

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Javier De Andres Arabako ahal-dun nagusia Aramaion izan zen atzo. Harekin batera etorri ziren, besteak beste, Jose Zurita –Sus-tapen Ekonomikorako diputatua– eta Alicia Ruiz de Infante –Obra Publiko eta Garraioetako diputatua–. Udalak duela pare bat aste eskatu zuen bilera Aldundiko ordezkariekin Adif erakunde-ari A-2620 errepidea itxita egon izanak eragindako kalte-ordainen aurrean zein jarrera duten azaltzeko. Bada, atzo batzartu ziren udaletxean, eta, errepidearen gaiaz aparte, Fagor Etxetresnen egoera ere izan zuten hizpide.

"Batera joango gara"

AHTko lanen ondoan gertatutako lur-jausiak errepidea urtebetez itxita egoteak eragindako kalteen aurrean Udalak zein Arabako Diputazioak jarrera bera dutela argitu zuen De Andresek bilera-aren ostean: "Bion borondatea da kaltetuei laguntzea eta Adifi kalteok erreklamatzeko. Kasuistika zabalda izan daiteke; batzuek epaitegiaren aldeko sententzia jasotzeko aukera gehiago izango dituzte beste batzuek baino. Hala ere, guztiek dute erreklamatzeko eskubidea eta beraz, guk kaltetuei zerbitzu juridikoa eta teknikoa eskainiko diegu erreklamazioetan argumentuak izan ditzaten. Gero kaltetu bakoitzak bere kasua azaldu beharko du".

Adifen auzian Udala eta Diputazioa eskutik helduta joango direla eman zuen aditzera Ahal-dun Nagusiak: "Batera joango gara; are gehiago, prozesu judizialean Aldundia bera ere interesatu moduan aurkeztuko da gaia gertutik jarraitzeko. Arrazoi objektiboak daude kasu askotan erreklamazioa bideragarria dela pentsatzeko".



Ramon Ajuria eta Javier De Andres atzo, bileraren ostean. | JOKIN BEREZIARTUA

"Erabateko akordioa"

Udalaren zein Diputazioaren artean "erabateko akordioa" lortu dutela baieztatu zuten bi aldeek. Hala, Ramon Ajuria alkatea "oso pozik" irten zen Aldundiko ordezkariekin izandako bileratik: "Gure proposamenak onartu dituzte eta badakite zein den herritarrek

bizi duten egoera. Aholkularitza juridikoa eskainiko diete herritarrei eta baita Udalarari ere. Era berean, administraziorako auzi-prozesuan ere bat egingo dute Udalarekin. Horrek esan gura du gurekin batera egingo dutela Adifen aurka. Horrenbestez, oso pozik gaude".

ESANAK

"Gurekin batera egingo dute Adifen aurka, eta, beraz, oso pozik gaude"

RAMON AJURIA | ALKATEA

"Erreklamaziorako arrazoi objektiboak daude hainbat kasutan"

JAVIER DE ANDRES | AHALDUN NAGUSIA

NIRE USTEZ



XABI IGOA

#btn13

Azkenaldian sarri galdetu didate Bertsolari Txapelketa Nagusiaren inguruan: "Nork irabaziko du aurten txapela? Arzallusek? Lujanbiok? Nor pasako da finalera?".

Sustrai Colinak orain lau urte aipatu zuen kirol nazional hurra: "Pronostikogintza". Batek daki zer gertatuko den, baina

ez zait asko axola emaitza. Eta galdera horiekin batera: "Zer iruditu zaizkizu puntuazioak? Zergatik puntuazio horiek? Ez al dira baxuak?...". Horiek ere ez zaizkit asko inporta.

Iñaki Gurrutxagak Argia aldizkarian orain aste batzuk "kanpoan geratzearen beldur-rari" atxikitzen zizkion emaitzok. "(...) epaimahaiko kideek ziurtasuna nahi dute (...) saio grisak, puntuazio grisak", zioen

"Gozatu lehiatik haratagokoaz; plazaz plaza izugarri gozaten baita"

Gurrutxagak. Eta ez zaio arrazoirik falta. Baina horretarako da bertsoa? Hori irakasten dugu bertso eskoletan?

Nire iritziz, gozatzeko da bertsoa, kantuan gozatzeko eta entzuleei gozarazteko. Jolasa eta jokoaren arteko nahasketa bat: jokotik baduena –txapelketa, tentsioa, puntuaketak...– baina jolasetik gehiago daukana –irriak, txaloak, sentimenduak...–. Adibidetzat: 1976an Xalbadorri jotako txistuei urepeldarrak emandako erantzuna: "Maite zaituztet oraindik!".

Beraz, gozatu txapelketari geratzen zaionarekin eta horren mitifikaturik dagoen lehiatik haratagokoaz; plazaz plaza izugarri gozaten baita.

San Melixenak ospatuko dituzte aste bukaeran Gantzaga auzoan

J.B. | ARAMAIO

Gaur hasi eta domekara arte, jaietan murgilduko dira Gantzaga auzoan. Urteroko egitaraua prestatu du jai batzordeak: gaur kantua afaria izango da (21:00) nabarmendu beharreko ekintza. Bihar, berriz, egun osoan zehar izango dute zertaz gozatu: meza nagusia Aretxabaletako koroaz lagunduta (12:00), mus txapelketa (17:00), patata-tortilla lehia-

keta (17:30) eta dantzaldia DJ Xazen eskutik (23:00). Domekan, berriz, bailarako txistularien kontzertua (11:00) eta XXXIII. Gantzaga Saria Txirrindulari Igoera (12:30) egingo dute. Dorletako Ama taldeko txirrindulariek hartuko dute parte, besteak beste. Jaiak amaitzeko herriko trikitilariak girotutako bermut dantza (13:00) eta tute txapelketa izango dira (17:00).



Patata-tortilla lehiaketa, iazko jaietan. | JAI BATZORDEA

Txirritola elkarteak antolatzen duen Txirripartxis lehiaketaren 14. edizioa ospatuko dute etzi

Txirritolaren Txirripartxis lehiaketaren 14. edizioa ospatuko da etzi udaletzeko osoko bilkuren aretoan. 6 urtetik 14 urtera artekoak 16:00etan hasiko dira eta 15 urtetik gorakoak, berriz, 17:30ean. Sariak ere adinaren arabera banatuko dira: 6 urtetik 14 urtera artekoetan lehenak 30 euroko txartela jasoko du eta bigarrenak, berriz, 20 eurokoa. 15 urtetik gorakoetan, ordea, lau onenak sarituko dituzte: 50 euroko txartela, 40 eurokoa, 30 eurokoa eta 20 eurokoa jasoko dute lehen lau sailkatuek, hurrenez hurren.



Txirripartxis lehiaketaren aurreko edizioetako bat. | GOIENA

Aramaixo taldeak Euskal Ligako hirugarren jardunaldia jokatuko du bihar kiroldegian (19:00)

Bi asteko atsedendialdiaren ostean, areto futboleko Euskal Ligako hirugarren jardunaldia jokatuko du bihar Aramaixo taldeak. Real Beni taldea izango dute aurkari, etxean, 19:00etan. Lehen bi jardunaldiak galduta, aramaioarrak azkenak dira sailkapenean –zortzi gol sartu dituzte eta 17 jaso–. Real Beni taldeak, ordea, jokatu dituen bi partidua irabazi ditu eta hirugarren sailkatu moduan iritsiko dira Aramaiora.

1963an jaiotako aramaioarrek ospakizun berezia egingo dute azaroaren 30ean Zarautz inguruan

1963an jaiotako aramaioarrek azaroaren 30ean egun-pasa egingo dute Zarautz aldean. 50 urte beteko dituztela-eta ekintza berezia antolatu dute eta jendea animatu gura dute parte har dezan. Izena emateko e-posta helbide berri bat zabaldu dute: aramaio1963@gmail.com. Parte hartu gura duenak 30 euro sartu beharko ditu Laboral Kutxako hurrengo kontu korrante zenbakian: 3035 0161 26 1611017472. Hilaren 17a baino lehen eman behar da izena.

MOTOR LASTERKETAK**Xabi Abasolo** | Sherco taldeko motor pilotua

"Pilotu ofizial izateak afizio hau ofizio bilakatzea dakar, eta nik ez dut nahi"

- ▶ Arrasatekoa Espainiako txapeldun izan da cross countryan eta bigarren enduroan
- ▶ Ez du pilotu ofizial izan nahi, baina kategoria berean korritzea aztertzen dabil 2014rako

XABIER URZELAI | ARRASATE

Xabi Abasolok (Arrasate, 1985) berezkoa du motor gainean azkar joateko abilezia. Beste pilotu askok baino esfortzu txikiagoa eginda emaitza onak batzeko gauza da, baina, hark onartu moduan, afizioa serioegi hartzen duen momentuan nekatu egiten da, ito, derrigor egin beharreko zerbait bilakatzen delako. Kapaz da karrera batetik bestera motorra ukitu gabe joateko, ia entrenatu barik, eta gero lasterketa irabazteko. Aurten urte betea izan du, 40 lasterketa egin ditu eta 38 alditan igo da podiumera. Halaxe irabazi du Espainiako cross country txapelketa, eta enduroan Espainiako txapeldu-norde geratu da. Gainera, mundialaren gogortasuna ere bertatik bertara probatu ahal izan du.

Ze aho-zaporerekin utzi zaitu Katalunian egindako asteburuak? Eskura zenuen Espainiako Enduro Txapelketa, urteko bigarren titulua, baina gutxiatik ihes egin dizu.

Ez nintzen oso pozik bueltatu, txapelketa irabazteko aukerak nituela ikusten nuelako. Baina Borja Nietok -irabazlea- asteburu borobila egin zuen, esango nuke denboraldiko onena egin zuela, eta ni, berriz, ez nintzen gustura ibili. Urte osoan *scratch*-ean hamar onenen artean egon naiz eta Katalunian hamabigarren geratu nintzen. Gero, zirkuituan zegoen hautsaz arazo mordoia izan genituen pilotu askok, eta nahikoa lan izan nuen lasterketa amaitzen. Borja, berriz, oso ondo ibili zen.

Enduroan debuta egin duzun urtea izanda, berriz, bigarren geratzea ez dago batere txarto.

Oso-oso gustura geratu naiz egindako urteaz. Cross countryan Espainiako Txapelketa irabazi dut eta enduroan azken ordura arte egon naiz irabazteko aukerekin. Lasterketa mordoia korritu dut aurten, eta ia denetan igo naiz podiumera. Mundiala izan zen salbuespena, han zegoen

mailarekin banekien helburua beste bat zela, eta, gainera, belau-nan min hartu nuen.

Uda ostean gauzak dezente aldatu ziren. Belauneko lesiotik erre-kuperatu, taldez aldatu...

Bai, uda aurretik animikoki ukituta egon nintzen. Mundialean min hartu nuen, hain zuzen, duela bi urte horrenbeste arazo eman zizkidan belaun berean. Eta bestalde, taldez aldatzea erabaki nuen. Sherco taldekoe-kin harremanetan jarri nintzen, eta laguntzeko gertu zeudela esan zidaten. Bihotzez eskertzen diet emandako laguntza.

Badakit eurak ere gustura geratu direla zure emaitzekin.

Bai, halaxe jakinarazi didate, eta gustura ibili naiz, ez naute-lako batere estutu, nire kasa ibili naizelako. Motorrak afizioa dira niretako, ez dut dirurik irabazten; alderantziz, gastu handia da, eta norbait gauzak modu batera egiteko estutzen hasten zaidanean... txarto. Hori bai, taldekideak ikusten badituz euren partetik dena ematen dabiltzala, nik ere dena ematen dut.

Posible da datorren urteari begira taldeko pilotu ofizial izateko eskaintza jasotzea?

Ez dut halakorik nahi. Alde batetik, egia da nire ametsetako bat egia bihurtuko litzatekeela, baina badakit pilotu ofizialak zelan bizi diren, eta ez nago pauso hori emateko prest, lurrean ditut hankak. Badakit kirol hau seriotasun handiagoz hartuz gero kapaz izan naitekeela ofizialekin lehiatzeko, orain biz-pahiru segundo baino ez dizkide-eta ateratzen. Baina afizioa ofizio bilakatuko litzateke kanpora joan beharko nuke [segu-ruenik, Kataluniara], egunero gogor entrenatu... Eta ez nago horretarako prest. Futbolearen moduan, hiruzpalau urte pilotu ofizial izanda etorkizuna lotuta izango banu, apustua egingo nuke, baina kirol honetan ez dago halakorik. Eta apustua egin eta lasterketaren baten



Xabi Abasolo, aste barruan, Nothing Without dendan. | XABIER URZELAI

"Badakit A mailan korritzea askoz gogorragoa izango dela, ikusteko dago"

"Oso urte ona izan da enduroan esperientzia hartzeko"

lesionatuz gero? Inor ez da zutaz akordatzen.

Baina senior B mailan ia dena irabazi ostean [pilotu ofizialek A mailan korritzen dute], zelan motibatu beste urte on bat egiteko?

Hori ari gara orain aztertzen. Senior B mailan oso maila oneko pilotuak daude, lehenago pilotu ofizialak izandakoak eta atzetik gatozenak. Eta pilotu asko gaude, gainera. Oso kategoria polita da, lehiakorra, baina baliteke datorren urtean A mailan korritzeko pausoa ematea.

Hau da, pilotu ofizialekin batera.

Bai. Jon Leiaristi da Sherco taldeko arduraduna eta denboraldia harekin planifikatuko dut. Badakit A mailan korritzea askoz ere gogorragoa izango dela, besteak beste, lasterketak luzeagoak izaten direlako -enduroan 7-8 orduko lasterketak egiten dituzte-. Horrek eskatuko du fisikoki indartsuago egotea eta garbi izatea, baita ere, podiuma ez dudala aurten moduan zapalduko. Baina, akaso, nik ere halako erronka bat behar dut, egia esateko, erlaxatu samar nabilelako. Kategoria honetan badakit apur bat estututa aurrean ibil naitekeela, eta erronka moduan ondo etorriko zait A mailan korritzea. Eta babesleendako ere interesgarriagoa da goiko mailan korritzea.

Berez, amaitu da denboraldia, baina Sherco taldeko dendan harrapatu zaitugu, Elgoibarren.

Bai, motorrarekin lanean ari gara, datorren hilean Kataluniara joango naizelako astebetzez entrenatzera. Izan ere, baliteke cross country denboraldia abenduan bertan hastea, eta prestatzen joatea komeni da. Amaitzeko, ez nuke elkarrizketa amaitu nahi babesleei eskerrak eman barik: Sherco, Motos Jon, Nothing Without... eta baita Ander Landaluzeri ere, aurten asko lagundu didalako. Eta ezin ahaztu ondoan izan ditudan lagunak, lasterketetara etorri direnak, eurak gabe...



Canicross lasterketa. | GOIENA

TXAKUR LASTERKETAK

Canicross txapelketa izango da aste bukaera honetan Gorlan

Kantina eta Hirubide arteko ibilbidea egingo dute parte hartzaileek

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Asteburu honetan lasterketa berezi eta ikusgarri batez disfrutatzen aukera egongo da; izan ere, korrikalariak eta txakurrek tandem osatu eta Gorlako kantina eta Hirubide arteko ibilbidea egingo dute. 8,2 kilometroko ibilbidea izango da eta 100 txakurretik gora izango dira lehian. Lehen aldia da halako canicross lasterketa bat antolatzen dela geurean, eta antolatzaileak pozik eta urduri samar daude, izango duen erantzunaren zain.

Zapatuan eta domekan izango dira probak. Hala, zapatu arratsaldean, 16:00etan, karroei lotutako txakurren lasterketa izango da; ondoren, patinari tira egingo dioten txakurrek hartuko dute protagonismoa; eta azkenik, txakurrek bizikletak tiratuko dituzte. Domekan, aldiz, hiru proba horietako bigarren txanda jokatu da, goizeko bederatzietan. Eta 11:00etan ekintza garrantzitsuena izango da; hau da, canicross lasterketa bera. 100 bat txakur etorriko dira korrika egitera; beraz, txakur asko.

Antolakuntzatik deialdia egin dute asteburuan Gorlara igo eta egunaz disfrutatzen. Izan ere, lehen aldia da proba hau antolatzen dela: "Poliki-poliki kirol hau gure bailaran ezagutzera eman nahi dugu, eta zaletasuna piztu. Gorla eta Hirubide lotzen dituen lasterketa polita da, bai parte hartzen dute-

nentzako, eta baita ikusleentzako ere", adierazi zuten antolatzaileek.

Burgosen bikain

Fernando Cobos bergararra izango da bailarako ordezkaria. Beteranoen mailan parte hartzen du eta esperientzia handiko gizona da. Asteburuan jokatu den lasterketaz gain, beste hainbatetan ere parte hartzen du Cobosek, eta sasoiko dago; izan ere, joan den asteburuan lan bikaina egin zuen Burgosen: bere txakur *Gari*-rekin batera izan zen, eta oso pozik dago, lehenengo postua lortu baitzuen, kataluniarren eta galiziarren aurretik. Fernando pozarren azaldu zen: "Txakur honekin primeran nabil. Pentsatu baino hobeto ibili gara. 7,3 kilometro 26 minutuan egin ditugu. Oso pozik nago egindako lanarekin". Lehenengo postua lortu zuen bere mailan, baina, era berean, sailkapen nagusian postu bikaina lortu du eta Espainiako kopan lehenengo postuan kokatu da.

CANICROSS LASTERKETAKO ORDUTEGIA ZAPATUA 16:00ETAN

- ▶ Karroz
- ▶ Patinez
- ▶ Bizikletaz

DOMEKA (2. TXANDA)

- ▶ 09:00 Karroz
- ▶ 09:00 Patinez
- ▶ 09:00 Bizikletaz
- ▶ 11:30 Canicross

ATLETISMOA

Debagoiendar ugari joango da Behobia-Donostiara

Aurten ere bailarako kirolari asko izango dira lasterketa arrakastatsu horretan

A.E | DEBAGOIENA

Iazko arrakastaren ondoren, aurten ere debagoiendar asko Behobia eta Donostia artean dauden hogeikilometroko korrika egiteko irrikaz daude.

Iaz, Oihana Kortazar elgetarrak ezustekoa eman zuen Bulebarreko helmugan, eta txapela jantzi zuen, 1.14.15eko denbora eginda. Nerea Oñatibia (1.15.58) eta Laura Gartzia (1.16.13) sailkatu ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren. Gizonezkoen proban, berriz, ez zen ezustekorik egon, eta hautagai nagusi Jaume Leiva katalana heldu zen lehena helmu-

gara. Haren denbora: 1.01.33.

Guztira, 21.425 parte-hartzailek egin zuten korrika. Gizonezkoen artean lehen debagoiendarra Yerai Varela oñatiarra izan zen.

Aurtengo berrikuntzak

Irteera aurreratu egin dute, 10:00etan izango da (gurpil aulkian doazenak 09:30ean; patinatzaileak 09:40an); gainera, kontsigna zerbitzua handitu egin dute eta korrikalariarentzako jana eta edaria egoten den errekupezio-karpa Okendo plazan egongo da. Haurtzaindegi zerbitzua ere egongo da.



Kortazar, iazko lasterketako irabazlea. | GOIENA

MENDIA

Euskal Mendizale Federazioak ohiko bilkura egingo du zapatuan Elgetako Espaloia kafe antzokian


Zapatuan, 10:30ean, ohiko bilkura egingo du Euskal Mendizale Federazioak Elgetako Espaloia antzokian. Besteak beste, gai hauek landuko dituzte: mendi lasterketen araudiaren aldaketa, 2014ko aseguruua, datorren urteko federazio lizentzien prezioak proposatzea eta, hala badagokio, onartzea; eta datorren urteko aurrekontuen proposamena eta onarpena, hala ikusten bada. Batzarkideei euren datuak eskatuko diete sarreran. Bilerako informazio eta dokumentu guztiak webgunean daude.

50 urte

metagra

gure aukera

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.

- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

KULTURA

'La tabernera del puerto' hirugarrenez Arrasaten

- ▶ Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak bigarrenez egingo du zarzuela bera
- ▶ Sarrerak salgai daude Interneten eta Amaia Udal Antzokiko leihatilan

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak 14. zarzuela taularatuko du azaroaren 23an, 24an, 29an eta 30ean Amaia antzokian; aurreko edizioetan moduan, oraingoan ere lau emanaldi egingo dituzte. Oraingoan, 2000. urtean elkarrearen ibilbidea zabaldu zuen Pablo Sorozabalen (Donostia, 1897) *La tabernera del puerto* egingo dute berriz ere. Sarrerak *ticket.kutxabank.es* helbidean daude salgai eguaztena ezkerre, 18 eurotan.

Euskal erroak dituen eta doinu ezagunak batzen dituen obra Cantabreda herrian kokatzen da. "Herri ilun eta deprimitutakoa da, ardo giro handikoa, narkotrafikoa ere badago", kontatu du Naroa Elortzak, zarzuelako kideak eta elkarteko komunikazio arduradunak, eta hauxe gaineratu: "Zarzuela guztietan moduan, maitasun kontuak ditu istorioaren abiapuntu, baina, funtsean, garaiko gizarteko beste hainbat gai ere uztartzen ditu. Misterioa da, ez da maitasun istorio hutza".

2000. urtekoa hobetu guran
Martxoan ekin zioten abeslariak zarzuela prestatzeari, eta burubelari ari dira egunotan azken ukituak ematen, nahiz eta aurrez

egindako obra duten. "Obra berezia da, akaso egin genuen lehenengo delako edo, nire iritziz, musikalki, egin dugunetatik, ederrenetakoa delako", dio Elortzak. Estreinakoz egin zutenean, ausardiaz jokatu zutela diote orain elkartekoek: "Ez dugu ulertzen nola egin genuen orduan, musikalki zailtasun handiak ditu, eta baita antzetzeko eszena konplikatuak ere. Ordukoa hobetze aldera ari gara gogor lanean".

Orain dela 13 urte bakarleri edo protagonista papera zuten gehienek errepikatuko dute; horixe izango dira, bada: Cristina Cubillo (*Marola*), Mertxe Salaberri (*Antigua*), Mikel Izurrategi (*Ripalda*), Josetxo Urrutia (*Chinchorro*), Luis Mari Okina



Abel (Libe Iñarra) eta Antigua (Marichin Villar). | M.S.



2000. urteko zarzuelaren amaieran, Izaskun Murgiarene senitartekoei loreak oparitu zizkien elkartek. | FOTO IMAGEN

(*Verdier*) eta Naroa Elortza (*Abel*). "17 urte nituen Abel mutikotxo leheneko antzetzut nuenean, ia herri guztia moduan Marolarekin maiteminduta nago; 13 urte gehiagorekin, pertsonaia bera bada ere, ezberdin ikusten dut", dio Elortzak. Aipatutako protagonista horiekin batera badira beste batzuk ere, horiek *La tabernera del puerto* obran estreinakoz bakarleri papera dutenak: Lander Oianguren (*Leandro*), Igor Ganboa (*Juan de Egia*, *Marolaren senarra*), Joxerra Mendizabal (*Simpson*) eta Luis Okina (*Verdier*), azken bi horiek kontrabadista papelean sartuta", dio Elortzak.

Hobetzearena, baina, ez da abeslariaren erroka bakarrik, dekoratuetan ere igarriko dugu eta 13 urtetako salto. Urtarrilean hasi ziren lau lagun lanean eta azkeneko ukituetan ari dira egunotan. "Dekoratu espezialak dira aurten goak, gustukoak izango direlakoan gaude. Orain dela 13 urte, kanpotik ekarri genuen guztia, baita arropak ere. Aurten, berriz, azkenekoetan moduan, guk egin dugu dena; geureganatu egin dugu zarzuela", diote elkartetik.

1957an ere Arrasaten egin

Estreinatzearen dagoen obra Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak bigarrenez egingo badu ere, hirugarren aldia izango da Arrasaten *La tabernera del puerto* antzetzutuko dutena; izan ere, musika gustuko zuen Arrasateko gazte talde batek 1957ko maiatzaren 4an egin zuen estreinakoz herrian.

Orduko protagonistak izan zirenen artean badaude oraingoan parte hartuko duten senitarteko eta gertuko asko, koruan zein protagonista paperean: Libe Iñarra, *Abel* izan zena, egungo *Antiguaren* (Mertxe Salaberri) ama; Jose Mari Mendizabal, orduko *Juan de Egia* eta egungo *Simpson* den Joserra Mendizabalen aita eta garaiko *Simpsonen* suhia.



Arrasate Musikaleko orkestra, abeslariarekin entseगतzen. | I.M.E.L.

Eskolako irakasle eta ikasleen orkestra

Maiatzean hasten dira Arrasate Musikaleko orkestrako kideak, Iker Olazabalen zuzendaritzapean zarzuela prestatzen. Irakasleek eta ikasleek (egungo eta baita garai batekoek ere) osatzen dute 50 lagunekoko orkestra, harizko, haizeko eta perkusio tresnekin.

Arrasate Musikalenzako erroka da zarzuelan parte hartzea horregatik, seriotasun handiz prestatzen dute; handia baita, ikasleentzako bereziki, lepo betetako herriko antzokian jotzea.

MERTXE SALABERRRI | 'ANTIGUA'

"La tabernera del puerto berezia da, emozio asko nahasten zaizkit-eta"

Eskarmentua du zarzuelan Mertxe Salaberri; abeslari izateaz gainera, eszena zuzendari lanak ere egin izan ditu. Aurten *Antigua* izango da, bigarrenez.

La tabernera del puerto berezia da zuretzako. Zelan zaude?

Horrela da, bai: batetik, egin genuen lehenengo delako; eta bestetik, 1957. urtekoan amak parte hartu zuelako; eta, hain justu, gurea estreinatutako genuen urtean hil zen. Emozioz beteta nago, baina urduritzen hasita ere bai dagoeneko.

Bitxikeria asko daude kontatze-ko; horietako bat, zuek loreak

oparitzen dizkiezuela, besteak beste, bakarlariei, baina garai baten lapikoa.

[Barreak]. Egia da, bai, garai bateko sopranoak presio-eltzea jaso zuen lan onaren ordainetan.

Zelakoa da obra?

Musika aldetik oso polita da. Kantu edo *estribillo* ezagun asko ditu, lagurnarteko bazkarietan sarritan abesten diren kantuak dira asko. Izen handiko soprano, baritono eta tenoreek sarritan abestu izan dituzten kantuak dira. Obra oso zaila dela ere esan beharra dago, baina, duda barik, polita!



AITZIBER ARANBURUZABALA

Errepikatu egingo duzue, baina muga oso goian jarrita.

Orduan oso ausartak izan ginela sarritan diogu entseगतetan, baita Tere Gonzalez zuzendariak ere. Egin genuen, eta ondo, esango nuke, ikusleei ere asko gustatu zitzairen. Orain, berriz, hobeto egin gura dugu, elkarrearen bilakaera igartzea gurako gure eta.



Aurtengo dekoratuko K handia egin duten Lanbide Hastapeneko hiru ikasleak. | TXISTO

"Kantari saioa jende askoren artean egiten da"

Zapatu arratsaldean sei saio grabatuko dituzte Bergarako Zabalotegi aretoan

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Fokuak, musika, oholtza... Deba-goieneko Kantari karaoke ikuskizunak zapatuan Bergarako Zabalotegi aretoa hartuko du. Aretoran grabatuko diren sei saioetan 160 gaztetxok hartuko dute parte.

Aurreko astean Amaia Txintxurreta saioaren aurkezlearekin entsegua egin eta gero, guztia prest dago: "Lasai dauden arren, irrika erraz ikusten da". 8 eta

12 urte bitarteko gazteek ilusio handiarekin parte hartzen dute, eta, Txintxurretak autograforik sinatu ez duela onartu arren, gaztetxoekin hainbat argazki atera ditu.

Hala ere, saioko aurkezleak argi dauka: "Kantari gaztetxoen tzat hitzordu handia da". Horregatik, sor daitezkeen urduritasun uneak gutxitu eta saioa bera hobeto prestatzeko, entsegua egiteko erabakia hartu zuten.

DATUA

160

GAZTE

Elgetako, Antzuolako eta Bergarako gaztetxoak izango dira Zabalotegin grabatuko dituzten Kantari saioetako protagonistak.

Familia eta guzti

Abeslari gazteak ez dira bakarrik joaten, eta, grabaketa egunean ez ezik, entseguetan ere gurasoak eta anai-arrebak bertan egoten dira: "Sara, parte hartzaile baten ahizpa, 4 urte izan arren, oholtza gainera igo eta dantzan eta kantuan aritu zen entseguan", gogoratzen du Txintxurretak.

Grabaketa egunean, gainera, artista txikien familia eta lagunaren gozamenerako, parte hartzaile bakoitzak sei sarrera jaso ditu.

Bada, bideo eta argazki kameraren atzean ezkutatu arren, gurasoak parte hartzaileak baino urduriago egongo dira. Entseguan, gutxienez, batek baino gehiagok saioa grabatu eta gaztetxoekin errepasatzen duela dio aurkezleak.

'K' ikusgarria

Goienako beste saio batzuekin gertatzen den moduan, Kantari-ko dekoratua Lanbide Hastapeneko ikasleen lana da. Aurreko dekoratuari buelta bat emateko asmoz, aurtengoak diskoteka handi baten itxura dauka. Taula gainean K handi bat izateaz gain, diskoteka-bola batzuk ere baditu. "Hasierako ideia Goienatik jaso genuen, baina CD zatiak erabiltzeko proposamena gurea da", dio Aitor Guridi irakasleak.

Argazkian ageri diren hiru ikasleek izan dute taula gainean ikusten den K handia egiteko ardura. Astebete egiten igaro ostean, "harro" daudela kontatu digu Guridik. "Aretxabaletara dekoratua ikustera joan ginenean sakelako telefonoak atera eta argazki pila atera zituzten; ikasleentzako, eurek egindako lan batek horrelako oihartzuna izatea guztiz berria da".

Telebistan ikusteko aukera

Hurrengo herriak Oñati eta Arrasate izango dira, baina itxaron ezin duten horiek adi egon behar dute; izan ere, Goiena telebista hasi da aurtengo lehen saioak eskaintzen. Martitzenetan eta eguenetan 19:35ean emititzen dira emanaldiak, eta bertan, Eskoriaitzako eta Aretxabaletako gazteen saioak ikusten hasiak gara.

Musikegunak: musika klasikoa guztioi hurbiltzeko

A. ARANBURUZABALA | OÑATI

35. aldia du asteburu honetan Santa Ana aretoan ekingo duten Musikegunak programak. Aurrekoetan moduan, Oñatiko Udaleko Kultura Sailak antolatu du, Foru Aldundiaren laguntzarekin, musika klasikoa ardatz hartuta.

Lau emanaldi batuko ditu egitarauak; haurrentzako antolatu dute biharkoa, zapatua, eta publiko helduagorentzat, berriz, gainontzeko hiruak. Sarrerak aurrez erosteko aukera dago, *barrabarra.eu* atarian; helduentzako emanaldietarako txartelak sei eurotan eta hiru euro eta erdian, berriz, biharkoak.

Asteburuan bi ekitaldi

Opera Divertimento taldearen *Colas mago handia* haurrentzako operak zabalduko du aurtengo edizioa, bihar, 17:00etan, Santa Anan. Ekinaldi bakarrek 50 minutuko ikuskizunean, Bastiana artzaina (sopranoa), haren maitalea Bastian (tenorea) eta Colas magoa (baritonoa) entzungo ditugu kantuan, agertokian beste bi aktore ere izango badi-ra ere: Pepito-magoaren laguntzailea- eta haren laguna.

Domekan, berriz, 19:30ean, Xabier Lizaso piano-jolea eta Andoni Egaña bertsolaria igoko dira agertokira. Chopin pianistaren eta Xepelar bertsolariaren antzekotasunean oinarrituta, musika, bertsoak, istorioak eta inprobisazioa uztartuko dituzte *Bi arreba* ikuskizunean.

Eta datozen asteburuetan Santa Ana antzokian izango dira Emporako Ganbara orkestra (azaroak 17, 19:30) eta Musica Boscareccia (azaroak 24, 19:30).

NIRE USTEZ

IÑIGO ALBERDI
EOSeko zuzendari
nagusia



Miguel Gonzalez Bastida gogoan

Euskal Herriko musikaren munduak bere maisuetako bat galdu du Miguel Gonzalez Bastidaren heriotzarekin. Musikari bikaina; konpositore, zuzendari eta organo jolea. Gure musikaren historian Goikoetxea, Guridi, Escudero, Sorozabal, Otaño... bezalako izen ezagunen katearen jarraitzailea. Bergaran 1920an jaioa, musikariaren familia-ko anaia gazteena zen, musikaz inguratuta jaio eta bizitakoa. Musika sentitu, idatzi eta interpreta-

tzeko modu oso bereko baten jabea genuen Miguel. Harmoniaren erabateko domeinua nabaria da bere obra guztian (bere konposizioetan argi erakusten du), instrumentazioaren ezagutza fina du banda eta orkestrako lanetan eta guztietan ere entzulearekin ederki konektatzen du. Estetika mailan XX. mendeko musikaren korrante ezberdinak ezagutu bai, baina, betiere, bere hautu aske eta independentea mantendu du korrante haustaileen aurrean; tonalitatea beti erreferentzia gisa.

Bere katalogoan lan asko dira, eta era askotakoak. Bandarako idatzitako obretan ezin genezake ahaztu *Mendia eta itsasoa*, *El metrónomo de Mälzel*, *San Martin eta San Martzial estanpak*... Korurako musikan bere *Stabat Mater*

oratorio sinfoniko korala, *Hilda-koen meza*, *Errekatxo kantari*, hainbat motete eta abesti... Bere musikak bizirik dirau Bergaran, bere kale eta elizetan, horra-ko pentatuak eta sortuak, baina haratago ere eramateko maila eta inspirazioarekin. Bukatzeko, berarekin pasatako denboraren pozarekin eta zerbait ikasi izanaren esperantzarekin, inoiz ahaztuko ez ditudan momentuak: meza nagusi ostean organoan inprobisatzen, teklatuan gora eta behera, melodia bat, beste bat, tonu aldaketa, kontrapuntua... eta maisua irribarrez pozik, eta han geundenak pozago, harrituta gure egunerokotasunean haren tamainako talentua bertan izanagatik. Eskerrik asko, Miguel; eskerrik asko, maisu!



Gonzalez Bastida, Bergarako Udal Musika Bandako trajez. | MUSIKA ESKOLA

Ikusleen adimenean sartuko da Anthony Blake mentalista ezaguna

'Mas allá de la imaginación' hark sortutako formatu txikiko ikuskizuna da

IMANOL GALLEGU | ELGETA

Lo saben todo de tí eta *Espíritu* formatu handiko ikuskizunen ostean, Anthony Blake adimenaren mago ezagunak pauso bat gehiago eman eta bere ikuskizuna ikusleari hurbildu dio. Beti egin ohi duen moduan, atmosfera zainduarekin, guztiz beltza den oholza batean, bere botereek argia sortuko dute.

Argi ilunen laguntzarekin, jazz musikarekin gertatzen den moduan, Blake ikusleen adimenean sartuko da, apurka-apurka ikuslea aulkitik altxarazi eta mentalistaren ikuskizunaren parte izan arte.

Blakeren ikuskizuna berria den arren, 25 urtetik gorako ibilbidean zehar zirrara handien sortu dituzten trukuak erakutsiko ditu Elgetan. "Oso truku aukeratuak dira, gertukoak", dio magoaren prentsa arduradunak. Errepaso hori, baina, ez du bakarrik egingo: "Blakek bere ikuskizun guztietan jendearen beharra izaten du, baina, kasu honetan, ikusleen parte hartzea ezinbestekoa da".

Hortaz, misterioa eta magia gogoko dutenek hitzordu garrantzitsua dute datorren aste bukarran Elgetan.

Emanaldi bikoitza

Espaloia antzokian Anthony Blake klasikoa da dagoeneko, eta, aurreko emanaldietan bezala, *Más allá de la imaginación* ikuskizunarekin ere txundituta utziko du jendea.

AEDk 27. Arrasate Literatura Lehiaketak abiarazi ditu

I.G. | ARRASATE


Martxan dira 27. Arrasate Literatura Lehiaketak. Hiru modalitate izango dira aurten ere: ipuina, poesia eta bertso-paperak. Bada, oinarrien berri eman du AEDk: euskarazko obra originalak eta inoiz saritu edota argitaratu gabekoak soilik aurkez daitezke eta parte hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkez ditzake. Aurkeztutako lan guztiak lelo batekin sinatu beharko dira. Lehiaketan, Debagoienera bizi, lan egin edo ikasten duen edonork parte har dezake.

Lanak bidal daitezke aed@aedelkartea.com helbide elektronikora edo, posta arruntez: Pablo Uranga 4, behea, 20500 Arrasate. Idatziak aurkezteko azken eguna martxoaren 14a izango da eta finalisten zerrenda maiatzaren 9an aditzera emango dute.

Oraingo honetan, mentalista ezaguna ikusteko aukera bikoitza egongo da Espaloian: hilaren 16an, zapatuan, 22:30ean, izango da lehenengo emanaldia; eta domekan, aldiz, saioa 19:00etan hasiko da. Joan nahi duten baz-

kideek 12 euro ordaindu behar dituzte eta gainontzeko ikusleek, berriz, 16 euro.

Egun horietan, kontuz, elgetar eta bisitariok, ohiko lainoez gain Anthony Blakek misterio handiagoa emango baitio Elgetari.



Blakek bere ibilbideko truku zirrargarrienak gogora ekarriko ditu. | GOIENA



Askorik landu gabeko salmenta bideak martxan jar ditzake 'Baserrisarea.com' atariak

Debagoienera oraindik ere garrantzia duten lehen sektoreko produktu eta lanbideei lekua egiten die 'Baserrisarea.com' webguneak. Eta baserritarren egitekoa ezagutzeko aukera ere eskaintzen du.

Irumendi elkartekoei urteetako esperientzia dute abeltzaintzan. 60ko hamarkadan du jatorria elkartekak, nahiz eta egungo egiturarekin 1994a ezkereratik. Esne-behiekin hasi ziren lanean, baina, berregituraketatik hona, okeletarako behiak dituzte ogibide irumendi elkarteko lau kideek, horien artean Mikel Muxikak.

Zenbat abere dituzue?

Bi urtetik gorako 200 behi ditugu. Horiez gain, sei hilabetez azpiko 74 bigantxa eta ixku, sei eta hamabi hilabete arteko 60 inguru eta hamabi hilabetez 24 hilabeterako 90en bat.

Zein arrazatakoak dira?

Pirenaika behiak ditugu eta arraza bera haragitarako moduan dago katalogatua.

Denak okelatarako hazten dituzue?

Alde batetik daude okelatarako gizenzen diren txekor eta behiak, eta bestetik, bizirik mantentzeko hazten ditugunak. Haragia Harakai



“Kooperatiban baditugu horretarako tresnak eta *Baserrisarea.com*-etik esango baligute, adibidez, txekor erdi baten eskaria dagoela, berehala prestatuko genituzke okela-sortak.”

-Urkaiko kooperatibaren bidez saltzen dugu, Eusko Label ziurtagiriarekin. Bizirik saltzeko abereen kasuan, ernai dauden bi urteko bigantxak saltzen ditugu. Espainian zehar egiten diren hainbat azoka eta enkantetan saltzen ditugu, Pirinio inguruetan, Teruelen, Sorian, Kantabrian, Palentzian eta Extremaduran, besteak beste.

Bestelako proiektu batzuetan ere bazabiltzate, ezta?

Bai; hobekuntza genetikoaren plan batean gabilta. Pirenaika arraza-

ren hobekuntza genetiko oso garrantzitsua da, bertako arraza izanda ez dugulako beste leku batzuetako hobekuntza genetiko aprobetxatzerik. Horrek ustialekuan gastu gehiago izatea eragiten du, besteak beste, pisua kontrolatzeko lan handia egin behar delako. Bestalde, bigantxen ugalketarako I+Gko lan bat egiten ari gara: elikadurak euren ziklo hormonalean eta ernai geratzeko garaian zela eragiten duen aztertze.

Zuen lanean zertan lagundu

ahal dizue *Baserrisarea.com* moduko egitasmo batek?

Uste dut beste produktu batzuk ongi saltzen direla, baina okelarekin oraindik eskari gutxi dago. Ez dago zalantzarik, eskaria balego guk baditugu tresnak haragia zatitan, sortaka, prestatu eta saltzeko. Kooperatibako kide gara eta baditugu horretarako baliabideak; beraz, *Baserrisarea.com*-etik esango baligute barazkiekin egiten den moduan txekor erdi baten eskaria egiten dutela, berehala prestatuko genituzke okela-sortak.

baserrisarea.com
Debagoieneko landa eremuaren erakusleioa

- :: Gure ekoizleen produktuak baserritik etxera
- :: Landa bizitza eta ondare historikoa
- :: Gune interesgarriak eta ibilbide naturalak
- :: ...eta askoz gehiago!

Debagoiena BASERRI SAREA Auzoaren Zurekin



Iñigo Urbarren,
Mojategiko pistan.
Bigarren argazkian,
Arrasateko txapelketa
batean.

Iñigo Urbarren | Atleta

"Futbolean eman zuen izena inguruko jende gehienak, baina nik atletismoa aukeratu nuen"

JOKIN MUJIKKA | ARRASATE

Iñigo Urbarrenek (Arrasate, 1993) atletismoa egiten du; salto hirukoitza, hain zuzen ere. Bederatzi urte egin zituen Arrasateko Atletismo Taldean, eta orain dela bi urte Real Sociedadek fitxatu zuen. Ez da atleta makala, Espainiako Gazteen Txapelketan urrezko domina bat irabazi baitzuen, juniorretan beste bat eta 23 urtez azpikoetan, zilarrezko beste bi. Joan den denboraldian, Europako Promesen Txapelketara joateko behar zen gutxieneko markatik hamar zentrimetrora geratu zen.

Zerk eraman zintuen atletismoan hastera?

Txikia nintzenean, eskolan lasterketak egiten genituen eta asko gustatzen zitzaizkidan. Horrek

herri mailako hainbat krosetan izena ematera animatu ninduen, eta emaitza nahiko onak lortu nituen. Futbolean eta saskibaloian eman zuen izena inguruko jende gehienak, baina nik atletismoa aukeratu nuen.

Betidanik egin izan duzu salto hirukoitza?

Ez. Hasieran, abiadura lantzen nuen, gehienbat; bereziki, 200 metroak. Geroago, bakoitza ondoen moldatzen zen proba bideratu gintuzten. Salto onak egiten nituela esan zidan gaur arte nire entrenatzaile izan den Mikel Uribesalgok, eta denetariko probak egitetik jauziak dituztenak praktikatzera pasatu nintzen.

Orain dela bi urte Real Sociedadek fitxatu zintuen; pausogarrantzitsua izan al da zure ibilbidean?

Bai. Batez ere, Real Sociedadekin beste maila bateko ligetan parte hartzeko aukera daukadalako, eta goi mailako jendearen aurka lehiatzeak abantaila asko ditu. Izan ere, lehenago askoz errazago izaten zen ligetan postu onak lortzea.

Arrasateko Atletismo Taldean egon zara txikitatik; uste duzu Espainian ondo lehiatzeko adina prestatzen dituztela atletak?

Baietz uste dut. Kirol honetan ona izateko gauza garrantzitsuenetako bat entrenatzaile ona izatea da, nire ustez. Taldeak ez du horrenbesteraino inporta. Entrenatzeko instalazio onak badaude, eta horri entrenatzaile ona gehituta, atleta ona izateko aukerak asko handitzen dira.

Gaitasun fisiko onak behar dira kirol honetan. Bakoitzaren genetika ala entrenamendua bera da garrantzitsuagoa?

Inportanteagoa iruditzen zait entrenamendu *planning* ona izatea, oparitu ez dutelako ezer oparitzen. Nik, esaterako, lan handia egin dut ditudan markak lortzeko. Hala ere, onenen artean egoteko genetikoki zerbait berezia izan behar dela uste dut.

Salto hirukoitza bakarkako proba da. Ze abantaila ditu?

Ba, azken baten, emaitza on guztiak norberarentzat bakarrik direla.

Eta ze desabantaila?

Askotan, bakarrik entrenatzea oso gogorra eta luzea egiten zait, faltan igartzen dut norbait nire ondoan. Taldeko kirolean, esaterako, entrenamenduak ez dira indibidualak izaten eta taldeki-deekin kontaktuan egoteko aukera ematen dute.

Joan den denboraldian Tampere-n (Finlandia) izan zen Europako Promesen Txapelketara joateko behar zen gutxieneko marka (15,70 metro) lortzean egon zinen.

Bai. Pena izan zen, hamar zentimetro falta izan zitzaizkidalako. Entrenamendu-ordu asko egin nituen eta fisikoki oso ondo nengoen. Hala ere, egia da kirol honetan psikologiak pisu handia daukala. Emaitza onak lortzeko psikologikoki ondo egoteak asko laguntzen du.

Zein da zure buruari jartzen diozun muga edo helburua?

Ez diot helburu finkorik jartzen nire buruari. Izan ere, uste dut pausoka-pausoka joatea dela dinamika egokiena. Orain, esate baterako, otsailean daukadan Espainiako Txapelketari begira nago. Horren ondoren, hurrengo txapelketan daukadan onena emateko gogor entrenatzea izango da helburua.

PERTSONALA

Zure herriko txoko maitea: Udala.

Janari gustukoena: Pasta.

Euskal Herriko txoko gustukoena: Gaztelugatxe.

Pelikula gustukoena: *Crank, Veneno en la sangre.*

Bidaiatzeko leku bat: Costa Rica.

Atleta gustukoena: Jonathan Edwards.

Garaipen preziatuena: Donostian izan zen Espainiako Junior Txapelketa.

Etorbizuneko ametsa: Olinpiar Jokoetan parte hartzea.

JOKIN MUJIKKA



ARRASATE 'Hitzak' antzezlana
 Hiru emakume: ezkondu berria, aspaldi ezkondua eta heldua; eta gizon bat, eta ume bat. Hiru emakume: Klara Badiola, Ainhoa Aierbe eta Ane Pikaza; eta gizon bat: Jabari Barandiaran. Elkarriz hitzik gozozak esateko gai diren gizon bat eta hiru emakume. Hitzak gozotasuna galtzen hasten diren arte. Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

WWW.DONOSTIAKULTURA.COM



GOIENA

OÑATI Inoren Ero Ni eta Norman taldeak gaztetxean

Andoingo eta Eibarko taldeekin hasiko dute azaroko egitaraua Antixena gaztetxean. Norman taldeak Perkins diskoa aurkeztuko du. Bestalde, Inoren Ero Nik hardcorea, jazz, rocka eta bestelako estiloak nahastuko ditu. Bihar, zapatua, Antixena gaztetxean, 22:00etan.

MUSIKA

BERGARA Garate bakarlaria

Txapa Irratiko egitaraua aurkeztu ostean, kontzertua egingo du Garate bakarlaria. Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:30ean.

ELGETA Voces y Cuerdas taldea

Maribi Murillok, Aitor Errastik, Eduardo Trujillok eta Vicente Ramirezek Los Panchos eta Los Reyes taldeen boleroak eta kantutak eskainiko dituzte. Sarrerak 12 euro. Bihar, zapatua, Espaloian, 22:30ean.

ARRASATE Azaro Musikala

Ibai-Artek antolatuta kalejira egingo du Arrasateko Musikaleko Big Band taldeak. Bihar, zapatua, kalerik kale, 18:00etatik 20:00etara arte.

OÑATI The Potes taldearen kontzertua

The Potes taldea The Pogues talde ezagunaren eta genero bereko beste talde batzuen bertsioak egiten dituen taldea da. Esperientzia handiko musikariz osatutako taldea da. Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

ANTZERKIA

OÑATI 'Vivir en Villa Titiritaina'

Ikusi Makusi antzerki taldeak bere azken antzezlana, bederatzigarrena, estreinatuko du. Erretiratuendako bakarrik egingo dute. Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 17:30ean.

ESKORIATZA 'Ametsen fabrika'

Amesgaiztoak dituen 8 urteko mutiko batek amets gozoak izateko makina asmatzen du: *Ametsen fabrika*. Aizarnazabalgo bertso eskolako kideek sortutako ikuskizuna da. Bihar, zapatua, eguraldi onarekin Fernando Eskoriatza plazan eta eguraldi txarrekin frontoian, 18:00etan.

ERAKUSKETAK

ARRASATE Julio Galartaren lanak

18 margolan ipini dituzte ikusgai, eta horietako batzuk salgai, gainera. Helburu nagusia Galartaren

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguzteneko eguerdia baino lehen. Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00



obra ezagutzera ematea da eta, bide batez, Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkartearendako dirua lortzea. Azaroaren 17ra arte, Arregi arte aretoan, denda zabalik dagoen orduetan.

OÑATI Institutuaren 50. urteurrena
 Zuazola institutuaren 50 urteko ikas-materiala eta erretratuak ikusgai ipini dituzte. Beste hainbat ekintza egingo dituzte ondorengo asteetan eraikinaren mende erdia ospatzeko. Azaroaren 17ra arte, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

ARRASATE Urretxuko arte tailerreko ikasleen lanak
 Urretxuko ikasleen margolanak ikusgai daude. Erakusketa horren ostean, Arrasateko arte tailerreko ikasleen txanda izango da. Azaroaren 17ra arte, Harresi aretoan, arratsalde.

BERGARA Benito Canteroren argazkiak
 Bergarako argazkilaria *Pasarteak* delako erakusketa ipini du. "Sentsazioei zabaldutako atea", egilearen hitzetan. Abenduaren 1era arte, Aroztegi aretoan, goizetan eta arratsaldetan.

OÑATI Musikegunak
 Bi emanaldi egingo dituzte aste bukaeran: zapatuan *Colas mago handia* emanaldia egingo du Opera Divertimento taldeak; domekan, aldiz, *Bi arreba* izeneko musika ikuskizuna egingo dute Andoni Egaña bertsolariak eta Xabier Lizaso piano-jotzaileak elkarrekin. Azken horretarako sarrerak sei euro balio du. Bihar, zapatua, Santa Anan, 17:00etan.

UMEAK

ESKORIATZA Umeendako karaokea
 Tortolis ludotekan karaokea egingo dute umetxoek. Gaur, egubakoitza, Tortolis ludotekan, 17:30ean.

JAIK

ARAMAIO San Melixenak Gantzaga auzoan
 San Melixenak ospatuko dituzte zapatuan Aramaioko Gantzaga auzoan. Besteak beste, kantu afaria, mus eta patata-tortilla txapelketak, umeendako jolasak, dantzaldia eta 33. Gantzaga saria egingo dituzte. Gaur eta bihar, egubakoitza eta zapatua, Gantzaga auzoan, 20:30ean hasita.

ANGIOZAR San Martin de Tours jaiak
 Angiozarko AzkUNETAN San Martin de Tours jaiak ospatuko dituzte. 12:30ean meza izan dute eta ondoren luncha egongo da, trikitilariekin. Bihar, zapatua, Angiozarko AzkUNETAN, 12:30ean hasita.

BESTELAKOAK

BERGARA Txapa irratiaren programazioaren aurkezpena
 FMko 97.2an 23 irratsaio propio ekoiztuko dituzte. Eta horien aurkezpen ekitaldia egingo dute gaur. Ostean, Garate musikariak kontzertua egingo du. Biak ala biak zuzenean emango dituzte uhinetan eta *txapairratia.org* atarian. Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:30ean.

ARETXABALETA Mendibitzu baserri ekologikora bisita gidatua
 XV. jardunaldi gastronomikoen barruan antolatu da. Bisita doan izango da eta alde aurretik izena eman beharra dago: 943 79 64 63 telefonoan edo *turismo@deba-goiena.net* helbidean. Bihar, zapatua, Mendibitzu baserrian, 11:30ean.

ARRASATE Kurtzetxikira irteera
 Loramendi elkarteak 50 urte beteko ditu 2014an, eta mende erdia ospatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte. Horietako bat domekako mendi ibilaldia da: Kurtzetxikira joan dira. Etzi, domeka, Bedoña elkartean, 09:30ean.

ELGETA Pintxo lehiaketa

VI. pintxo lehiaketa egingo dute herriko tabernetan. Jainaga eta Narbaiza trikitilariak girotuko dituzte tabernak eta kaleak. 14:00etan egingo dute sari banaketa ekitaldia. Etzi, domeka, Elgetako tabernetan, 12:00etatik 14:00etara.

DEIA

OÑATI Dentibus
 Haginen azterketa egingo dute, plazako aparkaleku zaharrean. Gaur, egubakoitza, Foru plazako jolaslekuan, 09:00etan.

OÑATI Wellness jaialdia
 Bosu, pilates eta erlaxazio saioak egingo dituzte. Aldez aurretik izena eman behar da Zubikoa kiroldegian. Bihar, zapatua, Zubikoa kiroldegian, 10:00etan.

OÑATI Tratu onen aldeko lipdub grabaketa
 Batxilergoko ikasleek eta kale hezitzaileek tratu onen aldeko lipduba grabatuko dute Foru plazan eta inguruko kaleetan. Bihar, zapatua, Foru plazan eta herriko kaletan, 10:00etan.

OÑATI '1.200eko EAeko konkista' delako ikas-tailerra
 Antixena gaztetxean egingo dute. Azaroko egitarauaren bigarren ekitaldia izango da. Edonork parte har dezake. Azaroak 13, eguztena, Antixena gaztetxean, 18:30ean.


HITZALDIK

OÑATI 'Jolasen garrantzia haurtzaroan'
 Kometako pedagogia aholkulari Olatz Aldabaldetrekuk jolasen garrantziari buruzko berbaldia egingo du gurasoendako. Aldez aurretik izena eman behar da. Gaur, egubakoitza, Txaloka ludotekan, 18:15ean.

ESKORIATZA Makrobiotikari buruz berbetan
 Jexus Larretxeak *Makrobiotika: ez itxoin zahartu arte gazte mantentzeko* delako berbaldia egingo du. Irekia izango da. Azaroak 13, eguztena, kultura etxean, 18:00etan.



MUSIKEGUNAK



goiena

2013-11-08

BUKATZEKO

Pintxo-poteoa bihar Arantzazun

- ▶ Perretxiko-pintxoak ezagutzeko eta dastatzeko aukera izango da bihar, zapatua, Arantzazun
- ▶ Arantzazuko Adiskideek antolatu dute, hirugarrenez, eta Arantzazuko sukaldariak parte hartzen dute

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Bihar, zapatua, hirugarren urtez perretxiko-pintxo-poteoaz gozatu ahal izango dute gura duten zale guztiak Arantzazun, Mikopoteo egunean. Arantzazuko Adiskideak elkarteak antolatu du, aurreko urteetako erantzun polita eta basoko fruituek inguruan duten zaletasuna ikusita.

Aurtengo nobedadea da zaleen ikuspuntua gehituko dela, eta Lourdes Ugartek gaur egun perretxikoek pizten duten zaletasunaz hitz egingo du, 18:00etan Gandiaga Topagunean. Emakumezko zaleen ikuspuntua ere jorratuko du, hain ohikoa ez dena.

Pintxoak eurak inguruko sukaldariak egindakoak izango dira: Zelai-Zabal, Arantzazuko Santutegiko Hotela, Sindika eta Goiko-Bentako sukaldariak, hain zuzen ere. Egileek eurek aurkeztuko dituzte aurtengo miko-pintxoak hitzaldia eta gero. Azkenik, 19:00etan, pintxoak dastatzeko aukera etorriko da, esandako jatetxeetan pintxo-poteo zirkuitua eginez. Pintxoak eta edaria euro eta erdian salduko dituzte.

Bertako kulturaren adierazle

Arantzazuko Adiskideek Arantzazu ezagutarazteko ekintza gisa



laz zerbitzatu zituzten perretxiko-pintxo batzuk. | ARGAZKIAK: ARANTZAZUKO ADISKIDEAK



Alberto Elortza sukaldaria, iaz.

antolatu zuten lehenengo mikopoteoa, orain dela hiru urte. Izan ere, "udazkena sasoi berezia da bisitari asko bertaratzen direlako inguruotako perretxikoak batzera", eta publiko horri eskainitako ekintza da miko-poteoa.

Ekintza horrek bi ikuspegi ditu, hortaz: bata ludikoa eta bestea kulturala. "Alderdi ludikoa mikopotean garatuko da; alderdi kulturala eguna aberasteko gara-

zten da. Mikopoteorako, bertako jatetxe eta tabernek dastatuko diren mikopintxoaren elaborazio zaindua egin dute, bertako kultura gastronomikoaren adierazle", esaten dute Arantzazuko Adiskideek.

Aurreko bi mikopoteo egunetan 40 bat lagun batu izan dira, adin guztietako zaleak, eta aurrean ere, gutxienez beste hainbeste erakartzea espero dute.

AZKEN BERBA



AINZTANE OIARBIDE

Fagorren ondorenak

Fagorren inguruan berririk beltzena iritsi zaigu aste honetan. Zoritxarrez, berri honen dimentsio publikoa bere onetik atera da. Sentsazionalismoa, gai honi buruzko programa gehiegikeria, edozeinek eman dezake eta eman du gertatutakoaren inguruko iritzia. Asko hitz egin da negozio edo industria ikuspuntutik, baina ez dugu argi zenbat korapilo askatu behar diren informazio osoa izateko. Edozein enpresa ixten denean, erabaki horren atzean pertsonak daude. Fagorren kasuan, gainera, familia bereko kide bat baino gehiago ere badira askotan. Batzuk hasiko dira lanean, baina beste asko lanik gabe geratuko dira bazkideak ez direlako, jubilazio aurreko adinean daudelako... Enpresak eta korporazioak berak emango dituen laguntzez gain, erakundeek ere gauza asko egin ditzakete, edozein langaberekin bezalaxe. Eta horretan saiatu behar dute guztiak. Giza solidaritateaz gain, erakundeengandik sentibiltasun berezia behar da garai hauetan. Udalen esku dago herritarren presio fiskala igotzea edo krisi honi aurre egiteko biztanleei laguntzea, adibidez. Tasak igo beharrean, izoztea, enpresa berriak sortzeko hobariak ematea, orain inoiz baino gehiago eskatu behar zaie agintariei gertuen dituzten biztanleen solidaritatea.

4. edizioa

Kantari

Bergarako saioa!

Bergara, Antzuola eta Elgetako partaideok, eman azken errepasoa abestiari eta koreografiari!

IKUSKIZUNA

BERGARAN

Azaroaren 9an, Zabalotegi aretoan.

Amaia Txintxurreta Kantariko aurkezlea

Etorri zuen lagunak animatzera. DJa ibiliko da giroa animatzen. Etorri disko-festara dantzara eta Kantariko gaztetxoak animatzera!

Informazio gehiago: 943 25 05 05 | blogak.goiena.net/kantari